

Zu hemen zaude.

goiena

Munduko onena sokatiran

lone Elorza oñatiarrak urrezko
domina bi lortu ditu munduko
sokatira txapelketan
Badaiotz taldearekin / 38

Argazki handian, lone Elorza Oñatin, Munduko sokatira txapelketan
lortutako dominekin; txikian, sokatik tiratzen, lerroko bigarreina.



XABIER URZELAI ETA EITB

**Urteetan aurreztu
zutena berreskuratu
ezin dutela salatu
dute Geroako
pentsiodun batzuek / 2**

**Beratu jaialdia
martxoaren 25etik
29ra bitartean egingo
dute Oñatin, musika
ardatz hartuta / 40**

SINADURAK



IDOIA
PEÑAKOBA / 6



XABIER
IGARTUA / 35



MARIKE RUIZ DE
AUSTRI / 10



AGURNE
BARRUSO / 48

+



Artearen magiak
elkartutako
ibilbideak

Onintze Salazar
metereologari
elkarrizketa



**Bizi-bizi
dator
udaberria
Goiena
telebistan / 23**



"Gure dirua eskuratu gura dugu, besterik ez"

1996an pentsioak osatzeko sorturiko enpresa da Geroa, eta bazkide batzuek salatu dute ezin dutela hortik dirua atera: "45.120 euro baino gehiago ditugunok ezin dugu gure dirua osorik atera, eta hori baino gutxiago dutenek, bai; diskriminazioa da hori"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Metalaren hitzarmenaren baitan sortu zen Gipuzkoa mailako Geroa enpresa, eta Adegik eta sindikatu guztiek sinatu zuten hitzarmen hori, ESK-k izan ezik –enpresaren %50 Adegirena da eta beste erdia sindikatuena–. Hitzartutakoaren arabera, enpresetan langileen nominako portzentaje bat Geroara bideratuko zen, gero erretiroa hartu ostean pentsioa osatzeko helburuarekin –hasieran, soldataren %1,5 ematen zioten Geroari; eta egun, %2,6 inguru–.

Langileak erretiroa hartzen hasi direnean etorri da arazoa. Izan ere, bazkide batzuek –Jesus Zabaleta eta Luis Arenaza bergararrak tartean– salatu dute ezin dutela euren dirua eskuratu, enpresak jarritako muga baten ondorioz. Gehitu dutenez, 45.120 euro baino gutxiago dutenek ez dute arazorik, baina hori baino gehiago dutenei ez diete uzten euren dirua osorik eskuratzen. "Errenta bat bakarrik eskuratu dezakegu, hilean 200 euro baino gutxiago 23 urtean. Kopuru horretatik behera daukatenek, aldiz, diru guztia ateratzeko aukera daukate, gura izanez gero. Hori erabateko diskriminazioa da. Betebeharrak guztiok berdinak eduki ditugu,



Jesus Zabaleta, Luis Arenaza eta Jose Mari Lazkano, Geroak kaltetuak. E.A.

baina eskubideak ez", adierazi du Jose Mari Lazkanok, Geroa enpresak kaltetutakoaren plataformaren sustatzaile eta bozeramaileak.

Lazkano joan den urtean hasi zen bere eskubideen alde borrokan. "Adegira eta sindikatuen gana jo nuen, eta esan zidaten ea zergatik ez nion diru hori Gizarte Segurantzari eskatzen. Zentzurik gabeko erantzuna izan zen hori, eta bestelako azalpenik ez zidaten eman. Jakin nuen beste batzuk ere nire egoera berean zeudela, eta kaltetuen

plataforma bat sortzea erabaki nuen, dagokiguna eskatzeko", azpimarratu du getariarrak. Apurka-apurka, geroz eta kaltetu gehiago batzen joan zaizkio. "Gaur egun, Whatsapp eta Telegram taldeetan 1.500 pertsona inguru gaude, guztira", dio.

Gardentasuna eskatzen dute
Enpresaren aldetik isiltasuna eta gardentasun falta dagoela salatu dute kaltetuek. "Zer gortetzen du Geroak? Izan ere, ez digute inolako azalpenik ematen. Kuriosoa bada ere, Adegik eta

sindikatuak, guztiak ados daude honetan. Halako gatazka egon eta sindikatuak isilik egotea ez da normala, hori ezin da onartu. Estatutuetan tematuta daude, baina, hala izanik ere, aldatzea posible izango da, ezta?", nabarmendu du Lazkanok.

Era berean, enpresak ez du negoziatzeko "inolako borondaterik" erakusten, plataformako bozeramailearen esanetan. "Etekin handiko enpresa dela eta diru arazorik ez dagoela diote, baina ez digute azalpenik ematen, eta horrek susmo txarrak edukitzera garamatza. Gardentasuna eskatzen dugu, honen guztiaren atzean zer dagoen jakin gurako genuke".

Kaltetu guztiei dei egin diete eurekin harremanetan jartzeko, Lazkanori deituta: 639 71 85 66.

"Ez gara opakoak"

Geroako gerente Virginia Oregik dio ez direla opakoak. "Ate guztiak irekita eduki izan ditugu beti, informazioa ematen dugu, eta gure webgunean informazio zehatza daukagu. Likidezia daukagu, eta egiten dizkiguten kontrol guztiak ondo gaintitzen ditugu. Beraz, guri buruz esaten diren gauza asko ez datoz errealtatearekin bat", azaldu du.

Oregik dioenez, pentsio publikoen osagarri moduan sortu zen Geroa, metalgintzako langile guztiei laguntzeko, hitzarmen kolektiboaren baitan, eta gaur egun, 20 sektoretako langileak ditu. "Pentsioen gehigarri edo osagarri moduan ulertzen dugu pentsio publikoari laguntzen dion hileroko errenta hau".

Ekarpena lau tartetan banatuta
2015era arte, biziarteko errenta bat sortzeko gai bazen, errenta moduan ordaintzen zieten baz-

kideei, Oregiren esanetan. "Bestela, bazkideari esaten genion ezin genuela eta dirua itzuli egingo geniola. 2015etik aurrera, lau tartetan banatu genuen hori".

Lehen tartean daude ekarpena 11.280 euro baino txikiagoa egin duten bazkideak. "Ezin diegu errentan ordaindu, bestelako kolektiboek kalte egiten ari garelako, eta errenta horren iraupena jaisten dutelako".

Bigarrenean, 11.280 eta 45.120 euro arteko ekarpena egin dutenak. "Ezin diegu 188 euroko errenta osagarria eskaini guxtienez 20 urtean; beraz, kapitalean ordaintzen diegu. Hala ere, bazkideak bereziki eskaera bat eginez gero errentan egiteko, ematen diegu aukera hori".

Hirugarren zatian, 45.120 eta 56.400 euro arteko ekarpenak egin dituztenak. "Errentan ordaintzen diegu, oso egoera onean gaudelako errenta egokia eskaintzeko".

Laugarrenean, 56.400 eurotik gorakoetan, segurua ere gehitzen zaie. "Hau da, 90 urtetik gora bizi izan ezker edota egindako ekarpen guztiak gastatuta ere, kobratzen jarraitzen dute".

Kaltetuen plataformari erantzunez, azaldu du pentsio publikoak osatzea dela Geroaren helburua. "Uste dugu ona dela gure bazkide guztiek errenta osagarri hori edukitzea luzaroan. Izan ere, pertsonak geroz eta urte gehiago bizi dira, eta horri ekonomia osasuntsu batekin lagundu behar zaio".

GEROA-K DIO PENTISIO PUBLIKOAK OSATZEA DELA HELBURUA ETA ENPRESA GARDENA IZAN DELA BETI

KAPAZITISMOA
INDARRAKIA
MAKXISTA
PREKARIETATEA
MAKXOAK 8
SOLDATA
ARRAKALA

LAN DOMESTIKOA
ZAINTZA
ARRAZAKERIA

MARTXOAK 4 • 12.00
Hitzaldia *"De ser mujer con discapacidad a ejercer de mujer"*
Antolatzailea Goienetxe Fundazioa
UNEDeko aretoan.

MARTXOAK 5 • 18.00
Murala itsastea azokan. Geralekua/
Irizar Jauregiaren aurrean.

MARTXOAK 6 • 11.00
Herriko ikastetxeen ekintza.
"Nire gorputza da" koreografia.
Gune ezberdinetan.

18.00 Bergarako Emakume Artisten eskutik.
"Amalurra" erakusketaren irekiera Aroztegin.
19.30 luntxa.

MARTXOAK 7 • 10.00-12.30
Ikastaroa *Emakumeentzako autobabes ikastaroa.* Agorrosineen.
Antolatzailea Bergarako Shotokan K.E.
19.00
Amak eta Ain 1. taldeen kontzertua.
Seminarixoan.

MARTXOAK 8
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 9 • 12.00
Duintasuna taldearen kontzentrazioa.
Udaletxe aurrean.

MARTXOAK 11 • 20.00
Zinegoak film laburren emanaldia
Seminarixoan.

MARTXOAK 14 • 19.00:
"Yo nunca" antzezlan. Seminarixoan.

MARTXOAK 23 • 18.00
Diagnostiko aurkezpena eta mahaingurua. *"Lanbideetako genero moldeak apurtzen"* Irizar Jauregian.

Gaitz arraroak argitara ekarriz

Bihar, zapatua, Gaixotasun Arraroen Munduko Eguna izango da, horiek ikustarazteko helburua izango duena; Ekain Olalde oñatiarrari duela gutxi diagnostikatu diote bat



Ekain Olalde oñatiarrak Arnold Chiari gaixotasuna dauka. NAGORE GOÑI

Eneko Azurmendi OÑATI

Urtero, otsaileko azken zapatuan ospatu ohi dute Gaixotasun Arraroen Munduko Eguna eta aurten otsailaren 29an izango da, bihar –zapatua–.

Europar Batasunean, 2.000 biztanletik kasu bat baino gutxiagoko gaixotasunak kontsideratzen dira arraroak. Mundu mailan, biztanleen %6-8k dute era honetako gaixotasunen bat, Europar 30 milioi pertsonen eta Espainian 3 milioi –Euskal Herriko daturik ez dago–.

Gaixotasun arraroen bereizgarri nagusia da gaixoei mota guztietako desordenak eta sintomak dituztela eta gaixotasun batetik bestera aldatu egin daitezke desordena eta sintoma horiek, baita gaixotasun berean ere. Halaber, gehienak kronikoak eta degeneratiboak dira.

Sintoma askoko gaixotasun bat

Ekain Olalde oñatiarrak 10 urte ditu eta duela gutxi Arnold Chiari sindromea diagnostikatu diote, gaixotasun arraro moduan kontsideratuta dagoena. "Jaiotzatiko gaixotasun bat da, nerbio sistema zentraleko fosan, garunaren oinarrian dagoena. Zehazki esateko, burmuinean malformazio bat izatea da", azaldu du Lorea Suarezek, amak.

Hezur-muinean eragina dauka gaixotasunak, eta horrek ekar ditzakeen ondorioak nahiko gogorak izan daitezke, Suarezek esanetan. "Horrez gain, beste hainbat arazo dakartzkie: buruko mina, mareoak, koordinazio txarra, depresioak, sentsibilitate falta –hotza eta beroa–, insonnioak eta abar. Askok dira. Egunerokoan, bere bizi-kalitatean eragiten dio gaixotasunak. Egun batean eskuko minarekin esnatzen da, edota herrenka hasten da, eta horrelako beste hainbat

kasu. Egun batean ondo egon daiteke, inongo arazorik gabe, eta hurrengoan aipatu ditudan minak izan ditzake".

Oraindik "asko" dago egiteko

Suarezek arabera, gaixotasun arraroen inguruan "lan asko" dago egiteko oraindik. "Batez ere, gaixoendako eta gurasoendako laguntza psikologikoa edota beste modu batzuetako laguntza. Horrelako kasu baten aurrean babes egon behar da erakundeen partetik, psikologikoa, ekonomikoa, emozionala eta abar. Bakarrik eta galduta sentitzen zara, eta familia osoari eragiten dio, azken batean".

Hala ere, azpimarratu gura izan du Oñatin zerbitzu sozialen partetik laguntza handia eduki dutela. "Babes psikologikoa eduki dugu, eta umeak ere laguntza handia jaso du. Eskolan, esaterako, ebakuntzagatik klaseak galdu izan dituen denbora horretan, laguntza pedagogikoa eduki du egunero, eta oso pozik gaude alde horretatik".

Biharkoa, "emozio handiz"

Gaixotasun Arraroen Munduko Eguna "emozio handiz" biziko dutela onartu du Suarezek. "Gu horren parte gara, eta fase oso txar bat pasatu dugun arren, beti aurrera begiratu behar izaten da, indarrarekin, eta inportantea da senideen babes emozionala izatea".

Egoera berean egon litezkeen pertsonen mezu bat helarazi gura izan die oñatiarrak: "Esango nieke alderdi desberdinetan eman diezazuket informazioak autorregulatzea inportantea dela, eta erregulazio hori ezinbestekoa dela etxeko giroarako. Aurrera begiratu behar da, beti dagoe-lako aurrera egiteko moduren bat", nabarmendu du.

BERRIA
NUEVO

abiatsu 2.0

Autobideetako zein aparkalekuetako hesiak irekitzen ditu!

Bertsio eguneratua eta potentetua!

Gero eta autobide eta aparkaleku gehiagotara!

Egunero deskontu-sistemarekin jarratzen du!

Orain Frantzia osoan ere bai!

GOGOAN IZAN
abiatsu 2.0 BERRIAK
ESKAITZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGLI teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat ateratu du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiatsu gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko abiatsu.bidegli.eus-en eska dezakezu gailu berria.

BIDEGLI

Informazio gehiago: info@bidegli.eus | 943 105 106 | GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil



Bergaran kokatuta dagoen eta Debagoieneko Mankomunitatearen ardura pekoa den Epeleko zabortegia. GOIENA

Azterketa ekonomikoa eta teknikoa Epelen

330.000 metro kubiko hondakin jasotzeko gaitasuna du Epeleko zabortegiak eta hori zabaltzeko erabakia hartuko balitz, bederatzi hilabeteren buruan egongo litzateke martxan; une honetan, beharrezko azterketa tekniko eta ekonomikoak egiten dabilta

Miren Arregi ARRASATE

Zaldibarko zabortegian izandako luiziarren harira, zabortegi horrek hartzen zituen hondakin ez arriskutsuak EAEko beste zabortegi publiko batzuetara bideratzeko eskaera egin du astean Eusko Jaurlaritzak, eta horien artean, Epeleko zabortegia irekitzeko eskaera jaso du Debagoieneko Mankomunitateak. Epeleko za-

bortegia irekitzeko eskaera ez ezik, hark jaso dezakeen hondakin kopurua zehazteko, pasa den eguaztenera arteko epea eman zion Mankomunitateari Eusko Jaurlaritzak. Mankomunitateak entregatu ditu datuok; besteak beste, arriskutsuak ez diren 330.000 metro kubiko hondakin jasotzeko gaitasuna duela azaltzen du txostenak, baita bederatzi

hilabeteko epea beharko litzatekeela zabaltzeko erabakia hartuko balitz, hau da, Epeleko zabortegia martxan ipintzeko.

Mankomunitateko Gobernu Batzordea oraingo martitzenean elkartu da hilean behin egiten duten bilera egiteko. Horren ostean, Eusko Jaurlaritzako ingurumen Sailak egindako baieztapena "gezurtatu" zuen

Debagoieneko Mankomunitateko presidente Maite Antonek: "Mankomunitateak ez du oraingoz prestutasunik azaldu Epele zabortegia berriz ireki eta hondakin industrialak jasotzeko". Josu Erkoreka Jaurlaritzako bozeramaileak uste du, aldiz, ez dela arazorik egongo Zaldibarko zabortegiko hondakinak kudeatzeko. Haren ustez, "Euskadin edo inguruan dauden autonomia erkidegoetako zabortegien ekarpen boluntarioa nahikoa izango da".

Edozein kasutan Epele berriz ireki edo ez Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen batzordeak aztertu beharko du, gero, batzorde orokorrak erabakia har dezan. "Erabaki hori ziurtasunez eta babes osoz hartzeko, beharrezko azterketa tekniko eta ekonomikoak egiten ari dira gure teknikariak", argitu du Antonek. Eta gaineratu duenez, "bi aste barru" egingo den Ingurumen batzordera eramango da bideragarritasun plan hori. "Epele ixteko erabakia zerbaitegatik hartu zen, alegia, ekonomikoki bideragarri ez zelako, beraz, ez da hain erraza orain zabaltzeko erabakia hartzea. Egoera aztertu beharra dago eta horretarako inguruko enpresekin ere harremanetan gaude. Egia dena da, hondakinen arazoari irtenbidea eman behar zaiola".

Aire neurketak egiteko eskaerak

Bestetik, Debagoieneko hainbat herritan, Zaldibarko zabortegitik gertu daudela-eta, airea neurtzeko azterketak egiteko eskaerak egin dira. Esaterako, Zaldibarko zabortegia Bergaratik lerro zuzenean 10 km baino gutxiagora dagoela ikusita, herrian airearen dioxina eta fura-

no mailen neurketak egiteko eskatu dio Udalak Jaurlaritzari. "Martitzenean bidali genuen eskaera eta erantzunik ez dugu", azaldu du Bergarako alkate Gorka Artolak. Bestetik, honako parametroak neurtuko dituen PM2.5, PM10, Ozonoa (O3), Sulfre dioxidoa (SO2), Nitrogeno dioxidoa (NO2) eta Karbono monoxidoa (CO) neurgailu bat ipiniko du herrian Udalak. Datorren astean iritsiko da hori.

Arrasaten ere egin dituzte neurketak egiteko eskaerak. Arrasateko EH Bilduk herriko airearen kalitatea neurtzeko eskatu zion joan den egubakoitzean alkateari. Udal Gobernuak azaldu duenez, eskaera eginda dago, baina, gaur gaurkoz, ez dute Jaurlaritzaren erantzunik.

Eskoriatzan ere, astean egin den osoko bilkuran gaia izan dute hizpide. EH Bilduk airearen kalitatearen gainean neurketarik egiten ari ote diren galdetuta EAJk erantzun du "ezbehar honen aurrean EH Bildu erabilera politikoa" egiten dabilela eta "hartu duen jarrera lotsagarria" iruditzen zaiela.

Elgetari dagokionez, alkateak azaldu du ez dakiela Elgetan neurketarik egiten ari ote diren ala ez eta duen informazioa Jaurlaritzak publiko egindakoa dela, alegia, "airearen kalitatea normaldu omen dela". Atzo, bestetik, *Zaldibar Argitu!* herri ekimenaren aurkezpenean egin zuten Elgetan. Han ziren erabakitzeoak herrian taldea sortu ala ez.

ARRASATEK ETA BERGARAK AIRE NEURKETAK EGITEKO ESKATU DIOTE JAURLARITZARI

Sasoiko eta tokiko produktuak protagonista, jardunaldietan

Debagoiena Gastronomika ekimena egingo da martxoan, eskualdeko gastronomia bultzatzeko

M.A ARRASATE

Otsailaren 29tik martxoaren 31ra egingo da Debagoiena Gastronomika, Debagoieneko Mankomunitateko Turismo sailak antolatuta. Eskaintza askotarikoa da: menu bereziak, pintxo ibil-

bideak, ekitaldiak eta bertako ekoizpen guneak ezagutzeko bisitak. Esaterako, menu berezien eskaintzari dagokionez, bildotsa eta ardi esnekiak izango dira protagonista Debagoieneko 5 jatetxe eskainiko dituzten me-

nuetan: Antzuolako Arin, Arrasateko Hilarion eta Santa Ana, Bergarako Lasa eta Oñatiko Goiko Benta dira horiek. Menuak bihartik, martxoaren 31ra dastatzeko aukera egongo da, jatetxe bakoitzak zehaztutako egunetan.

Bestetik, Antzuolako Arinen, Aretxabaletako Dagdan, Iosun eta Haizean eta Arrasateko Eroskiko Kafetegian bertako produktuekin egindako pintxo bereziak dastatzeko aukera egongo da martxoaren 16tik 22ra. Debagoieneko ekoizpen guneak eza-

gutzeko bisita gidatuak ere egingo dira, besteak beste, Gomisztegi baserrira, Gatz Museora, Amatxo Gaztandegira zein Zearreta baserrira. Martxoaren 21ean, osteran, Karapaixo eguna ospatuko da Arrasaten.

Tokikoa eta sasoikoa bultzatzeko

2007an hasita, 33 jardunaldi gastronomiko antolatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko ekoizle, jatetxe eta abarrekin elkarlanean. Azken urteetan, gainera, bertako pro-

duktuen inguruko jardunaldiak ere antolatu dira: Artzaintza Eguna, Aretxabaletako tomatearen astea... Gastronomia turismoa lantzeko helburuarekin antolatu izan dituzte orain artekoak eta helburu horren baitan kokatu behar da honakoa ere. Debagoieneko Mankomunitateko Turismo sailak, Deba Garaia Landa Garapen elkarte eta Debagoieneko jatetxe, taberna zein ekoizleek garrantzitsu deritzote eskualdeko gastronomia modu bateratu eta erakargarri baten eskaintzea.

Topaketa Sozialistak, gaur eta bihar Bergaran

Gazte Koordinadora Sozialistak antolatuta, "jendarte sozialista" eraiki asmoz elkartuko dira gaur eta bihar. Eskualde ezberdinetako kideekin harremanak garatu eta "komunitate politikoa" sendotu gura dute; egitarau oparoa antolatu dute horretarako

Maialen Santos BERGARA

Gipuzkoako Topaketa Sozialistak lehenbiziko aldiz eramango dituzte aurrera egunotan. Bergaran egingo dituzte; zehazki, gaur eta bihar egun osoan zehar. Iaz sortu zen Gazte Koordinadora Sozialista gazte antolakundeak antolatuta, "jendarte sozialista" baten aldeko apustua egin gura izan dute, taldeko kide Aitor Kortabarriak azaldu moduan.

Hiru dira topaketa honen helburu nagusiak: batetik, gaur egungo testuinguru politikoa aztertu eta "etorkizuneko erronkak" finkatzea. Bestetik, "jendarte politizatu" bat sortzeko jendea elkartzea; eta era horre-



Gipuzkoako Topaketa Sozialisten aurkezpena Bergaran. GKS

tan, eskualde ezberdinetako kideak ezagutu eta elkarren arteko harremanak sortzea.

"Gazte langileei" zuzenduta

Euskal Herriko "gazte langileei" zuzenduta antolatu dute topaketa, baina "interesa" duen edonori luzatu nahi diote parte hartzeko gonbidapena: "Sektore desberdinetako jendea elkartzea gurako genuke eta", azaldu du.

Gaur arratsaldeko 17:30ean ekingo diote topaketari; eta harrera ekitaldia egingo dute. Horren ostean hitzaldia egongo da, eta egunari amaiera emateko afalostean kontzertua egongo da Kartzela Zaharrean. Gaur pasatzeko aukera ere badagoela azaldu du Kortabarriak: "Aranzadi Ikastolako gimnasioan egokituko ditugu lo egiteko tokia eta dutxak. Leku berean otorduak egiteko txartel bat jarriko dute salgai, 10 eurotan. Zapatuan, berriz, goizeko 10etan hasita hitzaldiak egongo dira, eta 19:30ean manifestazioa egingo dute *Gazte Langileok Euskal Estatu Sozialista* lelopean. Kontzertuekin itxiko dute Gipuzkoako lehen Topaketa Sozialista.

Koronabirusaren harira, Osakidetza zenbait gomendio

Orain artean ez da koronabirus kasurik hauteman EAEn, eta beraz, "lasaitasun" mezu bat bidali nahi izan du Osakidetza. Hala, bertatik adierazi dute koronabirusaren inguruan sortu den "alarmismoa" saihestu gura dutela, eta azaldu dute, gainera, kutsatzeko arriskua "oso txikia" dela.

Hala ere, koronabirusetik "babe" besteko" zenbait gomendio jarri ditu Osakidetza herritarren eskura –*www.osakidetza.euskadi.eus* webgunean–. Esaterako, eskuak sarritan garbitzeko aholkua eman dute, baita eztula edota doministiku egitean ahoa estaltzea ere –eta ostean, eskuak garbitzea–. Horretaz gain, sukarraren pertsonetatik gutxienez metro batera egoteko eskatu dute. Ospitaleetan hartzen ari diren babes neurriak buruz galdetuta, diote etorri daitekeen arako "prest" daudela; eta errefortzurako materiala jartzen ari direla, "beste edozein birus dagoenean egiten duten legez".

GEROA BERMATUZ.

Enpresak transmititzeko prozesuari buruzko jardunaldiak.

Martxoak 12 - Enpresaren transmisioa - SAYMA aholkularitza

Martxoak 26 - Enpresen transmisioan gizarte-ekonomiak eskaintzen dituen formulak - ASLE eta ELKARLAN

Informazioa eta izen-ematea:

943 79 30 90 - enpresa@debagoiena.eus



DEBAGOIENENKO MANIKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapena, Turismoa eta
Landa Ingurumeneko Departamentua





ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA

X, Y, Z belaunaldien ondoren

Sarri pentsatu izan dut *baby-boom* garaiko gurasoek gure alaba-semeekiko daukagun belaunaldi arrakala iraganean baino txikiagoa dela; nolabait, *modernoagoak* garela, pentsaera, izaera eta jokaera aurrerakoia goak ditugula, eta abar, baina, tartean, hainbat mikrobelaunaldi sortu dira eta beraien zenbait ezaugarri zeharo aldatu dira!

X belaunaldia etorri zen lehenengo: 1965-80 bitartean jaiotakoena, idealismoa alde batera utzita euren bizitza-filosofia lanean oinarritu dutenak, gailu elektroniko eta botoi analogikotik mundu elektronikorako jauzia egin dutenak, Internetetik eta sare sozialetik urruti.

Segidan heldu zen, baina, Y belaunaldia –1980-95–, *millennials*-ena, natibo digitalena, mundu digitalean guztiz integratuta, garai analogikoan jaiotakoa bada ere. X belaunaldia ez bezala, anbiziaduna, inkonformista, mundu lehiakorrago baten bizi


T BELAUNALDIAK BERE BIZITZAKO ATAL GUZTIAK GIZARATERATZEKO OHITURA DU

dena; prestakuntza handiagoa eskatzen duen mundua. Halere, sarri, nagia, nartzisista eta mizke hazitakoaren etiketa jarri ohi zaio *ni-ni*-aren belaunaldi honi. Z belaunaldiak jarraitu zion aurrekoari –1995-2010–, beso azpian tabletarekin eta smartphonearekin munduratutakoena. Internet du bere DNaren parte, etxean, hezkuntzan eta gizarteratzeko moduan. Guztia bat-batean lortzea beharrezko duena, zeregin anitzekoa, baina arreta mantentzeko gaitasun murriztekoa; independentea, kontsumitzaile exigientea eta gaur egun oraindik existitzen ez diren lanpostuetan lanean arituko dena.

X, Y, Z... Alfabetoko letrak agortuta, Alpha belaunaldia deitzea egokitu zaio 2010etik aurrera jaiotakoenari, T belaunaldia, belaunaldi *taktik*-a; gailu taktilen garaia, Internet sozial eta kolaboratiboarena; konexioa une oro eta nonahi behar duena; bere bizitzako atal guztiak gizarteratzeko ohitura duen belaunaldia, bai eta sarean, modu kolaboratiboan lan egitekoa. Eta hezitzaile eta hezkuntza sistema tradizionalentzat erronka handia bihurtzen ari dena... ezin baititugu XXI. mendeko haurrak XIX. mendeko ereduakin hezi, ezta? Baina hori hurrengo zutaberako utzi behar!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Jokotik errenta

JOSEBA BARANDIARAN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Esaeraren kontrara, bada jokoa errenta bihurtu duenik. Pilota eta herri kirolen baitan ezagutzen genuena, Tolosako Cantabrigon eta, apustu-etxe, areto eta listofono bidez eskaintzen zaigu orain. Gainetik, kirol taldeen babesletzan buru jarri dira enpresa horiek. Eskoletatik eta auzo txiroetatik gertuago, beste ezer baino. Gorriak ikusten dituztenei, gorri edo urdin eskainiz. Paradisu fiskaletatik (britaniar burmuinez) jarduten direnekin lehiari, bide batez esanda.

Jaun boteretsua den diru horri, kontra altxa zaizkio hainbat ahots.

Ludopatía arriskua, txiroenei eta gazteenei zuzendua.

Eta arrazoirik ez zaie falta. Heroinarekin alderatu duenik ere bada, *Argia*-ren *Larrun* lekuko. Baina gehiegizko deabrutzea ere ikus liteke hor. Batetik, estatuak berak monopolioa ezarria du loteria bezalako ausazko jokoetan; hagitx errentagarria prefosta. Bestetik, ludopatziaz eta apustu etxeez esaten den (ia) dena alkoholaz eta tabernez (edo bestelako salmenta puntuez) ere esan liteke. Droga mota hori gurean

barneratuagoa, onartuagoa dugu, ordea. Berdin arropa erosketa konpultsiboak.

Alde nabarmenetako bat heroina edota alkoholak eragiten duten kalte fisikoa da. Jokoa kasuan askoz ikusgaitzagoa dena. Buru gaixotasunetik gertuago dagoelako.

Eta ez duelako anorexiak edo bulimiak izan dezaketen ageriko eraginik. Baina buruko gaitzak gure gizartearen muinean ditugu. Menpekotasun digital hazkorra dugu.

Listofonoa eta uatxapa bera lekuko.

Eskerrak *Egunean behin* egunean behin bakarrik joka daitekeen!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailketako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Hazkunde handia izan du Goienagusik azken urteetan"

MATILDE SAINZ GOIENAGUSI ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Amaia Aranegi ARRASATE
Goienagusi elkarte 2011. urtean sortu zen eta Debagoieneko 55 urtetik gorako pertsonek osatzen dute. Elkartearen eginkizuna da arlo ezberdinetan ezagutza handitzea eta aisialdiaz gozatzeko besteak beste. **Zenbat pertsona osatzen duzue elkartea?**

Momentu honetan, 185 bazkide gara, eta, hurrengo ikasturtera begira egiten ari garen kanpainan, martxoaren 2an bukatuko dena, hogeitaz lagun batu dira. Azken urteetan, hazkunde handia izan du elkartea.

Zer-nolako ekintzak antolatzen dituzue?

Astean bi ekintza antolatzen ditugu; hitzaldiak edo bisitak izan daitezke. Hitzaldiak astelehenero eta asteazkeneko izaten ditugu, 10:00etatik 12:15era, Bergarako Seminarioan edo Arrasateko Kulturaren. Gai askotarikoak izaten dira: teknologia berriak, artea, filosofia...



Matilde Sainz, Goienagusi elkartearen lehendakaria. MATILDE SAINZ

Bailarako herrietara bisitak ere antolatzen ditugu. Izan ere, elkartearen beste eginkizun bat gure bailara ezagutzea da.

Nola dago osatuta elkartea eta zer baliabide duzue?

Elkartea sei lagunek osatzen dugun zuzendaritza batzordea dauka eta bertan erabakitzen dira antolatuko diren ekintzak. 100 euroko diru sarrerara jartzen dugu eta Arrasateko eta Bergarako

udalek dirulaguntzak ematen dizkigute. Horrez gain, Arrasateko Udalak materiala gordetzeko eta bilerak egiteko bulego bat uzten digu.

Unibertsitateekin kolaboratzen duzue...

Bai; unibertsitateek parte hartzen dute eskaintzen ditugun hitzaldietan: Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, UNED... Gainera, beste erakunde batzuekin ere kontaktatzen dugu: Euskaltzaindia, idazleen elkartea...

Zeintzuk dira hurrengo hiruhilekora begira antolatu dituzuen ekintzak?

Basque Culinary Center-era egingo dugu bisita, eta afaria ere antolatu dugu. Gainera, zineari buruzko hiru saio izango ditugu eta EITBko Mikel Reparaz etorriko da *Hauteskunde urtea Estatu Batuetan* hitzaldia ematera, besteak beste.

Nola definituko zenuke elkartea?

Elkartea laguntza eskaintzen du erretiraturak daudenek gizartearen era indibiduala kolektiboan aktibo jarraitzeko. Elkarte bezala, 55 urtetik gorako pertsonek eboluzionatzen jarraitzea nahi dugu, eta, horretarako, babesa eta beharrezkoak diren erremintak eskaintzen ditugu.

HAU BE BADOGU!

Koronabirusa da hizketa gai bakarra



Koronabirusak sortu duen kezka sekulakoa da:

@mikelayestaran:

"Koronabirusa dela eta Meka itxi dute. Hau dagoeneko Netflixeko telesail baten itxura hartzen hasi da #coronavirus".

@argia: "Austriako hotel bat isolatu dute koronabirus kasu positibo batengatik".

@AnaGalarraga1:

"Koronabirusa gizakietara pangolin bitartez iritsi izana baztertu dute, pangolin gaixoen azterketa genetikoak egin ondoren".

Koronabirusaren gainera txantxak

Twitterren hainbat eta hainbat erabiltzailek, umorea erabili dute koronabirusak sortutako alarmaren aurrean:

@coronavireus: "Zer nahiago duzue, koronabirus ona edo euskalduna?".

@jozulín: "Euskaldunok lortu dugu berriro!! Bagaude koronabirus eta koroabirus-en aldekoak! Eta mesedez ez hartu serio txio hau...".

@nahitanahigabe: "Trolleo maila erabat gora heldu dela badakizu @CoronavirEUS sortu dutenean".

Aratusteak 'trending topic' izan dira

Azken egunetan kaleak moztuz bete dira, eta sare sozialetan ere, hizpide izan dira Aratusteak:

@Xabi_Goro: "Arrasateko Herriko Plaza San Fermin giro peto-petoan murgilduta, une honetan".

@Jaizkibel6: "Aupa Tolosako Inauteriak! Jaizkibel konpainia tolosarra!".

@antixenaonati: "Beste behin be zapatuan Oñatiko kaletara irten ginen auzokoekin batera Oñatiko Inauteriak ospaketara!".

ITURRI ONETIK

'Ttap' berriua martxoaren 20tik aurrera

Martxoaren 20an diseinuz eta edukiz berriua etorriko da *Ttap* aldizkari digital multimedia. Edizio bateratua izango du –hiru edizio izan ditu, Gipuzkoakoa, Nafarroakoa eta Bizkaikoa–, diseinu berriua izango du, eduki gehiago, kolaboratzaile berriak eta *Gorabeherak* websaila estreinatuko du –hamabostean behin argitaratuko da–. *Ttap* astekariak 2018an ikusi zuen argia. Harrezkero, 66 zenbaki argitaratu ditu, azkena gaur. Tabletetan eta telefonoetan kontsumitzeko produktua da.

ALBISTE IZAN ZEN

2002-02-29

Butano-kamioia aldapaz behera, gidaririk barik

Aramaioko Ibargoin 15. zenbakiaren inguruan butanoa banatzen ari zela, butano-kamioia martxan jarri zen eta aldapan beherako bidea hartu zuen. Zenbait herritarrek kamioiaren atzetik jo zuen zerbait egin nahian, baina ezin izan zuten ezer egin eta kamioiak beheranzko bidea hartu zuen. Bidean aparkatuta zeuden bi auto kolpatu zituen eta bat berarekin eroan..., hormaren kontra jo eta geratu zen arte. Ortuen gainean geratu zen.



GOIENA

Eskerrik asko, Arrasate!

ITZIAR GONZALEZ, RAKEL NIETO,
LOURDES ORUNA, FELI BESGA,
AITZIBER IRIARTE ETA ITSASO NUIN

RETINOSIS GIPUZKOA BEGISARE
ARRASATE

Otsailaren 17tik 22ra, Retinosis Gipuzkoa Begisarek *Ikusmen murriztua bizi ezazu Arrasaten* erakusketa antolatu du Kulturateko klaustroan. Aldi berean, zenbait hitzaldi eskaini ditugu, Arrasateko sektore ezberdinei zuzenduta –Udaleko langileei, dendariei, erretiratuei, ikasleei...–.

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkizuegu ekintza hauetara gerturatu zareten guztioi.

Guretzat oso garrantzitsua izan da Arrasateko herritarrek kontuan hartzen gaituztela ikustea.

Erakusketa honen helburua izan da ikusmen murriztua duten herritarren bizi-kalitatea hobetzea eta euren bizi-baldintzak ezagutaraztea, eta aste osoan zehar bildutako jendetzak aise gainditu ditu aurreikusitako espektatibak; hortaz, ilusioz beterik jarraituko dugu lanean.

Esker bereziak Udalari eta Ibai-arteri, euren laguntzagatik; komunikabideei, gure ekintzak areagotzeagatik;

Lurraldebusi eta *El diario vasco*-ri, gure publizitatea eramateagatik; eta, nola ez, Kulturateko langileei, beti prest edozein ezusteko konpontzeko.

Guztioi mila esker.

Txarretik ikasi beharra...

ANDONI LOITI ETA PITER ENCINAS

ARRASATEKO ZERO ZABOR ETA
EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEEN
IZENEAN
ARRASATE

Orain dela urte batzuk, Gipuzkoan, errauskailua egitea ekiditeko ahaleginean, etxeko hondakinen kudeaketan pauso garrantzitsuak eman ziren. Saltsa handia egon bazen ere, lanketa haren ondorioz Debagoiena %75-80 bitarteko bilketa selektiboa egitera heldu zen, eta ostean, Gipuzkoako beste eskualde batzuetan ere pausoak ematen joan ziren, batez besteko %66ko bilketa selektiboa egitea ekarri duena.

Gurean gauzak zerbait hobetu badira ere, Bizkaian, adibidez, nabarmen atzetik dabilta: %45,5era justuan heltzen dira etxeko hondakinen bilketa selektiboari dagokionez.

Dena den, argi dago, eta, batez ere, industria hondakinen kudeaketaren inguruan, ikasteko eta lan egiteko asko dugula.

Ez da batere onargarria hondakinen kudeaketa esku pribatuen eskuetan jartzea; are gutxiago, holako gaiekin negozioa egitea.

Zaldibarko zabortegearen kudeaketa eramaten duen enpresak eta administrazioak berak esan digute zabortegean jasotzen aritu diren material guztiak onartutakoak izan direla.

Ikusi dugu zer dakarren denetariko materialak nahasteak.

Fermentazioa, gas isurketa, sua, dioxina eta furano tasa altuak airera... eta inguruko herritarren osasuna arriskuan jartzea.

Non egon da administrazioa hau guztia kontrolatzeko eta ekiditeko?

Etxean eta industrietan erabiltzen diren materialek birziklagarriak izan behar dute. Eta ez badira, gure agintariak merkatutik ateratzeko pausoak eman behar dituzte.

Bestalde, industrietan, nahitaez, erabiltzen diren material arriskutsuei tratamendu partikularra eman behar zaie eta

beharrezkoa dena exijitu behar dio administrazioak industriari, dena kutsatu ez dezagun.

Orokorrean, materialak zabor bihurtzea onartezina da eta administrazioak ezin du kaltea eragiteko erraztasunik eman, ezin ditu kalte horiek eragiteko bitartekoak jarri, herritarren osasuna eta ingurumena babestu behar baititu.

Zaldibarren gertatutakoak erakutsi digu ez gabiltzala batere ondo eta denon arteko konpromisoa eskatzen duela, alderdikerietatik at, bide egokiena aurkitu dezagun.

Bitartean, zorte guztia opa dizuegu Zaldibarren egun hauetan lanean zaudeten guztioi eta besarkada handi bat bertan desagertutako bi langileen familiei!

Eskerrik asko, Roke!

BEÑARDO KORTABARRIA

ANTZUOLAKO UDALAREN IZENEAN
ANTZUOLA

Adierazpen honen bidez, Antzuolako Udalak bat egin nahi du Roke Iñarra Lizarralderen heriotzak herrian eta, batez ere, bere familian eragin duen saminarekin.

Halaber, Roke Iñarra Lizarraldek herriaren alde alkate moduan egindako lana goraipatu nahi du Antzuolako Udalak. Roke zoritxarreko istripu batek bihurtu zuen alkate, Iñaki Leteren tokia hartuz, 1992ko abendutik 1995eko maiatzera arte.

Egoera zail hartan, alkatetzak eskatzen duen lana duintasun handiz bete zuen Rokek. Besteak beste, intsumisioaren aurkako borrokan ausart jokatu zuen, eta Espainiako Armadari ukatu egin zion ordura arte soldadutzara derrigorrez joan behar izaten zuten herriko semeen zerrenda. Epaitu egin zuten, eta, ondorioz, berririo kargu publiko izateko debekua jaso zuen. Jarrera hura, epaiketa hura, eta beste alkate batzuei egindakoak mugarri bihurtu ziren intsumisioaren mugimenduarentzat.

Herriko lanak aurrera ateratzeko ahaleginean ere zintzo jardun zuen. Hori dela eta, Antzuolako Udaleko osoko bilkurak doluminak adierazi nahi dizkio Roke Iñarraren familiari, eta herriko alkate moduan egindako lana bihotzez eskertu!

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali ***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

300 kimu, Larragaingo abaritzak galdu ez dadin

Gipuzkoan, orain arte, Udalatx magalean aurkitu izan dute ezkurak ematen duen zuhaitz hau. Bertan hartutako ezkur batzuk Urnietako Arizmendi mintegira eraman zituzten, eta handik lortutako 300 kimu Bedoñako larre baten landatu dituzte asteon

Xabi Gorostidi ARRASATE

Duela lau urte eraman zituzten ezkurak Aldundiaren jabetza-koan den Arizmendi mintegira, eta aste honetan amaitu dituzte landaketa lanak. Bedoña auzoko Uringain belardian landatu dituzte, Sologaito baserritik gora; 1.700 metro koadro ditu eta udal jabetzakoa 1966az geroztik. "Ez dakigu nola moldatuko diren kimuak lursail berri honetara, baina uste dugu ondo egokituko direla. Bertako espezie bat da, bioaniztasuna ahalbidetuko duena, eta oso pozik gaude eskuhartze honekin", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Abaritzaren propietateak

Udaleko Ingurumen teknikari Pello Garaik abaritzak berezko dituen propietate batzuk zerrendatu ditu. "Gero eta gutxiago erabiltzen ditugu baliabide naturalak osasunarekin lotutako gaitzak sendatzeko. Zentzu horretan, abaritzak erabilpen bat

baino gehiago eskaintzen ditu. Adibidez, beherakoa geratzeko erabili izan da betidanik. Abaritzaren azalak taninoak ditu, eta horrek ahalbidetzen du beherakoa gelditzea. Gipuzkoan Udalatx inguruan dago soilik zuhaitz hau, eta erabilera hori ia desagertuta dago. Baina Araban eta Nafarroan ugaria da zuhaitz honen presentzia, eta medikuntza naturalerako erabiltzen jarraitzen dute". Narrua ontzeko eta gorri biziko tindagaiak egiteko ere erabiltzen da abaritzak.

Aipatutako Bedoñako Uringain eremuan makil-ilara bat jarri dute, abaritzarekin egindako heskai bat lortzeko. Lehen lursailak heskaiekin seto-banantzen ziren, eta zuhaitz mota honekin heskaiak egin daitezkeen ikusi nahi dute. "Aplikazio posible izan daiteke abaritzarekin egindako heskaiak Arrasate erdiguneko parkeetan erabiltzea, barandak erabili beharrean" azaldu du Garaik.



Udal langile bat, abaritz kimua landatzen. XABI GOROSTIDI



MONIKA MONTERO

Sardina erretze jendetsua

Aratuste-martitzenak amaiera polita izan zuen. Josu Arkauzek egindako sei metroko sardinak ikusmina eragin zuen eta arrasatearrek ez zuten hutsik egin. Hotza egin arren, agur berotsua eman zioten Aratusteei; Herriko Plazan aspaldian ikusi ez den jendetza batu zen sardina erretzea bertatik bertara ikusteko.

Otsailak

29

Larunbata

GUZTIAREN

BEZa*

oparitzen dizugu

EHUN-GAIAK

ELEKTRONIKA

PARAFARMAZIA

ETXKO HOZTIDURA

EREMADURA

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

40€-tik gorako erosketa eginez gero EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan eta 90€-tik gorakoa EROSKI Hipmerkatuetan, Euskadin, Nafarroan, Kantabrian, Erioxan eta Aragoian.

* Kutan besterik EROSKI club-kartak erabili, egindako erosketaren BEZa dagokion zenbakia sartuta dugu. Beherakoa izan daiteke EROSKI club-kartaren BEZa dagokion zenbakia sartuta. Zinorak: 200 euro. Hurrengo EROSKI hipmerkatuetan, Supermerkatuetan eta EROSKI online Supermerkatuetan zango eta balakoa. Promozioa ez da baimen hartuko: leku-barruak, esperientzia-pareak, elektronikaren kargak, EROSKI bezeroak (parrandaketa-bezeroak), enbaxak, digitala baimenaren barruan eta EROSKI-promozioen bidez (gratu, bilaketa eta parkeak) erabiltu daitezkeen produktuak, kontsumitu gabeko baldintza eta enka salaketa.

Baita supermerkatu-erosketetan ere.

EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30



Erdiko kale, eguen goizean. XABI GOROSTIDI

EH Bildu, PERI plan "malguago" baten alde

Ia 20 urte dituen Arrasateko Herrigune Historikoa Eta Errabalak Erabat Birgaitzeko Plan bereziak Alde Zaharraren izaera historikoa mantentzea lortu duela aitortzen dute, baina araudia berrikustea eta hura interpretatzeko "malgutasun" handiagoa nahi dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Alde Zaharreko Plan Bereziak balio izan du izaera historikoa mantentzeko, baina berrikuspen bat behar du. Garaia aldatu egin dira, eta Alde Zaharreko merkataritza indartzea beharrezkotzat jotzen dugunontzat, malgutasun handiagoa behar du araudiak" azaldu du EH Bilduko Aitor Zubiagak. Malgutasunarekin lotuta, adibide hauek aipatu ditu:

"Itxita dagoen 40 metro koadroko lokal komertzial batean elbarrituentzako komun bat jarzea eskatzea desproporzionatua iruditzen zaigu. Edota toloak jartzeko baimenik ez ematea. Berebiziko esanahi historikorik ez duten eraikinetan, zergatik ez diegu merkatariei toloa jarreko aukera ematen? Udalaren partez erraztasunak eman behar zaizkie merkatariei, Alde Zaharra bailaran erreferente izatea nahi badugu, behintzat". Komertzioen eskariekin jarraituz, zuntz optikoa hedatzea ere defendatzen

dute. "Herrigune historikoan dauden komertzioek ez dute zuntz optikora sarbiderik, baina udallexean, ordea, zuntz optikoa dago. Telekomunikazio enpresek trabak jartzen badituzte, Udalak esfortzu bat egin beharko luke zerbitzu hori izan dezaten". Lokal hutsak zabaltzen dituzten ekintzaileei hirigintza eskakizunak betetzeko luzamendu bat ematea ere nahi dute.

Alde Zaharrean etxebizitzak egitera bideratuta dauden eremu batzuei bestelako izaera bat ematea "beharrezkoa" da EH Bilduren ustez. "Alai Zinema zegoen eraikinak etxebizitzak egiteko kalifikazioa du. Baina Alde Zaharra biziberritzeko ekipamendurako bideratu behar-

BESTEAK BESTE, ARNASGUNEAK MANTENTZEA ETA EKIPAMENDU GEHIAGO JARTZEA NAHI DUTE

ko litzateke: kafe antzoki bat, Emakume Txokoa, Udal artxiboa... Jabetza pribatuko eraikina da, baina hura udalekotzea defendatzen dugu. Hutsik dauden etxebizitzak kanon bat jarritz lortu genezake, adibidez, hura erosteko finantziarioa. Arotz Plazan ere antzerakoa gertatzen da. Bertan dauden berdeguneek etxebizitzak egiteko kalifikazioa dute, baina arnasmune horiek oinezkoentzako gune lasai bezala mantentzea beharrezkoa ikusten dugu".

Lan-saioak herritarrek

Urtarrilean bi lan saio ireki deitu zituzten, Alde Zaharreko bizilagunekin eta merkatariekin PERI planaren berrazterketari buruz hitz egiteko. "30 lagunetik gora hartu zuten parte. Saio bereziki jendetsuak ez izan arren, oso emankorrak izan dira, eta parte hartzaileak oso eskertuta irten dira bertatik. Gu oso pozik gaude, euren lehentasunak gertutik ezagutu ditugulako".



Araba Etorbidea, Arrasate Pasealekutik ikusita. XABI GOROSTIDI

Araba Etorbideko lan guztiak, martxoaren 31rako amaituta

Bidegorria, San Josepera joateko zubia, eta bi metroko espaloiak ordurako erabilgarri egotea aurreikusten dute

X.G. ARRASATE

San Andres auzoko lanak amaitzeaz daude. Une honetan gainazaleko akaberak eta lorezaintzari lotutako lanak egiten ari dira, eta San Josepera joateko zubia bezala, martxoaren 31 bukatzea da Udal Gobernuaren aurreikuspena. Egin diren lan aipagarrien artean, hauek daude: autoentzako erreiak hiru metrora murriztea, bidegorria jartzea, espaloiak bi metroko zabalerara egokitzea, egungo eta etorkizuneko urbanizazioak uztartzeko biribilgune bat egitea, eta euri uren eta ur beltzen sa-

neamendu sarea berritzea, besteak beste. Lanak hasterakoan zeresana eman zuten bertan egindako zuhaitz mozketek. Gai horrekin lotuta, esatea, 60 zuhaitz landatuko dituztela. Udaleko teknikariek esandakoaren arabera, jada hazita dauden zuhaitzak izango dira, baina "ez handiegia", "bestela ezin dituztelako sustraiak ondo finkatu".

San Josepera joateko zubia

Zubi hau ere martxoaren 31rako egongo da erabilgarri. Ez behar baten eraginez itxita egon da azaroaz geroztik.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Euli madarikatu horiek

Azterketa garaietan, liburua eta apunteak aurrean ditugula beti dago euli bat. Bere hegaldiak liluratzen gaitu, airean nola mantentzen den begiratzen dugu, hegan egitearekin amestu... Zomorro honi begira erlojuaren orratzek abiadura azkartu dutela dirudi, eta bat-batean oroitzen dugu zertan ari ginen arreta galdu aurretik. Ordua begiratu eta jada jarraitzeko berandu dela ohartzen gara; beranduegi batzuetan.

Nago berdina gertatzen zaigula gizarte moduan. Otsailaren 6an Zaldibarko zaborteziaren lur jaustitik bi langilek diraute zaborpean, amiantoz inguratuta. Gaur gaurkoz (otsailak 25) 15 langile akabatuta dituzte. Honi begira geundela, baina, Iturgaizen akordeoi soinuak estali dizkigu belarriak, Urkulluren hauteskunde deialdiak ahaztarazi dizkigu egindako astakeria guztiak, koronabirusak eskuak burura eramanez dizkigu, eta abar luze bat. Bitartean kapitalak sistematikoki dirau bizitzak deusezten, denok aire pozoituz itotzen... Fokua bertara zuzentzen dugunerako berandu izango da, beranduegi agian. Eta beti euliei botako diegu errua, euli madarikatu horiei.

Martxoak 8aren bueltan, bederatzi hitzordu

Hitzordu sorta zabala lotu dute Ekin Emakumeak, IMME, Mugimendu Feminista, Udala eta Emakume Txokoa eragileek elkarlanean. Sagrario Lopezen olerki bilduma edo emakume baserritarrei buruzko ikus-entzunezkoak aurkeztuko dituzte, besteak beste

Xabi Gorostidi ARRASATE

Asteazkenean egin zuten egitarauaren aurkezpena, Yoana Sanchez Berdintasun zinegotziak eta Maite Barreña Berdintasun teknikariak. Lehenik eta behin, esku orria eta kartela ilustratzen dituen diseinuari buruzko xehetasunak eman zituzten. June Baonza durangarrak egin du eta *Bizitzak erdigunean* leloa "bikain irudikatzen" duela adierazi zuten. XXIII. kartel lehiaketako irabazle izan da Baonza. Guztira hamabi diseinu jaso dituzte, eta horiekin erakusketa egingo dute Emakume Txokoa, martxoaren 4tik 18ra. Martxoaren 3an gaurko eta lehengo emakume baserritarren testigantzez osatutako *Erroa eta Geroa* dokumentala proiektatuko dute. Ikus-entzunezkoan parte hartu duten protagonistetako bik aurkeztuko dute filma –Ane Gorosabel arrasatearra eta Maribi Ugarte buru amorotarra– eta ostean solasaldia egingo dute. Hitzordua: 19:00etan, Kultureteko Areto Nagusian. Martxoaren 4an, ordea, Sagra Lopez feministaren olerkiak batzen dituen Sagraren poemak liburua aurkeztuko dute, haren heriotzaren lehen urteurrenarekin bat eginez. Hau ere 19:00etan izango da, Kultureteko Areto



Yoana Sanchez eta Maite Barreña, Kultureteko egindako aurkezpenean. XABI GOROSTIDI

Nagusian. Martxoaren 7an, bi hitzordu: emakume artisau eta baserritarren azoka Seber Altube Plazan –10:00etatik 14:00etara– eta *Erradikalak Ginen* ikuskizuna Kultureteko Areto Nagusian –19:00etan–.

Martxoaren 8a, eta ostekoak

Emakumearen Nazioarteko Egunen manifestazioa egingo dute, 12:30ean, Seber Altube Plazatik abiatuta. 14:30ean bazkari feministikoa egingo dute, eta eguraldiaren arabera bi kokaleku aurrekusi dituzte: onarekin. Seber

Altube Plazan; txarrarekin, Azoka Plazan. Ostean, mikro-irakurketa egingo da.

Martxoaren 8aren ostean, hiru ekintza lotu dituzte: Samara Velte idazleak *Nik sinisten dizut* liburua aurkeztuko du martxoaren 17an –Kultureteko 18:30ean–; *Argi-izpiak txarrantzen artean*. 14 Begirada kartzela feministikotik birpentsatzeko liburua aurkeztuko du martxoaren 18an, eta amaitzeko, Zinegoak Jaialdiaren hedapena, martxoaren 26an; bertan, jaialdiko labor onenak proiektatuko dituzte.

Mendizaletasuna eta euskara lotzen dituen proiektzioa, egunean

Besaide Mendizale Elkarateak eta AEDk elkarlanean, *Oxigenoa euskarari 6000 metroan ere* dokumentala eskainiko dute martxoaren 5ean, 18:30ean, Kultureteko Areto Nagusian. Felipe Uriarte mendigoizaleak gidatuta, Euskal Herriko hamabi gazteek Himalayara egindako espedizioa eta truke kulturala erakusten ditu dokumentalak.

Liztor beltzaren 2.413 erregina harrapatu ziren iazko kanpaina

2020ko kanpaina martxoaren 1ean hasiko da, iazkoaren "balorazio baikorra" egin dute Udaletik. Iazko partehartzea eskertu eta aurtengo kanpaina ere laguntzera animatu nahi izan dituzte herritarrek. Hauek dira harremanetarako bideak: BAZ (943 25 20 00), Udaltzaingoa (943 25 20 10) eta Udal teknikaria (628 11 56 73).

Josu Arkauzen eta Unai Paroten egoera salatzekeo egitaraua

Sare plataformak prentsa agerrialdia egingo du martitzenean, Josu Arkauz eta Unai Parot arrasatearren egoera salatzekeo. Kultureteko Loramendi gelan izango da 19:30ean, eta euren egoera salatzekeo prestatutako ekintzen berri emango dute. "Bi preso politikoen egoera salatzekeo hilabete bateko egitaraua jarriko dugu martxan".

Ereindajan-en pintxo-pote girotuak bueltan datoz berri

Martitzenean, martxoak 3, egingo dute aldi honetako lehena. 18:00etatik 20:00etara izango da, Araba Etorbideko lokalean, eta Kabuena baserriko hanburgesatxoak dastatuko dituzte, Euzki okindegiatako ogitxoekin lagunduta. Gaur egun 400 partaidetik gora sustengantzen dute Ereindajan, eta laster bazkietza kanpaina jarriko dute martxan.

OHARRAK

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

'Ttak!' taldekoek jertseak jarri dituzte salgai

AEDren gazte taldeak 10 urte betetzen ditu aurtur, eta urteurrena ospatzeko Joana Manzisidorrek diseinatutako kirol-jertseak egingo dituzte. Eskaripean egingo dituztenez, martxoaren 1a baino lehen eskatu beharko dira jertseak ttakaed@gmail.com helbidean; prezioa, 15 euro.

Ludoteka ibiltariaren azken parada Musakolan

11:00etan egin dute hitzordua, auzoko Gaztetxoko kanpoan. Hurrengo astetik aurrera San Andresera lekualdatuko dira.

Zeure gorputza delako eta zaindu egin nahi duzulako

Gorputz tratamenduak, drainatze-masajeak, solariuma, terapia mediko-estetikoak, mesoterapia...

Guk lagunduko dizugu, dei egiguzu!

AMAGARA
Estetika Zentroa

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

"Umeen arazoak helduon berdin-berdinak dira"

IÑAKI ZIARRUSTA ATX TEATROA TALDEKO ORDEZKARIA

'Kaskarot' antzezlanak Aner gaztearen bizipenak ekarriko ditu; gizarte distopiko batean dauden debekuen aurrean bere adierazpen askatasuna lehenetsiko du

Xabier Urzelai / A. Irratia ARRASATE Bihar, zapatua, ATX Teatroa taldeak *Kaskarot* izeneko familia ikuskizuna eroango du Amaia antzokira (17:00etan; sarrera, 5 euro). Lanak hainbat gai azaleratuko ditu: ezberdina izatearen beldurra, lehenengo harremanen lotsak, nola ahazten dugun gure esentzia... Eta hori guztia Aner izeneko gaztetxoaren begietatik biziko du ikusleak, Anerren eta haren alter egoa den Kaskaroten eskutik.

Arrasatera behin baino gehiagotan etorri zarete; gustuko duzue Amaia antzokia?

Bai, baina ez pentsa, areto handia da eta horrek errespetua ere ematen du, gu, akaso, leku txikiagoetara ohituta gaudelako. Arrasaten zarzuelak eta halakoak egiten dituzuenengan seguru bete egingo dela, baina antzerki emanaldi batekin... Ea jendea animatzen den.

Diozue bizitzaren ohiko korrontetarik aldentzea dela antzezlan honen helburua. Haurrendako bai, baina helduendako ere balioko luke horrek, seguru.

Gertatzen dena da, askotan, umeei zuzendutako lanak egiten ditugunean umekeriak egiten ditugula. Gauza arinak, koloretuak, festa giroa... Eta oso gutxitan ekartzen ditugu umeen arazoak taula gainera. Esango nuke umeen arazoak eta nagusienak berdin-berdinak direla. 6 urte ditugunetik 80 urte egiten ditugunera arte, arazo berberak ditugu, baina, logikoki, bakoitza bere mailan. Eta guk umeek dituzten arazoetako batean oinarrituta antzezlanak sortu gura izan dugu. Ez ditugu arazo guztiak ekarriko, baina bati heldu diogu.

Joan gaitezen mamira. Aner da antzezlaneko protagonista. Dantzatzea izugarri gustatzen zaion gaztetxo bat, baina, hain zuzen, dantza egitea debekatuta dagoen gizarte batean bizi dena.



Iñaki Ziarrusta, antzezlanaren momentu batean. AINHOA RESANO

"ANERREK IKASI KO DU POSITIBOTASUNA KUDEATZEN, ETA NEGATIBOTASUNA ERE BEHARREZKOA DELA"

Hori da. Azken batean, egoera distopiko bat sortu dugu, erreala ez dena, baina errealitate batera egokitzen ez den gaztetxo baten kasua erakusten duena. Anerrek ezin du gehien maite duena egin, eta lekuz kanpo sentitzen da. Hori da abiapuntua. **Eta Aner Kaskarot bihurtzen denean da zoriontsu.**

Bai. Hor egin duguna da marrazki bizidunetan sarritan erabiltzen den gauza bat. Hau da, pertsona bati alde batean deabrua azaltzen zaionean, eta bestean aingerutxoa. Eta biek egiten diote berba, batek gauza onak esateko eta besteak txarrak. Hori da pertsona orok dugun dikotomia bat, ongiaren eta gaizkiaren artean, positibo ala negatibo izatearen artean... Hor agertuko dira bi pertsonaia: Kaskarot pertsonaia positiboa da, alaia, Anerri arazoak kon-

pontzen lagunduko diona, eta bestea da Ilunsaku. Ilunsaku da iluna, negatiboa, *rollo* txarra ematen duena... Krisi momentu batean biak azalduko zaizkio Anerri, eta ikusiko dugu krisialdi hori zelan gainditzen duten hirurek.

Desberdin izatearen onurak azpimarratzen dituzue.

Izan ere, zer da desberdina izatea? Anerrek bere burua desberdin sentitzen du, eta horrek joera ezkor batera eramaten du. Hor ikasiko du kudeatzen bere positibotasuna, baina baita bere negatibotasuna. Izan ere, gizaki orok bi sentimendu horiek behar ditu; hau da, ezin dugu beti positibo izan. Ulertu behar dugu bi sentimenduak kudeatzen ikasi behar dugula, biak izan behar ditugula.

Iparraldeko eta hegoaldeko aktoreak batuko zarete antzezlanean.

Bai, eta bada gure marka, neurri handian. Guk antzerkia euskaraz egiten dugu, ez dugu beste hizkuntzarik erabiltzen, eta gure esparrua asko mugatuko genuke Hego Euskal Herriko jendearekin bakarrik lan egingo bagenuke. Zazpi lurraldeak aintzat hartzen ditugu.

Abian da Arrasate literatur lehiaketaren 33. edizioa

AEDko lagunek gertu dute Arrasate literatur lehiaketaren 33. edizioa. Hala, adinaren arabera, idazleek hiru lehiaketa izango dituzte aukeran: LH5 eta DBH2 mailen artean dabilen gazteek narrazioa, ilustrazioa eta bertso-paperak. Eta DBH3 eta 2. batxilergo artean dabilen ikasleek, berriz, mikroipuina, poesia eta komikia.

Lehiaketa honetan, Debagoienan bizi edota ikasten duten gazteek parte har dezakete, LHko 5. mailatik batxilergoko 2. mailara arte. Lanak euskaraz idatzi behar dira, eta inoiz saritu edota argitaratu gabekoak izan behar dute. Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez ditzake, eta 2020ko apirilaren 24an bukatuko da horiek aurkezteko epea. Finalisten zerrenda maiatzaren 29an argitaratuko dute. Informazio gehiago: Arrasateliteraturlehiaketak.wordpress.com.

Arrasate Musikaleko Bandak kontzertua eskainiko du etzi

Domekan, martxoak 1, egingo du Arrasate Musikaleko Bandak Aratusteetako kontzertua (12:30, Amaia antzokia).

Kontzertu horretara begira, Bandako kideei urtero gai bat aukeratzen dute, eta aurtengoa *Danborrada* izango da. "Hala, Arrasate eta inguruko danborraden soinuak entzungo dira, danbor, barrilero eta guzti. Kon-

tzertuak balioko du, neurri handian, danborradaren bueltan dabilen lagunak ere omentzeko", diote Arrasate Musikaletik.

Horrekin batera, egun horretan Txalaparta elkartearen ereserkia estreinatuko dute. Himno hori Arrasate Musikaleko Bandaren zuzendari Mikel Markiegik konposatu du.

Hain zuzen, herriko beste elkarte batzuen ereserkiak ere joko dituzte, eta baita San Sebastian martxa, *Maritxu* eta *Mondra* izeneko piezak ere.

7. ALDIA Kantari

DEBAGOIENA

Arrasate eta Aramaioko partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!

ENTSEGUAK
Otsailaren 29an eta martxoaren 1ean, Kulturaten

IKUSKIZUNA
Martxoaren 7an eta 8an, Amaia Antzokian.

Animatu eta etorri neska-mutikoekin kantuan eta dantzan egitera!

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 688 69 00 04 / <https://goiena.eus/bereziak/kantari-7-aldia>

goiena



FORD HYBRID



PUMA HYBRID 135 euro hilean*

Sarrera 4.534€. Azken kuota 10.915€, 37 hilabete, TAE 8,42%



www.grupoeasomotor.com

Lintzirlin-Olartzun A8
salida 48 N1 a Irun
Poligono Lintzirlin 10
Telefonoa 943 260 426

Lasarte - Oria
Pabellón 2
(Salida N1, Km 451)
Telefonoa 943 376 753


Beasain
Automóviles Mujika
Carretera N1 Km 419
Telefonoa 943 887 400

Irun
Vertiz
J. Thalamas, 48
Telefonoa 943 629 200

Arrasate
Automóviles Mugarri
C/ San Andrés 6
Telefonoa 943 790 744

FORD PUMA GAMA AUKERARIK GABE: KONTSUMOA ZIKLO MISTOAN, WLTP, 5,4-5,8 L / 100 KM. CO2 EMISIOAK, WLTP, 124-132 G/KM (96-106 G/KM, NEDC). INDARREAN DAGOEN ARAUDIAREN ARABERAKO NEURRIAK. CO2 emisioen balioak aldatu egin daitezke aukeratutako ekipamenduari arabera. NEDC balioak izango dira erositako autoarekin lotutako fiskalitatea kalkulatzeko kontuan hartutakoak.

*Puma Titanium 1.0 Ecoboost mHEV (92 kW), 125 ZP, irratia 20,32 cm-ko ukimen-pantailarekin (8"), Sync3, nabigatzailea, modem integratua, 43,18 cm-ko aleazio-hagunak (17"), atzeko parking-sentsoreak, gidariaren eta albokoaren eserlekuak masaje funtzioarekin eta haririk gabeko kargagailuarekin. Eskaintzaren barne daude: BEZA, IEDMT (garraiobide mota batzuei ezarritako zerga berezia, autonomia erkidego bakoitzaren arabera; hortaz, komeni da kasuan kasu aztertzea), garraioa, sustapen-deskontuak, kontzesio-ekarpina eta deskontua FCE Bank PLC SErekin finantzatzearren, geroratuak gutxienez 9.000 euro eta 25 hilabeteko gutxienezko iraupen-konpromisoa. FCE Bank PLCren MultiOpcion eskaintza: 37 hilabete eta 20.000 km/urtean. Azken prezioa: 17.791,65 euro. Kredituaren zenbateko osoa: 13.257,65 euro. Irakurle-komisioa: 450,76 euro. TIN: %6,75. Zordundutako zenbateko osoa: 16.225,76 euro. Zenbateko osoa epeka ordainduta: 20.759,76 euro. Kreditu-balorazioari lotutako operazioa. Iragarrikan agertzen den modelo ez du zertan eskaintutako izan. Penintsulan eta Balear uharteetan baliagarria hilabetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. ford.es



Hilekoaren odolarekin egindako artelana. ZANELE MUHOLI

Martxoaren 8a dela-eta, hilekoari buruzko mostra

Herriko talde feministaren, Itur-Zuri Emakume Elkartaren eta Udalaren ekimenez, ekintzaz betetako egitaraua antolatu dute hamar egunerako, nazioarteko eguna bera erdian hartuta. 'Feminismo beltza'-ri buruzko saioa ere izango da, esate baterako

Julen Iriondo ARAMAIO

Pelikula baten emanaldiarekin hasiko da Aramaion Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu duten egitaraua: eguenean izango da, hilak 5, eta *Figuras ocultas* emango dute kultura etxean, 18:30ean –aurretik, 18:00etan, kafe-tertulia egingo dute–. Martxoaren 8a dela-eta antolatu duten zikloak, baina, beste bi saio ere izango ditu: *Viaje al cuerpo de una madre* emango dute hilaren 7an, 21:00etan; *Carmen y Lola*, berriz, hilaren 15ean, 19:00etan –azken biak, Ikusiz Gozatu elkartearen eskutik; lehena, Itur-Zuriren eskutik–. 16 urtetik gorakoentzat dira film denak.

Itur-Zurik antolatzen duen urteroko bazkaria, bestalde, martxoaren 7an izango da. Añai tabernan egingo dute, eta izena emateko azken eguna eguna izango da. 645 70 39 42 edo 685 72 75 38 zenbakietara deituta egin daiteke, edo iturzuri@gmail.com helbidean –25 euro–.

Martxoaren 8rako, berriz, askotarikoak antolatu dituzte: elkarretaratzea egingo dute 12:00etan plazan, eta Lagun Artean taldekoek dantza emanaldia gero, iturri-poteoarekin jarraitzeko –iaz kontsumo greba ere bazela-eta egindako ekimena errepikatuko dute–, musika lagun –ipuñ kontaketa, zuzeneko kontzerturen bat... ere izango dira–; 14:30ean bazkaria egingo dute eskolan, jatekoa eta mahaitresnak norberak eramanda –platerak, edalontziak eta edaria han egongo dira–, eta kafea, bingoa –sariekin–, musika –zuzeneko– eta tertulia, bazkalostean; 18:30ean, azkenik, manifestazioa egingo dute, kultura etxetik plazara.

HAINBAT ARTE DIZIPLINAREN BIDEZ IRUDIKATUKO DUTE HILEKOA SASTIÑAKO ERAKUSKETAN

Hilekoa, arte bidez

Martxoaren 10etik 15era erakusketak berezia egongo da ikusgai Sastiñan –10:30etik 12:00etara, lehen bi egunetan; 18:00etatik 20:00etara, erdikoetan; eta 12:00etatik 14:00etara, azken bietan–. *Hilekoa gorria ote* du izenburua, eta hainbat arte diziplinaren bidez gerturatzen da askorentzat oraindik tabu den horretara; bertako zein nazioarteko artisten lanak jasotzen ditu erakusketak: Myriam Negreren zeramika, Lola Vendettaren komikia, Zanele Muholik odolarekin margotutako lanak, argazkiak, akuarelak, eskultura... Edurne Kortabarria aramaiorren ilustrazio digital bat ere izango da erakusketan. Azken egunean, gainera, bisita gidatua egingo du 12:00etan Ainhoa Aldazabal dinamizatzaileak.

Azkenik, martxoaren 13an, *feminismo beltza*-ri buruzko saioa izango da, 18:30ean, kultura etxean, Manuel Iradier elkarte Afrika-zalearen eskutik.



J.I.

Euskaraldia prestatzen hasita

Jende gutxi azaldu zen eguaztenean Euskaraldiaren bigarren edizioa prestatzeko deitutako lehen bilerara. Rosa Mondragon euskara teknikariak aurkezpena egin zuen, dena dela, eta gaiaren gainean jardun zuten bertaratutakoek. Entitateak identifikatzea eta, haien parte-hartzea lortuta, *Ariguneak* izendatzea izango da zereginetako bat.

Lehenaren eta azkenaren arteko lehia, areto futbolean

Aramaixo Tropikalak Almagor taldea hartuko du etxean domekan, 18:00etan hasiko den neurketan. Sailkapenari begiratuta, lehia eroso behar luke etxe-koentzat, alde handia dago-eta bi taldeen artean.

Izan ere, aramaiorak sailkapenaren buruan daude, hamabi partidua irabazi eta bi galduta, 36 punturekin; Almagorrek, oster, bost puntu besterik ez ditu, partidua bakar irabazi eta bi berdinduta –gainerako hamaika neurketak galdu egin dituzte–.

Aramaixo Tropikalak, gainera, zaleen laguntza izango du beste behin, jende ugari joan ohi da-eta kiroldegiko partiduetara.

Autobusaren ordua atzeratzeko eskatuko dio Udalak Aldundiari

Zenbait herritarrek Udalari berri eman diote Gasteiztik Arrasatera 19:55ean iritsi behar duen autobusa batzuetan beranduago iristen dela eta, ondorioz, 20:00etan Arrasatetik Aramaiora ateratzen dena galdu egiten dutela. Hori dela-eta, bigarren autobus horren irteera ordua apur bat atzeratzeko eskatuko dio Udalak Arabako Aldundiari.

Bestelako kexa edo iradokizunik izanez gero, posta elektronikoz edo telefonoz eurei jakinarazteko eskatu dute Udaletik. Horrez gain, herritarrei jakinarazi nahi diete tarteko geltokietan eskua jaso behar dutela, Aramaiora doan autobusa geldid dadin.

Jesus Mari Elejalde hil zen aurreko astean, 84 urterekin

Hilaren 20an hil zen Elejalde. Azkoagako Salturralde baserrian jaioa, Aramaioko parroko izan zen urte askoan; azken urteotan, oster, Gasteizen bizi zen. Aramaioko ondarea jasotzeko lan asko egin zuen, eta hainbat liburu idatzi zituen. Aramaioko seme kuttun zen. Goienak hurrengo zenbakietan eskainiko dio tarte zabala.



Jesus Mari Elejalde. AHOTSAK

Aratusteak giro ederrean zapatuan eta asteartean

Julen Iriondo ARAMAIO

Aurtengo Aratusteak ospatzeko, besteak beste, mozorro desfilea eta lehiaketa egin dituzte. Helduetan, Boli Txuriak taldea izan

da saritua; umeetan, berriz, Naturako Elementuak taldeak jaso du saria eta Xirristi Miristik, ostera, mozorro originalenarena.

Bestalde, San Martin eskolako ikasleek dantzan ospatu zuten Aratuste-martitzena pilotalekuan. Aurtengo gaia Naturaren super-heroiak izan da.



Irakaslea ikasleari laguntzen.



Lagun talde bat Aramaioko plazan, mozorroak erakusten.



San Martin eskolako txikienak dantzan.



Neska mozorrotuta.



Aramaioarrak mozorro erakustaldiaz gozatzen.



San Martin eskolako nagusienak dantzan.

'Egunean behin'-en 'Suitza Txikia' taldean jokatzeko sarituko da

Egunean behin jokoak otsailaren 3an abiatu zuen hirugarren denboraldia eta martxoaren 29an amaituko da. *Suitza Txikia* izeneko talde bat sortu da, non dagoeneko 93 kide dauden. Hain zuzen, Udalak talde horretan jokatzeko sariak emango ditu. Helburua da Aramaion partaidetza sustatzea.

Suitza Txikia izeneko talde horretan, aramaioarrek edota Aramaioarekin lotura zuzena dutenek parte hartzeko aukera, eta, saria ematerakoan, martxoaren 2tik 29ra bitarteko sailkapena hartuko da kontuan. Gauzak horrela, lehen postuan geratzen denak saria jasoko du, baina, horrez gain, parte hartzen duten herritarren artean zozketa egingo da eta bi sari -gazta-banatuko dira. Saridunen izenak -jokoan daukaten izenarekin- martxoaren 30ean argitaratuko dira, Udaleko atarian, eta irabazleek udaletxean jaso beharko dute saria, apirilaren 8a baino lehen.

Salgai daude Lagun Artean dantza taldearen errifak

Lagun Artean dantza taldeak dagoeneko salgai dauden errifak atera ditu, bere egoera ekonomikoa finkatzeko eta urtean zehar egiten dituen ekintzak mantentzeko. Horretarako, elkartek dituen 50 kideen artean 1.000 errifa -euro batean- saltzea da asmoa. Zozketa martxoaren 27an, egubakoitzean, egingo da, dantza plaza saioaren ostean.

Herriko jaiak guztion artean antolatzeko dei egin du Udalak

Udala hasi da San Martin jaien bueltan lanean eta herritarren proposamenak eta ideiak jaso nahi ditu jaiak guztion artean antolatzeko. Horretarako, inkesta bat dago eskuragarri udal atarian, non iazko egitarautik abiatutako galderak egiten diren. Aipatutako inkesta betetzeko azken eguna martxoaren 6a izango da.

Inauteriei buruzko tailerra ludotekan

Aurten ere modu berezian ospatu dituzte Aratusteak Aramaion. Martitzenean, mozorroz girotutako jaiari merezitako amaiera emateko helburuarekin, San Martin Eskolako ikasleek erakustaldia eskaini zuten herriko pilotalekuan.

Horren ostean, Udalak antolatutako Inauteriei buruzko tailerrean parte hartzeko aukera izan zuten herriko txikienek.

Gauzak horrela, 5 urtetik beherako hainbat ume eta beraien gurasoak ludotekan izan ziren, non Inauteriei lotutako eskulanak egin zituzten. Horrez gain, tailerra gidatzen ari ziren begiraleek nahi zuen umeari aurpegia margotzen aritu ziren. Guztien artean giro zoragarria sortu zuten herriko ludotekan, eta, hala, aurtengo Aratusteei agur esan zieten.



Hainbat ume Inauterien tailerrean. ANA MARTIARENA

Santa Kurtz kalerako bi proposamen aukeran

Hornidura eta saneamendu sarea berritu eta kalea berrurbanizatuko dute "irisgarritasuna eta bide segurtasuna hobetzeko". Bi proiektu landu dituzte eta horien artean hautatu ahal izango dute herritarrek martxoaren 2tik 7ra bitartean, Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolaren eraikina-
ren bukaera hasi eta kuartela
arte dagoen zatia berrituko du
Udalak, aurten, baita Santa Kurtz
kalearen perpendikularrak ere,
Elkano, Guridi, Iparragirre,
Sarasate eta Otalora kalearen
12, 18 eta 22 atarteak, hain zuzen.

Azpiegituren sare guztiak bir-
moldatuko dituzte: ur hornidu-
ra, euri uren eta ur beltzen
saneamendua, energia elektri-
koaren sarea, eta argiteria pu-
blikoaren eta telekomunikazio
instalazioak. Horiekin batera,
oztopo arkitektonikoak kenduko
dituzte, espaloiak zabaldu, ibil-
gailuendako erreiak estutu abia-
dura murrizteko eta oinezkoen
eta automobilaren ikuspena ho-
betzeko baliabideak jarri.

Proiektua oraindik erabaki-
tzeko egon arren 1.850.000 euro-
ko inbertsioa aurreikusi du
Udalak, eta uztailearen amaiera-
rako esleitzea espero dute, irai-
lean has daitezen. Behin lanak
hasita, ezustekorik ezean, zazpi
hilabete iraungo dute.

Urbanizatzeko bi aukera

Asmatu Ingeniaritzak bi aukera
aurkeztu ditu Santa Kurtz eta
inguruko kaleak urbanizatzeko.
A aukerak 132 aparkaleku eta
oinetakoendako gune zabalak
jaso ditu, eta aurrekontua
1.844.600 eurokoa da. B aukerak,
ostera, 150 aparkatzeko plaza
ditu oinezkoen guneen zabalera
murriztuta, nahiz eta "irisgarri-
tasuna beti bermatu"; eta horren
kostua antzekoa da, 1.830.700
euro. Herritarrek bi horien ar-
tean hautatu ahal izango dute,
eta ekarpenak ere egin ahal
izango dizkiete.

Bozketa martxoaren 2tik 7ra

Kale horietako 333 etxebizitzek
eskuorri bat jasoko dute egu-
ntan argibideekin. Dena den,
parte-hartze prozesua herritar
guztiei irekita dago; horretara-



Amaia Murgiondo Parte-hartze teknikaria eta Saioa Llodio Hirigintza teknikaria. M.A.

ASMOA DA UZTAILEAN ESLEITZEA LANAK ETA IRAILEAN HASTE; ZAZPI HILABETE IRAUNGO DUTE

ko, Aretxabaletan erroldatuta
egon beharko da eta 16 urtetik
gorakoa izan. Herritar bakoitzak
boto bakarra eman ahal izango
du, NAN aurkeztuta.

Proiektua kontsultatzeko eta
bozkatzeko gunea Arkupen ja-
rriko dute martxoaren 2tik 6a
arte goizez (10:00-13:00) eta arra-
tsaldez (17:00-20:00), eta 7an,
zapatua, goizez bakarrik (10:00-
13:00). Horrez gain, datorren
astelehenean Unai Elkoro alka-
teak eta Xabi Otxoa Hirigintza
zinegotziak herritarren zalantzak
argituko dituzte Arkupen. Uda-
letik jakitera eman dute tekni-
koki eta ekonomikoki bideraga-
rriak diren eta hobekuntza
dakarten proposamenak sartu-
ko dituztela azken proiektuan.

EH Bildu moduekin gustura ez

EH Bilduk, bestalde, Santa Kurtz
kaleak "jardun integrala" behar

duela argi utzi gura izan du ohar
bidez, baina kontuak "ondo egin-
da". Eta hainbat puntu argitu
gura izan ditu. Batetik, ekarpe-
nak egiteko aukerarik ez izana
proiektua lantzerakoan: "Proiek-
tuak herritarrei ireki edo gau-
zatu aurretik, ekarpenak egite-
ko eta Udalean lan egiteko tar-
tea izaten dute, logikoa denez".
Eta bestetik dio bi proposamenak
"oso berdintsuak eta gutxi lan-
duak" direla: "Prozesua azkar
egin nahi izatea sumatzen dugu".

Proiektuari ez zaiola "behar
besteko arreta" eskaini gaine-
ratu du, eta bereziki, aparkale-
kuen kontua aipatu du: "Hobeto
aztertu behar da inguruan zen-
bat auto dauden, ordu-tarteak...
Eta horretan oinarrituta, auzo-
tarrentzat jasagarria den plan-
teamendu integral bat aurkeztu".

Era berean, EH Bilduk argitu
gura izan du Eusko Legebiltza-
rreko hauteskundeak deitu
zirean unetik ezin dela proiektuak
inauguratzeko ekitaldirik egin,
ezta Santa Kurtz kaleko proze-
sua bera deitu ere: "Bergarako
Hauteskunde Batzordeari egin
zitzaion kontsulta, eta hark
esan du ezin dela Udalak plan-
teatzen duena egin".



Mitarte kaleko Martxika eski estazioa jendez lepo, domekan. MIRARI ALTUBE

Jendetza mozzorrotuta eta aparteko giroa Aratusteetan

Kuadrillek "landutako muntaiak" erakutsi zituzten eta
antolatutako bazkarietan "sekulako giroa" izan zuten

M.A. ARETXABALETA

Aratuste jaien biharamunak
zenbait egun iraun ditu Aretxa-
baletan hainbatendako; izan ere,
mozzorroa aldean hartuta "dena"
eman zuten kuadrilla askok eta
askok domekan. Sariak jaso
zituzten gero horiek; 16 urtetik
beherakoen artean sarituak izan
ziren: Pentsiodunak; Pottokiak;
Lapurak; Militarrek; eta Su-
kaldariak. Eta 16 urtetik gorakoen
arteak: Kaiola eta akuarioa;
Popeye eta Olivia; UDaren pa-
raxutistak; Transformerrak; eta
Klima aldaketa. Ezin ahaztu
Mitarte kaleko eski estazioa,
herritar guztiak jarri zituelako
dantzan eguerdi partean.

Antolatzaileak "pozik"

"Egun benetan polita izan zela
esan didate herritar askok ka-
lean", adierazi du Ainhoa Cabe-
ro Kultura zinegotziak eta pozik
agertu da horrekin. "Eguraldiak
lagunduta aparteko giroa sortu

zen: jende asko mozzorrotuta,
landutako muntaiak desfilean,
antolatutako bazkarietan giro
ona eta aparteko arazorik ez".
Nerabeendako ekintzek ere ha-
rrera beroa izan zutela gaine-
ratu du: "Komentuko afarian
gaztetxo asko elkartu ziren,
DJaren emanaldian jendetza
egon zen eta txokolate guztia
agortu zitzaion. Antolatzen egin-
dako ahaleginak halako eran-
tzuna jaso izana pozgarria da".

Karnabalen Lagunak taldeko
kideak ere domekak emanda-
koarekin gustura agertu dira,
nahiz eta oraindik baloraziorik
egiteko ez elkartu. "Txapel Txin
egunari buelta bat eman diogu
aurten, eta indartu egin da. Ara-
tusteetan, oster, sekulako giroa
izan da, bazkari *golfoan* esate-
rako", adierazi du Ibai Zangituk.

Aratuste-martitzenean, oster, umeak izan ziren protagonista.
Eta herritarrek jaiak agurtu
zituzten Txin-en hiletarekin.



Ikastetxeetako neska-mutikoak martitzenean, Ibarra kiroldegian. IMANOL BELOKI



Aretxarteko hainbat kide, Durana kaleko denda bat salgai dagoela adierazten duen kartela jartzen. MIRARI ALTUBE

Aretxartek "salgai" jarri ditu herriko dendak

Interneten erosteak merkataritzan duen eraginarekin kontzientzia hartzeko kanpaina jarri du abian herriko merkatarien elkarteak eta astebete pasatxoan izango dituzte kartelak jarrita; lehen egunetan ikusmin handia sortu du aretxabaletarrengan

Mirari Altube ARETXABALETA

Salgai dioten kartelekin agertu dira astean herriko hainbat denda eta taberna. Aretxarte merkatarien elkarteak jarri ditu horiek, herritarrengan ikusmina sortzeko eta, era berean, pentsarazteko. Hamar bat egun iraungo duen kanpainak zeresan handia eman du herrian lehen egunetan.

Interneten mehatxua

"Herritarrek gero eta gehiago erosten dutela Interneten uste dugu, eta horren aurrean, protesta gisa, jarri dugu abian kanpainatxo hau", adierazi du Aretxarteko zuzendaritza batzordeko kide Uxoa Etxebarriak, eta gaineratu: "Egia da aretxabaletarrek erosten dutela bertako komertzioetan ere, baina

kontzientzia har dezaten gura dugu, geure egin dugun *Bizi erosi Atxabaltan* leloarekin bat eginez". Herriko merkataritza desagertuz gero zer gertatuko litzatekeen ere aurreratu du Etxebarriak: "Kaleak ilun, bizitasunik ez herrian, asko igarriko litzateke, zalantzarik gabe, eta ez onerako". Hala, bizirik mantendu gura bada guztien

beharra egongo dela uste dute Aretxarteko kideek.

Harridura sortu

Martitzen arratsaldean jarri zituzten lehen kartelak eta segituan sortu zuten herritarrengan harridura: "Aho zabalik geratu dira asko, kezkatu ere egin dira hainbat, eta segituan etorri zaizkigu galdetzeraz. Hain zuzen, hori zen kanpaina honen helburua; harridura sortzea lehenengo, eta gero, zer pentsatua ematea".

Antzeko kanpainak beste herri batzuetan ere egin izan dituzte la gogorarazi dute; plastiko beltzarekin erakusleihoak estali, esaterako. Aretxabaletar batzuei eraginkorra iruditu zaie eta beste batzuek ez diote graziairik topatu: "Broma dela esan diegu galdezka etorri direnei, baina, era berean, serio hartzeko kon-

tua dela ere bai, etorkizunera begira jarrita ondorioak larriak izan daitezkeelako guztiondako".

Bezeroak zaindu

Aretxarte elkarteak 58 kidek osatzen dute; horietatik 39 merkataria dira eta 19 tabernariak. Oraingo kanpaina bereziki merkatariei bideratua izan arren, tabernariak ere bat egin dute horrekin. Herriko bezeroa zaintzen ahalegintzen da Aretxarte, eta, horretarako, urtero egiten ditu hainbat kanpaina; Gabonetan, esaterako, egutegiak opartu eta bonuak zozketatu.

**KONTZIENTZIA PIZTEA
HELBURU DUEN
KANPAINAK IKUSMIN
HANDIA ERAGIN DU
HERRITARRENGAN**

Emakumeen Frontenis Txapelketa asteburu bakarrean jokatu da

Hamar bikotek eman dute izena UDAk antolatutako Emakumeen Frontenis Txapelketan, eta horregatik, bi asteburutan egin beharrean bakarrean jokatzearabaki dute antolatzaileek. Egutegia zehazten dihardute egunotan.

Txapelketaren lehen zatia martxoaren 7an, zapatuan, izango da eta ligaxka eran jokatu

dute, Iturrigorri pilotalekuan. Bigarren zatia, osteraz, martxoaren 8an, domekan; finalerdiak, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua eta finala bera izango dira orduan. Txapeldunek jasoko dute saritzat bertako produktuekin osatutako saskia.

Aretxabaleta kirol elkarteak, Udalaren laguntzarekin, zazpigarrenez antolatu du txapelketa, eta Emakumeen Nazioarteko Egunari keinu egin gura izan dio horrekin, beste behin.

Gipuzkoako Trialsin Txapelketaren lehen proba Aretxabaletan

Debagoieneko Oztopo trialsin taldeak antolatuta, 2020ko Gipuzkoako Trilasin Txapelketako lehen proba jokatu da Aretxabaletan—Arbizelaiko trialsin gunean—, martxoaren 7an, zapatua; goiz partean izango da, 09:30etik 13:30era bitartean.

Hurrengo proba Irunen da apirilaren 6an, eta hirugarrena, Tolosan, maiatzaren 30ean.

Zaindariaren eguna ospatuko dute Basotxoko bazkideek

Basotxo erretiratuen elkarteak kideek zaindari duten Aingeru Guardakoaren eguna ospatuko dute domekan, martxoaren 8an. Elkartearen salda hartuko dute lehenengo (11:30), eta ondoren, Oñatiko Etxe Aundi jatetxera joango dira bazkaltzera (autobusa 13:15ean, Basotxotik). Sekula baino jende gehiago joango direla iragarri dute.

**Mobiliario
ARENAZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Aretxarteko hainbat merkatarikomentuan. IDOIA ELEXPURU



Bergarako Camden Town dantza akademiako kideak iaz jokaturako Fun Dantz! jaialdian. GOIENA

Oholtzan kaleko dantzen koreografia landuak

Fun Dantz! lehiaketa egingo da bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian eta Euskal Herriko hainbat txokotako 21 talde elkartuko dira nor baino nor gehiago jarduteko; irabazleak martxoaren 21ean, Bilbon, jokatu den BreakOnStage jaialdirako sailkatuko dira

Imanol Beloki ARETXABALETA

Musika eta dantza urbanoekin beteko da Ibarra kiroldegia, zapatuan izango den Fun Dantz! jaialdian. Aurtengoa, seigarren edizioa izango da, eta beste behin ere, dantzariak dena ematera aterako dira agertokira. Euskal Herriko dantza urbano talde onenen koreografiak gozatze-ko aukera izango dute ikusleek. Interesa dutenek gaur erosi ahal izango dituzte sarrerak hiru eurotan, Arkupe kultura etxean; egunean bertan, berriz, bost eurotan salduko dituzte kiroldegiko leihatilan.

Ateen irekiera 18:00etan izango da, eta 18:30ean, epaileen ikuskizuna. Sara Colas, Paula Perez eta Alberto de Gregorio dantzariak saioa eskainiko dute, eta gero, epaile moduan arituko dira. Taldeen dantza maila baloratuko dute, baita sinkronia, ideia originala, eta erabilitako musika ere. 18:40ean, berriz, gazteen kategoriako koreografiak izango dira, eta 19:15ean, kate-

goria absolutukoen koreografiak. Aurreikuspenak betetzen badira, 20:00etan amaituko da dantza urbanoen ekitaldia.

Aretxabaletako Udalak eta BreakOnStage jaialdiak elkarlanean antolatutako ekitaldiak 21 talde elkartuko ditu. Horiek, hiru minuturen bueltako koreografiak eskainiko dituzte, ikusleek gozamenarako.

Euskal Herriko hainbat leku-tatik etorritako taldeak elkartuko dira Ibarra kiroldegian jarritako oholtza gainean; besteak beste honako hauek: Feel The Sound (Bilbao), Bamboo (Donostia) Red Soul (Iruñea), Faktory (Leioa), Camden Town (Bergara), B-Wild (Barakaldo) eta Groove Stage (Gasteiz).

BERGARAKO CAMDEN TOWN AKADEMIAKO HAINBAT TALDEK JARDUNGO DUTE NOR BAINO NOR GEHIAGO

Bailarako ordezkaritza

Debagoieneko ordezkari bakarra izango da lehiaketan. Hain zuzen ere, Bergarako Camden Town dantza akademiako taldeek parte hartuko dute. Iaz, lau talde elkartuko ziren; aurten, berriz, gazte mailan talde bakarrak eskainiko du ikuskizuna, eta absolutuan, aldiz, bi taldek dantzatu dute.

Sari ederrak irabazleentzat

Gazteen edo urban dance junior deritzon kategorian, 15 urtetik beherako gazteak aterako dira agertokira ikuskizuna eskaintzera. Guztira, bederatzi talde izango dira, eta irabazleak BreakOnStage jaialdian parte hartuko du, martxoaren 21ean Bilbako Arenan. Bi talde onenek, berriz, sariak jasoko dituzte.

Kategoria absolutuan, berriz, 12 taldek parte hartuko dute, eta kasu horretan ere irabazlea BreakOnStage jaialdian egongo da. Bi talde onenak, aldiz, diruz sarituko dituzte.

Berba ironiko eta ilunak, gaur, GAZ Limbo taldearen eskutik

Lekeitiarren emanaldia udaletxe zaharreko atartean izango da gaur, Loramendi elkarteak antolatuta

I.B. ARETXABALETA

Lekeitioko GAZ Limbo taldea izango da gaur, egubakoitza, udaletxe zaharreko atartean, Loramendik gonbidatuta. 22:00etan hasiko da kontzertua, eta rapa eta elektronika gustuko duenak aparteko aukera izango du horrekin gozatzeko. Berba ironikoak eta umorea erabilia zenbait kanta eskainiko dituzte eta trap estiloari ateak irekitzeko asmoz etorriko dira Aretxabaletara.

Joseba Gereduz, Gaizka Aretxaga eta Ibai Zabala dira GAZ Limbo taldea osatzen dutenak, eta "trapa egiten duten metale-ro" bezala definitzen dute beraien burua. *Buruaz Beste* izeneko diskoa azaroaren 28an argitaratu zuten Durangoko Azokara begira, eta lan horretan batzen dituzten kantuekin zein berri batzuekin izango dira udaletxe zaharreko atartean.

Gaurko musika kontzertuaz gain, ipuin kontaketa eta bertso afaria ere antolatu dute Loramendi elkartetik martxorako. Hilaren 6an, hurrengo egubakoitza, Dorleta Kortazar ipuin kontalari eskoriatzarra izango da udaletxe zaharrean azken lana aurkezten: *80 amandre*.

Bertso afaria Hibai Gainen

Loramendik eta Lekaixoka bertso eskolak elkarlanean antolatuta, eta Udalak lagunduta, bestalde, bertso afaria izango da, martxoaren 13an, Hibai Gainen elkartearen. Nerea Elustondo (Legazpi, 1981) eta Nerea Ibarzabal (Markina-Xemein, 1994) bertsolariak izango dira afaria girotzen. Txartelak dagoeneko salgai daude Loramendi elkartearen, Taberna Berri jatetxean eta Urbaltz tabernan. Prezioa 20 euro da Loramendiko bazkideendako eta 22 euro, gainerakoendako.



GAZ Limbo taldeko kide bat kontzertuan. IBAI ZABALA

OHARRAK

Teknologia digitalen gaineko hitzaldia

Haurrak eta pantailak solasaldia antolatu du Kuku Mikuk. Teknologia digitalen erabilera pedagogikoan aditua den Amaia Arroyok gidatuko du saioa, gaur, egubakoitza (18:00), elkartearen.

Bandaren emanaldia

Leizarra musika eskolako bandaren kontzertua izango da gaur, egubakoitza, komentuan (19:00).

'Panpina' antzezlan

Kamikaz kolektiboko Erika Olaizolak *Panpina* antzezlan eskainiko du martitzenean, hilaren 3an, Arkupen (19:30). Gai sakonak landuko ditu umorea eta *performance*-a lagun dituela.



Udalbatzako kideak, otsaileko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

M8-ra begirako mozioa onartu zuen udalbatzak

'Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea' izenpean EAJk aurkeztutako mozioa onartu zuen udalbatzak, EH Bilduren ezezko lau botorekin eta EAJ eta Elizateen baiezkotik sei botorekin. Galde-eskeen tartean, Zaldibarko gertakaria izan zen hizpide

Imanol Beloki ESKORIATZA

Inauteri-martitzenean egin zuten otsaileko osoko bilkura Eskoriatzako ordezkari politikoei, eta, zenbait prozedura administratibo eta tramite aho batez onartu ondoren, Martxoaren 8aren bueltako erakunde adierazpena izan zen azpimarratzeko gaitako bat.

Batetik, EH Bilduk Martxoaren 8ra begira erakunde-adierazpen proposamena jarri zuen mahai gainean. EAJk eta Eskoriatzako Elizateen Elkarteak ezezko botoa eman zioten erakunde-adierazpenari, proiektu guztiak ondo jorratu behar direla eta batzordeetan aztertu behar direla argudiatuz.

Horren ondoren, EAJk *Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea* izenpean mozioa aurkeztu zuen. Adierazpenaren irakurketan, besteak beste, honako hau adierazi zuen Maite Uribe EAJko bozeramaileak: "Udalak konpromiso irmoa adierazten du berdintasunezko

gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen tokiko bizitzan". Honen aurrean, Eluska Irazu Bilduko bozeramaileak ez zutela mozioa onartzen adierazi zuen, honako hau adieraziz: "Konpromiso gehiago behar dira, herriak hori eskatzen du, eta aurkeztu duzuen mozioa motz geratzen dela uste dugu. Eudelek aurkeztutako bera da aurkeztu duzuen, baina mozketak batzuk egin dituzue...".

Zaldibarko zaborteia hizpide

Zaldibarko zaborteia lur azpian dauden pertsonen familiei elkartasuna adieraziz honako hau adierazi zuen EH Bilduko Ander

Errartek: "Otsailaren 20an, dokumentu bat helarazi genizuen Zaldibarko gertakariaren harira, aire kalitatearen gainean kezka bat genuenez Eusko Jaurlaritzari zenbait galdera egiteko. Airearen kalitateari buruzko neurriak egin al da Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate aldean, Zaldibarko gertutuen dagoen eremuan neurtzen ari diren parametro berberak neurtzeko? Neurketa horiek egin badira, zein izan da emaitza? Eta kasu negatiboa bada, egiteko asmorik badago?".

Honen aurrean, Josu Ezkurdia EAJko bozeramaileak erantzun zion: "Ez behar honen aurrean EH Bilduk hartu duen jarrera lotsagarria iruditzen zaigu. Pentsatzen dugu erabilera politikoa egiten ari dela gai honekin. Gobernua informazio osoa ematen ari da, eta, beraz, ez dugu sinisten Bildu kezkatuta dagoela gai honekin. Hauteskundeak datozenez, erabilera politikoa eta elektoralak egin nahi du".

6 BAIEZKO ETA 4 EZEZKO BOTOREKIN ONARTU ZUTEN MARTXOAREN 8KO EAJ-REN MOZIOA

Gorputza mugituz eman diete bukaera Aratusteei

Urtero moduan, ikastetxeetako haurren dantza jaialdia izan da Joseba Iñurrategi pilotalekuan

I.B. ESKORIATZA

Urtero moduan, Eskoriatzako Luis Ezeiza eta Arizmendi ikastetxeetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleek dantza jaialdia izan zuten Aratuste-martitzenean. Joseba Iñurrategi pilotalekuko harmailak bete egin ziren haurren dantzak ikusteko, eta egunerako prestatutako pausoak ederto egin zituzten, familiakoen begiradapean.

Aurtengo dantza jaialdian bi gai nagusi hartu dituzte oinarri: batetik, euskal Inauterietako pertsonaia; eta, bestetik, klima

aldaketa. Hori horrela, bi gai horien bueltako moztarok jantzita joan ziren haurrak frontoira.

Dantza eginez, agur Aratusteei Aratuste-martitzenean haurren dantza jaialdiarekin batera, arratsaldean, Eskoriatzako pertsonaia nagusiak diren kukumarruak izan ziren jendea zirkatzen eta beldurtzen, eskuan puxika zutela. Ondoren, DJ Tirapu izan zen Fernando Eskoriatza plazan musika jartzen, eta hala eman diete amaiera Eskoriatzako Aratusteei.



Aratuste-martitzenean, haurrak dantzan Joseba Iñurrategi pilotalekuan. I.B.

Odola emateko autobusa bi egunetan egongo da

Odola eman gura dutenek bi egunetan izango dute martxoan horretarako aukera, Fernando Eskoriatza plazan jarriko den autobusean. Batetik, martxoaren 5ean, eguna, izango da autobusa, 16:30etik 20:15era bitartean, eta martxoaren 12an, ordu berean izango da.

Gipuzkoako odol emaileen elkarteak antolatuta, odola emateko zenbait arrazoi daudela adierazi dute, eta herritarrei bertaratzeko deia egin diete. Norbaitek odola beharko balu hari laguntzeko beharrezkoa dela esan dute. Eta, honekin batera, gaineratu dute odola emateko baldintza batzuk bete behar direla.

Elkarte gastronomikoen arteko mus txapelketa

Zapatu honetan, Eskoriatzako elkarte gastronomikoen arteko mus txapelketa jokatu da. Guztira, bost elkartetako ordezkariak batuko dira –Egokiena, Elizoste, Dorleta, Apotzagako Auzo-Etxe eta Errementei Batzokia–, 16:00etan, Egokienan, eta lehia handia egongo dela adierazi dute antolatzaileek.

"Duela urte dezentegiten zen elkarte gastronomikoen arteko txapelketa hau; 12 bat urte, esango nuke nik. Gehiago, agian. Hala, berreskuratu egin dugu, eta, teoriarik, elkarte bakoitzean egindako txapelketetako finalista batuko dira zapatuan, Egokienan, musean aritzeko", adierazi du Roman Ezeizak.

Hiru libururen sakontzea, Literatura Solasaldietan

Mikel Antzaren gidaritzapean, hiru libururen gaineko solasaldiak izango dira: martxoaren 26an, Karmele Jaioaren 'Aitaren etxea'; apirilaren 23an, Amets Arzallusen 'Miñan'; eta maiatzaren 28an, Ngugi Wa Thiongo-ren 'Iraultza bertikala'

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martxoan, apirilean eta maiatzean, hiru hilabetetan, hiru libururen gaineko solasaldia egingo da kultura etxean, Eskoriatzako Bibliotekak antolatuta. Mikel Antzaren gidaritzapean, hiru liburu hauek aztertuko dituzte: martxoaren 26an, Karmele Jaioaren *Aitaren etxea*; apirilaren 23an, Amets Arzallusen *Miñan*; eta maiatzaren 28an, Ngugi Wa Thiongo-ren *Iraultza bertikala*: edo zergatik ibiltzen diren gizakiak zutik.

Literatura Solasaldietan parte hartu gura duenak liburuak irakurrita eraman beharko ditu, eta izen-ematea zabalik dago. "Egituraz gain, liburu hauen irakurketa sakona egingo dugu. Iritzi ezberdinek asko aberasten dute norberak liburua irakurri duenean jasotako inpresioa, eta hori izango da hiru liburu hauekin egingo duguna. Egitasmoan parte hartzeko izena eman beharko da, eta horretarako, Biblio-



Karmele Jaio idazlea *Aitaren Etxea* liburuaren aurkezpenean. EITB

tekara joan edo 943 71 31 35 telefono zenbakira deitu beharra dago. Dagoeneko eman dute zenbaitek izena, eta taldea osatuta dago; hala ere, ez dugu pertsona kopuru mugarik jarri. Beraz, interesa duena animatu

dadila. Koordinatzaile moduan Mikel Antza izango dugu hiru liburuen solasaldietan, eta gainera, *Miñan* liburuaren solasaldian, Amets Arzallus bera ere izango dugu gonbidatu berezi moduan liburuaren nondik no-

rakoak azaltzen. Liburuaren idazlea bera egoteak gehiago eskainiko dio solasaldiari...", adierazi du Iñaki Agiriano Eskoriatzako bibliotekako arduradunak.

Martxoaren 26an, lehenengoa

Karmele Jaio idazlearen *Aitaren etxea* eleberriaren solasaldiarekin emango diote hasiera Literatura Solasaldiak egitasmoari. Maskulinitateari buruz, balioen transmisioari eta genero-ikuspegiari buruz, hitz egiten du liburuak, eta, erantzunez baino gehiago, galdera askorekin dago osatuta gasteiztarraren lana.

Literaturaz haratago

Literatura Solasaldiez gain, apirilako hitzordu ugari antolatu dituzte Bibliotekatik, *Kataia eten barik* izenburupean. Apirileko ekintzen berri lehenbailehen eman gura izan dute, herritarrek horietan parte hartzea animatu daitezten. Hala, ekintzen batean edo bestean interesa duenak Eskoriatzako Bibliotekara deitu dezake.

Besteak beste, duela zazpi urte hasitako *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* egitasmoa izango da; aitona-amonen eta biloben arteko harremanak sustatzen dira ekintza honetan, eta aurrean ere arrakastatsua izatea aurreikusten dute antolatzaileek. Horrekin batera, musika eskolako ikasleek bat egingo dute literaturarekin, musika lagun dutela.

'Kataia eten barik' egitaraua

Literatura Solasaldiez gain, egitarau zabala antolatu du Bibliotekak apirilerako.

Apirilak 2, eguna

- **16:30** Haur Liburuaren Eguna, Bibliotekan.

Apirilak 3, egubakoitza

- **19:00** 'Literatura Juntaixe'. Irakurketak partekatuko dira Zaldibar antzokian.

Apirilak 23, eguna

- **18:00** Ipuin kontaketa: 'Udaberriko haziak', Bibliotekan.

Apirilak 24, barikua

- **18:30** Musika eskolako ipuin musikatu, Zaldibarren.
- **19:00** 'Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu' sari banaketa.

HIRU HILABETETAN HIRU LIBURUREN GAIENKO SOLASALDIA ANTOLATU DU BIBLIOTEKAK

Autodefentsa ikastaroa izango da martxoaren 7an

Martxoaren 7an, zapatua, *Defentsa pertsonal integrala* izeneko ikastaroa izango da Joseba Iñurrategi pilotalekuan. 10:00etan hasi eta 13:00ak bitarteko saioa izango da eta KAP Kickboxing eta Muay Thai Federazioak antolatu du. Hala, zenbait autobabes-neurri erakutsiko dizkiete bertaratzeko direnei.

Ikastaroa Cristo Gamero maisuak eskainiko du, FEKM defentsa pertsonaleko saileko zuzendari nazionalak. Hori horrela, autodefentsa saiora begira, informazio gehiago jaso nahi duenak edo martxoaren 7ko ekitaldirako izena eman gura duenak 639 67 75 09 telefono zenbakira deitu beharko du.

Euskal jantziak egiten ikasteko ikastarorako izen-ematea, zabalik

Eskoriatzako Udalak antolatuta, martxoaren 5etik apirilaren 2ra bitartean, euskal jantziak egiten ikasteko jostuntza ikastaroa izango da, kultura etxean.

Hain zuzen ere, euskaraz eskainiko den tailerra eguenetan izango da, 18:00etan hasi eta 20:00etan amaituta; guztira, bi orduko bost saio. Bereziki gonak eta txalekoak egiten ikasiko direla adierazi dute antolatzaileek, eta interesa duenak dagoeneko eman dezake izena, izen-ematea zabalik baitago. Horretarako, kultura etxera joan daiteke, edo, bertara deitu, 943 71 46 88 telefono zenbakira. Ikastaroaren prezioa 10 euro da.

San Pedro jaiak antolatzeko bilera irekia martitzenean

Eskoriatzako San Pedro jaiak ekainaren amaieran izango diren arren, jaiegun horietarako egitaraua prestatzen hasi gura du Eskoriatzako Udalak. Hori horrela, martxoaren 3an, martitzenean, 19:00etan, bilera irekia egingo da kultur etxean, San Pedro jaietako egitaraua prestatzeko.

Urtero egiten den hitzordua bada ere, interesa duen edonork izango du parte hartzeko aukera, eta, ahalik eta ideia gehien mahaia gaian jartzeko asmoz, Eskoriatzako Udalak herritarrek animatu nahi ditu bileretan parte hartzea eta bertan batzen diren guztien artean denon gustuko jaiak prestatzera.



Merkatarien arteko bazkaria

Ohitura onak galdu barik, beste urte batez batu dira Eskoriatzako zenbait merkataritza Aratuste-martitzenean. Beraien taberna, denda eta bestelako negozioak itxi, eta elkarrekin bazkaldu zuten. Mozorrotuta, Txalaparta jatetxean batu ziren bazkaltzeko, eta bazkalostean, zerbait hartzeko aprobetxatu zuten.

Bakardadea islatzeko argazki sorta, Ibarraundin

Astelehenetik ikusgai dago Eskoriatza Lagunkoia taldeak antolatutako 'Bakardadeari begira' izeneko erakusketa Ibarraundin. Bakardadea sufritzen dutenei elkartasuna adierazteko asmoz jarritako erakusketa, martxoaren 6ra arte egongo da ikusgai

Imanol Beloki ESKORIATZA

Astelehenetik ikusgai dago Ibarraundi museoan Eskoriatza Lagunkoia taldeak, Eskoriatza-ko Udalarekin batera, antolatuta, eta MatiaZaleak elkarteak sortutako *Bakardadeari begira* izeneko erakusketa. Zenbait argazki jarri dituzte ikusgai paneletan; bakardadea islatzeko, eta herritarrek kontzientziazteko helburuarekin.

Iazko abenduaren 8tik urtar-rrilaren 6ra bitartean bakardadearen aurkako kanpaina jarri zuen martxan Eskoriatza Lagunkoia taldeak. Bakardadea sufritzen dutenei zuzendutako mezu zuzenak edo bakardadearen bueltan hausnarketa egin nahi zuenak idazteko eta horiek uzteko postontzi batzuk jarri zituzten herritarren eskura egun horietan. Horren ondoren, herriko ikastetxei bideratu zizkieten mezuak idazteko hainbat postal, gaia lantzeko. Esperientzia interesgarria izan dela ai-



Herritarra panelari begira. I.BELOKI

patu dute Eskoriatza Lagunkoia taldeko kideek.

Oraingoan, berriz, erakusketa jarri gura izan dute bakardadea sufritzen dute horiei elkartasuna adierazteko, eta herritarrek kontzientziazteko. Erakusketa

horren bitartez hausnarketa egin nahi da gizartean zoritxarrez hain zabaldua dagoen gai bati buruz. Hala, aste honetan goizez, soilik, izan da zabalik erakusketa, baina, martxoaren 2tik 6ra bitartean, datorren astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean izango ditu ateak irekita.

Bakardadea argazkitan

Ibarraundi museoan erakusketak hamabost panelek osatzen dute, eta bertan hamalau argazki agertzen dira. Argazki bakoitzak deskribapen bat du idatzita, eta lan batzuk abstraktuak diren arren, beste batzuk egunerokotasunean ikus daitezkeen ohiko egoerak dira. Pertsonak bakarrik ez, objektuak erabiliz ere, bakardadea ondo baino hobeto isla daitekeela ikus daiteke zenbait argazkitan. Gai horren bueltan gogoeta egiteko espazio bat eskaintzea ere bada helburua.

LEINTZ GATZAGA 21



Eskoriatzatik Gatzagara bidean, Gatz Bideko ongi-etorri arkua. LEINTZ LOTZEN TALDEA

Ginkana eta zuhaitz landaketa izango dituzte Zuhaitz Egunean

Bihar, zapatua egingo dute Zuhaitz Eguna, eta ekintzak Gatz Bidean gauzatuko dituztela iragarri dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Zuhaitz Eguna ospatuko dute Gatzagan martxoaren atarian. Udalak eta Gurel Guraso Elkar- teak elkarlanean antolatuta, zenbait ekintza egingo dituzte bihar, zapatua, goizean zehar.

Plazan elkartuko dira herritar- rarak, 10:00etan, eta Gatz Bide- ra jaitsiko dira ginkana jolase- rako. Haurrekin batera gurasoek ere egingo dituzte zenbait proba; batetik, ondo pasatzeko, eta bes- tetik, zuhaitzen gaineko ezagu- tza handitzeko. "Eskoriatzarai- no jaitsi barik, herritik Gorosa- rri landetxera bitartean egingo

dugu ginkana. Egin beharreko probak egunean bertan adiera- ziko dituzte Guraso Elkarteko kideek", adierazi du Beñat Agi- rreurreta kultura zinegotziak.

Zuhaitz berriak landatuko dituzte udaletxearen inguruan 11:30ean, eta zuhaitz zaharren mantenua ere egingo dute. Amai- tzeko, 12:30ean, luntxa izango dute Toki Eder elkartean.

Eguraldiak baldintzatuta

Eguraldi txarra eginez gero, astebete atzeratuko dutela Zuhaitz Eguna adierazi dute antolatzaileek.



NIRE USTEZ

NEREA GORDEXOLA

Apustu etxeak

Gozotegiak edo tabernak balira, instalatu dira apustu- makinak/etxeak gure inguruan, gizarte kapitalista honek elikatzen duen "doako" adikzio bat sorraraziz. Heroína bezalako drogen antzera zabaltzen ari da jokoa, joko patologikoa, osasun arazo publiko bilakatu dena jada. Partida soil batek suposatzen duen estimulua ez gara kontziente, ezta honek izan ditzakeen ondorioez ere, esajerazio bat bezala interpretatuz eta arduragabekeriak jota, egoera normalizatuz.

Geroz eta jende gazteagoa erortzen ari da engainu honen atzaparretan medio desberdinak erabiliz eta nolabait hipnotizatuz. Telebista piztu, Poker online. Tabernan sartu, *Reta* deritzoguna zuzenean... Lista luzea da, beraz ez naiz honetan entretenituko. Egoera hau izanik, askotan galdetzen diot neure buruari, ea arrisku honetan sartzeko arrazoa, zorte kolpe batek ekonomikoki hauen bizitza konponduko duen pentsatzea ote den. Mota honetako apustu bat irabazten den

bakoitzean, irabazi baino, galdu besterik egiten ez dela ulertzea zaila da askotan. Eta galdu berba aipatzen dudanean, ez naiz diruaz edo imajina dezakegun edozer gauza materialez ari, pertsona baten bizitzan inplikatura dauden arlo desberdinetako galerez baizik. Horregatik, oso garrantzitsua da kontrajartzen den hitz-joko honen logika, buruan izatea une oro.

Eta, zergatik gertatzen da hau? Guztia galduta dagoenean berandu izaten delako maiz.

Gaur emango dute 'Vasco-Navarro tren Arrasaten' lana

Vasco-Navarro tren Arrasaten izeneko dokumentala emango dute gaur, 19:00etan, Leintz Gatzagako liburutegian. Arrasateko Udal Bibliotekak egindako ikus- entzunezkoa emateaz batera, aurkezpene egingo dute gonbi- datu izango diren Olatz Bartolo- mek eta Alberto Loitik.

Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa, 143 kilometroko burdinbidearekin lotu zituen Vasco-Navarro trenak, eta ordubete irauten duen ikus- entzunezkoarekin bidaia bat egingo dute ikus-entzuleek tren horren historian zehar. Besteak beste, Arantza Otaduyren eta Jose Mari Velez de Mendizabalen testigantzak entzun ahal izango dira dokumentalean.

Zapatuan itxiko dituzte Soran etxeko jatetxea eta hotela

Leintz Gatzagan dagoen Soran etxeko hotela eta jatetxea itxi egingo dituzte, bihar, zapatua. Hala eman dute aditzera Sora- neko ugazabek, Loren Larraña- gak eta Montse Valeriok. Eske- rrak eman dizkiete lagundu dieten guztiei eta urte hauetan guztietan bezero izan direnei.

11 urte eta erdi izan dute za- balik Soran etxeko hotela eta jatetxea, eta urte horietan batu zaizkien zenbait faktoregatik itxi beharra dute. Facebook sare sozialean adierazi zuten pasa den astean beraien jarduna utzi- ko dutela, eta herritarrek, lagu- nek, zein bertatik pasatutako zenbait pertsonak zorte on me- zuak idatzi dizkiete.



Iaz, Martxoaren 8an, antzuolarrek Elorregira egindako aldarrikapen martxa. GOIENA

Herritarren arteko berdintasuna aztergai

Udalbatza osatzen dute hiru alderdiek aho batez onartu dute Antzuolako gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren gaineko diagnosia egitea jasotzen duen mozioa. 2020rako Antzuolako udal aurrekontuak ere jasota dauka azterketa hori egitea

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, ate joka dago, eta Euzko Alderdi Jeltzaleak eroandako mozioa izan da hizpide otsaileko ohiko osoko bilkuran. Udalbatza osatzen duten hiru alderdiek aho batez onartu dute, asteen, M8-arekin lotutako adierazpen instituzionala.

EAJren mozioa Eudelek erki-degoko udal guztietan zabaldu duena izan dela azaldu du EAJko zinegotzi Miren Elgarrestak, eta diskurtsotik ekintzara igarotzea txalotu du: "Mozio hone-tan proposatzen diren neurrien artean, lehena azpimarratu gurako nuke; izan ere, bat dator onartu diren aurrekontuetan EAJk eginiko proposamenarekin. Hau da, Antzuolako herrian berdintasunaren gaineko azterketa egitea. Diskurtsotik jaitsi eta ezagutu nahi ditugu zeintzuk diren herriko gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunak. Ekintzak eta praktikotasuna nahi ditugu".

Diagnostikoarekin batera, bestelako neurriak ere jasotzen ditu mozioak. Esaterako, administrazioaren barneko prozedurretan genero ikuspegia txertatzen joatearena. Horregatik, plangintza bat ezinbesteko tresna da erakunde batek genero ikuspegian gidalerroa izan dezan.

Europako Gutunak agintzen du bi urtetik behin horrelako plangintza bat egitea, baina, Antzuolako kasuan, unean uneko egoera aztertuko dute. "Garrantzitsuena da horrelako tresna bat izatea, ekintzak berak eskatuko du zein izango den Antzuolak behar duen maiztasuna: bi, hiru edo lau urtean behin egingo dena", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

"EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EMAKUMEEN SOLDATA GIZONEZKOENA BAINO %23,6 BAXUAGOA DA"

Era berean, Martxoaren 8an kalera irteteko eta mobilizazioetan parte hartzeko dei egin die udalbatzak herritarrei.

Soldata arrakala

Joan den otsailaren 22an, Soldata Berdintasunaren Nazioarteko Eguna izan zen. Horren harira, herriko pentsiodun taldeak gogora ekarri gura izan du EAEen emakumeen soldatak gizonetzkoenak baino %23,6 baxuagoak direla -Espainian, aldiz, %21,9-.

"Emakumeek soldatapean lan gutxiago egiten dute asteen; %14 gutxiago, zehazki. Umeen eta adinekoen zaintzaz arduratzen direlako gertatzen da. Ondorioz, zaintza-lanak eta enplegua bateratzeko hartzen den lan-murrizketaren %95 emakumei dagokie eta soldatan modu negatiboan eragiten die. Eta erretiroan, pentsio txikiagoak izango dituzte, noski", adierazi dute argitaratutako oharrean (Ohar osoa: Goiena.eus/antzuola).

Atletismoaren historia Landatxoperen Kulturaldian

Martxoa kultura-hilabete izendatu du Landatxo pe erretiratuen elkarteak. Egitaraua prest dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzezlan, hitzaldia, erakusketa, kontzertua... askotariko ekintzak antolatu ditu Landatxo pe martxorako. Izan ere, martxoaren 12tik 25era bitartean ospatuko dute Kulturaldia.

Martxoaren 12an, antzerki emanaldiaz gozatuko dute, ONCEkoen *Algo habrán hecho* ikuskizunarekin, Torresoroan, 18:00etan. 14an, Antzuolako kirolaren eta nagusiki atletismoaren historiari jardungo du Jose Inazio Garitanok, Torresoroan, 11:00etan. Erakusketa jarriko dute martxoaren 21ean, 22an, 28an eta 29an, Orlanen (18:30-20:30). Martxoaren 17an, Umore Ona Ordiziako erretiratuen abesbatzak emanaldia eskainiko du Torresoroan, 18:30ean. Martxoaren 18an, Antzuola ezagutzeko ibilaldia egingo dute erretiratuek, 17:00etan.



Antzuolarrak maratoian. J.I. GARITANO

Martxoaren 25erako, eguazte-na, merienda antolatu dute eta Landatxopen sorpresaren bat egongo dela aurreratu dute, 18:15ean hasita. Kulturaldia borobiltzeko, martxoaren 31rako, Leitzako Peru Harri museora bisita eta bazkaria antolatu dute.

Gipuzkoako Mus Txapelketa jokatu da zapatuan Seguran

Euskal Herriko XII. Mus Txapelketak zazpi herrialdeko kanporaketak jokatu ditu zapatuan, hilaren 29an. Gipuzkoako herrialdeko kanporaketa Seguran, Baratze frontoian, jokatu da, arratsaldeko hiruretan hasita. Bertan izango dira bailarako ordezkariak; tartean daude Antzuola ordezkariak duten lau bikoteak ere.

Zabortegia, bidesaria eta hauteskundeak gaur aztergai

Herritarrendako batzar irekiak egingo ditu Antzuolako EH Bilduk. Besteak beste, apirilaren 5eko Euskal Autonomia Erki-degoko hauteskundeak, Epeleko zabortegia eta bidesariak izango dituzte aztergai batzar horietan herritarrek.

Guztira, baina, bi batzarretan parte hartzeko dei egin diete antzuolarrei: otsailaren 28koan

Emakumezkoen San Isidro txapelketa bigarren egingo da

Aurten ere emakumezkoen San Isidro pilota txapelketa antolatu du Olalde elkarteak. Hala, maiatzaren 16an, San Isidro festaren baitan, arratsaldeko jokatu dira finalak. Partiduak, aldiz, domeka goizetan jokatu dituzte. Parte hartu gura dutenak martxoaren 15a aurretik eman beharko dute izena, olalde.pilota@gmail.com helbidean.

eta datorren martxoaren 4an egingo den batzarrean, hurrenez hurren.

Lehen batzarra, esan bezala, gaur egingo da, Orlango areto nagusian, 18:30etik 19:00etara bitartean. Bertan, dokumentazioa banatu eta azalpenak emango dituzte.

Bigarren batzarra martxoaren 4an egingo da, 18:30etik 20:00etara bitartean, Orlanen. Ekarpenak jaso eta eztabaidatu egingo dituzte Antzuolako EH Bilduren posizioa erabakitzeko.

GOIENA TELEBISTA

UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA

Naroa Urien Berrio ARRASATE

Denboraldi berrian ez dira orain arteko hainbat saio faltako, eta zenbait berrikuntza ere izango dira tartean. Kontuan hartu beharreko berezitasun nagusienetako bat, Goiena telebistaren kanal aldaketa izango da.

Kontzertuak, etxetik

Kooltur Ekintzak elkartearekin elkarlanean, eguenero Arrasateko gaztetxean egiten diren kontzertuak telebistaz ikusteko aukera eskaintzen du Goiena telebistak. Telebistan eskainita, *Goiena.eus* webgunean ere ikus daitezke kontzertuak nahieran.

XX. mendea. iruditan

Martxan da *Hala bazan* saioaren denboraldi berria; gizarte gaiez gain, kirola, jaiak, bertsolaritza, euskara... Arrasate Telebistaren artxiboari hautsa kentzen jarraituko du Goiena telebistak datozen asteetan. Urri amaieran hasi zen Goiena ATBren duela 30 urteko irudietan oinarritutako saioa egiten. 1990eko hamarkadako hainbat kontzertutako irudiak berriro pantailaratu ostean, askotariko gizarte gaiak ekarri zituen gogora ostean etorri ziren ataletan.

Kirol kontakizunak

Kirol federatuaren bueltan astero egoten diren partiduekin batera, egutegiak bestelako hitzordu asko gordetzen ditu: mendiko lasterketak, automobilismo probak, txirrindularitza, herri mailako krosak... eta astelehenero horiek batzen ahaleginduko dira *Harmailatik* saioan. Duela hiru urte sortutako Barru saioak ere, berriz, jarraipena izango du aurten ere.

Debagoiena, kantari

Debagoienean barrena, herriz-herri, zazpigarren aldiz egingo du bira *Kantari* saioak. 7-11 urte



bitarteko debagoiendar neska-
mutikoak izango dira protagon-
ista nagusiak, beste behin, eta
berrikuntza ugarirekin da buel-
tan karaoke ikuskizun arrakas-
tatsuena.

Ikasleak, kazetari lanetan

Seigarren denboraldia bizi du aurten *Galdegazte* saioak. Seigarren urtez jarraian, Debagoieneko hamar ikastetxetako 14 eta 17 urte arteko ikasleek kazetari lanetan jarduteko aukera izango dute. Betiere, ikasleen intereseko gonbidatuekin.

'Harira', hauteskundeetan ere

Harira elkarrizketa saioa Eneko Azkaratek aurkezten du eta *Harira eztabaida*, berriaz, Goiatz Aranak. Asterokoa da, hama-bostean behin formatu bakoitza. Goienera telebistak, gainera, saio bereziak egingo ditu apirilaren 5erako deituta dauden Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak direla-eta. Esaterako, bokoitza egunean, zuzenean, unean une-ko emaitzen berri emanez eta iritzi, analisi eta balorazioekin.

Gaurkotasuna oinarri

Hiru urte bete ditu *Hemen Debagoiena* saioak. Jadanik finkatuta datoz egindako azken berrikuntzak. Batetik, Aitor Agirianok astero umorez dakarren *Zirikatzan* tartea. Mikrofonoa eskuetan, kalera doa debagoiendarrei galdera xelebreak egitera. Eneko Azurmendik, Debagoienetik kanpo bizi diren debagoiendarrak elkarrizketatzen ditu astero: Txinan, Mexikon... Euskalmeteko adituen eskutik, eguraldiaren iragarpena ere jasotzen da barikuetan.

Kanal aldaketa

Gogoratu, azkenik, telebista antena bidez jasotzen dutenek egokitzen ahal izateko.

Udaberrirako indarberrituta

Goiena telebistaren hogeigarren urtean, zazpi izango dira programazioaren gune nagusiak: 'Hemen Debagoiena', 'Harira', 'Kantari', 'Galdegazte', 'Kooltur', 'Hala bazan' eta 'Harmailatik'. Apustu freskoa, hurbila eta euskaraz, LTDko kanal berrian

Koiltur Ostegunetako sortzaileak, baita Goiena telebistan ere

Oihane Agirre ARRASATE

Koiltur Ekintzak elkartearekin elkarlanean, eguenero Arrasateko gaztetxean egiten diren kontzertuak telebistaz ikusteko aukera eskaintzen du Goiena telebistak. Behin telebistan eskainta, *Goiena.eus* atarian ikus daitezke kontzertuak nahieran.

Orain arte eskaintako kontzertuen artean, hainbat talde

ezagun daude: Inoren Ero Ni, Sua, Ro, Mokers...

Gaur, Xabi Bandiniren kontzertua ikusteko aukera izango duzue, 23:00etatik aurrera. Kerobia taldeko abeslaria izan zen hura eta 2018. urtean ekin zion bakarkako ibilbideari. Durangoko Azokan aurkeztu berri duen *Biba!* diskoa aurkeztu zuen Arrasateko gaztetxean.



Xabi Bandini. GOIENA

Butragueño ATBn, San Martzial Bergaran eta Susana Arregi

Martxan da 'Hala bazan' saioaren denboraldi berria; gizarte gaiez gain, kirola, jaiak, bertsolaritza, euskara...

Julen Iriondo ARRASATE

Arrasate Telebistaren artxiboa-ri hautsa kentzen jarraituko du Goiena telebistak datozen asteetan. *Hala bazan* saioak lehen sortarekin izandako arrakastaren ondotik, martxan da, dagoneko, bigarrena, gai berrieekin.

Urri amaieran hasi zen Goiena ATBren duela 30 urteko irudietan oinarritutako saioa egiten. 90eko hamarkadako hainbat kontzertutako irudiak berriro pantailaratu ostean, askotariko gizarte gaiak ekarri zituen gogora hurrengo ataletan. Urte



Emilio Butragueño ATBn. ATB

amaierarekin, santamasekin eta Gabonekin lotutakoak etorri ziren.

Arrasateko playback jaialdiak eta Aratusteen gainekoak jaso dituzte denboraldi berriko lehen saioek, eta datozenek beste hainbat gai jorratuko dituzte; adibidez: kirolean, Cesareo Gabarainen omenez Atxabalpera jokatzena etorrita, Real Madrilgo jokalaria Emilio Butragueñok ATBrentzat berba egin zueneko; jaietan, Maritxu Kajoi, Oñatiko Corpusak eta Bergarako San Martzial; euskarari dagokionez, *Euskaldunon egunkaria*-ren sorrera; eta baita hirigintza kontuak ere, eskualdeko herriek 30 urtean izan duten eraldaketa.

Gizarte gai gehiago ere izango da: Jon Salaberri eta hiesa, Susana Arregiren gorpuari Oñatin egindako harrera...



Denboraldiko lehen *Barru* saioak kirol inklusiboa gertuagotik erakutsiko du. X.U.

'Harmailatik' eta 'Barru': kirolen kontakizuna, beste modu batean

Asteburuko kirol ikuskizunek azkartasuna eskatzen dute, eta istorioen kontakizunek beste patxada bat


Mireia Bikuña ARRASATE

Debagoienean kirol hitzorduek badiutuzte jarraitzaileak. Kirol federatuaren bueltan astero egoten diren partiduekin batera egutegiak bestelako hitzordu asko gordetzen ditu: mendiko lasterketak, automobilismo probak, txirrindularitza, herri mailako krosak... eta astelehenero horiek batzen ahaleginduko dira *Harmailatik* saioan. "Denbora gutxi izaten da asteburuko materialari forma emateko, baina berehalakotasunak du hor indarra, duela ordu gutxi gertatu den

hori lehenbailehen telebistara eta *Goiena.eus* atarira ekartzea", dio saioaz arduratzen den Xabier Urzelaik.

'Barru': protagonistak, gertutik

Duela hiru urte sortutako *Barru* saioak, berriz, jarraipena izango du aurten ere: "Beste erritmo bat eskatzen du formatu horrek, bai grabatzeko orduan, eta baita editatzekoan ere. Gaiaren aukeraketa ere ezberdina da, protagonista bat eta haren jarduna barrutik ezagutzea delako helburua".



Hemen Debagoiena

- Egunero
- D18:00/20:00/22:00

Gaurkotasuneko gaiak hainbat formatutan lantzen dituen saioa, astelehenetik egubakoitzera emititzen dena. Elkarriketak, erreportajeak, atzerrian bizi diren debagoiendarrak ezagutzeko aukera, eguraldi iragarpena asteburuari begira, *Zirikatzan* tarte umoretsua... Goiatz Aranek zuzendu eta Txomin Madinak aurkezten duen saio freskoa.



Albisteak

- Egunero
- 14:30/16:15/17:00/17:45

Eguneroko albistegia da. Unean uneko albisteak, egunekoak eta gertukoak, albistegien formatuan eskaintzen dira. Hain zuzen ere, lekukoen eta protagonisten testigantzekin osatuta eta berriemaileek bertatik bertara kontatuta. Asteburura begira, astean zehar landutako albiste nagusiek osatzen dute *Asteko errepasoa* ize-neko saioa.



Harmailatik

- Astelehena.
- 21:30 eta 23:30

Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista dituen saioa. Asteburuko kirol kronikak, elkarriketak, erreportajeak... Debagoienean antolatzen diren kirol hitzordu garrantzitsuei ere tarte zabala eskainiko die saioak; Debagoienean antolatzen diren mendi lasterketei, esaterako: Aloñako igoera, Arrasate-Udalatz mendi lasterketa...



Harira

- Martitzena
- 21:30 eta 23:30

Harira saioak bi formatu ditu: batetik, *Harira eztabaida* saioa, Goiatz Arana kazetariak gidatutakoa. Gaurkotasuneko gaiez berbetan, Debagoieneko ordezkari politikoak mahaiaren bueltan elkar-tzen dituen. Bestetik, *Harira* elkarriketa saioa; gori-gorian dauden gaurkotasuneko gaiak lantzen ditu Eneko Azkaratek kazetariak.



Osoko bilkura

- Zapatua, 19:00
- Domeka, 12:00/22:00

Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko udalen ohiko osoko bilkurak eskaintzen ditu Goiena telebistak. Hilean behin izan ohi dira aipatutako hiru herri horietako ohiko osoko bilkurak eta Goiena telebistak osorik jasotzen ditu, ostean eskaintzeko. Telebistaz ez ezik, nahieran ere ikus daitezke hiru herri nagusienetako osoko bilkurak.



Hauteskundeak

- Apirilak 5
- 19:45

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak jarraipen berezia egingo die Goiena telebistak. Hauteskunde kanpainaren sasoian, alderdi politikoetako ordezkariekin mahai-inguruak eta elkarriketak. Hauteskunde gauean, zuzeneko saio berezia ekoiztuko du Goiena telebistak, 19:45ean hasita eta Goiatz Aranek eta Txomin Madinak aurkeztuta.

Kantari: euskal kantuak, artista txikien eskutik

Bueltan da Kantari, Debagoieneko karaoke ikuskizun ezagun eta arrakastatsuena, irudi berrituarekin eta hainbat berrikuntzarekin. Eskualdeko 1.000 umek parte hartuko dute, herriz herri oholza gainera igo eta euskal kantuak abestu eta dantzatzuz

Aitor Agiriano ARRASATE

Debagoieneko artista txiki baina handi diren 7-11 urte bitarteko umeen eskutik, euskal kantuen festaz gozatzeko aukera izango da Goiena telebistan. Hiru saio berri estreinatuko dira astebururo: lehenengo, Oñatiko neska-mutikoein ekoiztutako saioak izango dira ikusgai; jarraian, Aretxabaletakoak etorriko dira; Arrasatekoak gero; eta, azkenik, Bergarako emanaldiak izango dira gozagai, hurrenez hurren.

Berrikuntzaz betea

13 urte pasatu eta gero, kantu berri martxoso eta itsaskorra dena estreinatuko dute ekoiztutako 38 saio hauetan. Gauargiko erromeria taldeko kide Amaia Txintxurretak eta Asier Castrok sortua dena. Horrez gain, aurkezte berria izango du saioak, Beñat Arizabaleta arituko da eta aldi berri honetan Aitor Agiriarenekin batera saioa gidatzen.



Beñat Arizabaleta eta Aitor Agiriano, saioko aurkezleak. IMANOL SORIANO

Bestetik, argi koloretsuz osatutako dekoratu berria ere estreinatuko du karaoke ikuskizunak.

Gonbidatu bereziak

Hainbat sorpresa eta gonbidatu berezi izango dira saio berrietan: *La voz* saioan egondako Aierdi Alberdi oñatiarra, Aretxabaletako Jaiki elkarteko dantzariak,

Lekaixoka bertso eskolako lagunen oparia, Disney Channel katean aurkezte lanetan dabilen Ane Rot arrasatearra, eta beste hainbat.

Hala, saioko protagonista diren umeein eta gonbidatuekin batera asteburuak kantuan eta dantzaz ospatzeko aukera dakar Kantariren 7. aldian.



Arizmendiko Almen guneako ikasleak eta Jokin Bereziartua, Ibai Zangiturekin. GOIENA

'Galdegazte': ikasleak kazetari lanetan, seigarren urtez jarraian

Gonbidatuen artean daude Mireia Gabilondo, Aitor Mendizabal eta Ibai Zangitu; eguazteneko, 21:30ean

Jokin Bereziartua ARRASATE

Seigarren denboraldia bizi du aurtur *Galdegazte* saioak. Seigarren urtez jarraian, Debagoieneko hamar ikastetxetako 14 eta 17 urte arteko ikasleek kazetari lanetan jarduteko aukera izango dute. Betiere ikasleen intereseko gonbidatuekin, honako izen hauek aurreratzeko moduan daude: Mireia Gabilondo zuzendari eta aktore bergararra, aurtur pilotari profesional izateari utzi dion Aitor Mendizabal antzuolarra eta bailarako Aratuste-zale ezagunena izateaz gain beste

hainbat aurpegi azaleratuko dituen Ibai Zangitu aretxabaletarra, besteak beste.

Platotik haragoko lanak

Platoko elkarriketaz gain, ikasleek bestelako lan batzuk ere izango dituzte aurtengo saioan eta dekoratuan ere izango da nobedaderik. Aldatu ez dena da hasierako helburua: egun batez bada ere bailarako nerabeak kazetari sentiaraztea, telebista plato baten egoteak dakarren guztiarekin. Eguaztenetan ikusi ahal izango da, 21:30ean.



Kantari

- Zapatu eta domeka
- 09:00 eta 17:00

7 eta 11 urte arteko gazte txoak protagonista dituen saioa da *Kantari*. Zazpigarren aldian da Debagoieneko saio hau ekoizten dena. Mila gaztetxo inguruk parte hartuko dute saioan eta, guztira, 38 saio eskainiko dira, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin eta Bergaran grabatutakoak. Beñat Arizabaleta aretxabaletarrak aurkezten duen saioa da.



Galdegazte

- Eguaztena
- 21:30

Seigarren aldi honetan ere, Debagoieneko hamar ikastetxetako 14 eta 17 urte arteko gazteek kazetari lanetan jarduteko aukera izango dute *Galdegazte* saioan. Oraingoan ere, Debagoieneko hainbat pertsona ezagun pasako dira platotik: Mireia Gabilondo, Ibai Zangitu, Aitor Mendizabal... Gazteek gazteendako egindako elkarriketa saioa freskoa.



Kooltur

- Egubakoitza
- 23:00

Kooltur Ekintzak elkarrekin elkarlanean ekoiztutakoa. Eguenero antolatzen dituzte kontzertuak Arrasateko gaztetxean, eta ostean, Goienak telebistaz ez ezik nahieran ere eskaintzen ditu. Izen handiko sortzaileak igo dira oholtzara: Inoren Ero Ni, Sua, Ro, Xabi Bandini... Etorriko diren artean izen ezagunak badira; Skakeitan, esaterako.



Hala bazan

- Eguena
- 21:30 eta 23:30

Arrasate Telebista 1990ean sortu zen eta urteetan irudi artxibo oparoa osatu zuen. Horiek orain berriro ikusteko aukera eskaintzen digu *Hala Bazan* saioak. Bigarren denboraldi honetan, 90eko hamarkadako Aratusteen gainera atalak izan dira lehenengoak; ostean datoz bertsolaritzari eskainitakoa eta sasoiko kirol talde eta kirolariena.



Barru

- Martxoak 24
- 21:30 eta 23:30

Errugbi inklusiboan oinarrituta, lan-saio bikaina antolatuta zuten Mojategin. Kuadrilla polita bildu zen berdegunean; tartean, Beñat Barrutia: goiz-pasa polita egin zuen errugbiaren aitzakian. Xabier Urzelai kirol kazetaria ere bertan izan zen saioa gertutik jarraitzen. Hementxe, beraz, *Barru* saioaren denboraldi berriko lehen protagonista.



Elkarriketap

- Eguaztena
- 21:30 eta 23:30

Euskal Herrian barrena, arlo askotariko hainbat pertsonaia ezagun; bakoitzaren ofizioaz haratago, gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen digun elkarriketa saioa. Denboraldi honetan, esaterako: Izaro, Tor magoa, Aizpea Oihainer... Elkarriketatzaileen artean ere, ezagunak diren kazetariak: Juan Kruz Lakasta, Ana Goitia eta Joni Ubida, esaterako.

Elkarrizketa, eztabaida eta zuzeneko saioak

'Harira' saioa klasiko hutsa da Goiena telebistan. Urteak daramatza alkateak, zinegotziak eta beste erakunde batzuetako herri ordezkariak elkarriketatzeko. Azkenaldian, gainera, bi formatutan eta bi aurkezlerekin

Oihane Agirre ARRASATE

Elkarrizketa saioa Eneko Azkaratek aurkeztu du eta *Harira eztabaida*, berriz, Goiatz Aranak. Asterokoa da, hamabostean behin formatu bakoitza. Martitzenetan emititzen dira saioak, elkarrizketa formatuan 21:30ean eta 23:30ean eta eztabaida 21:00etan eta 23:00etan.

Elkarrizketa formatuan, azken hilabete hauetan ari dira Debagoienetik kanpoko erakundetako ordezkariak elkarriketatzeko, betiere, eskualdeko herri-tarrei interesekoak izan ahal zaizkien gai eta ikuspuntuekin. Eduardo Zubiaurre Confesabeko presidentea, Garbiñe Aranburu LABeko idazkari nagusia eta Garbiñe Mendizabal Diputazioako Euskara zuzendaria dira *Harira* saioa platotik pasa direnetako batzuk. "Datozen astetan, Bai Euskarari elkarteko zuzendari Rober Gutierrez eta Realeko emakumezkoen saileko zuzendari Garbiñe Etxeberría



Garbiñe Mendizabal, *Harira*-n. GOIENA

ekarri nahi ditugu", dio Eneko Azkaratek. Bestetik, Goiatz Aranak gogorarazi du ahalegin berezia egin dutela gaurkotasunezko gaien gainean Debagoieneko alderdi ezberdinetako legebiltzarkideekin mahaiaren

bueltan eztabaidatzeko. "Bide beretik jarraituko dugu hauteskundeak bitartean EH Bildu, EAJ, Elkarrekin Podemos eta PSE-EEko ordezkariekin", dio.

Hauteskundeak bistan

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak deituta daude apirilaren 5erako. Goiena telebistak saio bereziak antolatu ditu. Bozketa egunean, zuzen-zuzenean, 19:45etik aurrera. Zuzeneko konexioekin, uneen uneko emaitzen berri emanez eta iritziz, analisi eta balorazioekin. Txomin Madinak eta Goiatz Aranak aurkeztuta.

Horretaz gain, mahai-inguru eta elkarrizketa bereziak eskainiko ditu hauteskunde kanpaina, Gipuzkoan aurkeztuko diren zerrenda nagusietako hautagaiekin: Bakartxo Telleria (EAJ), Maddalen Iriarte (EH Bildu), Eneko Andueza (PSE-EE)... Gipuzkoako euskarazko beste toki telebistekin batera.



Txomin Madina, *Hemen Debagoiena* saioan. GOIENA

Egunerokoari gainbegiratu egiten dio 'Hemen Debagoiena'-k

Egunero gaurkotasuneko gaiak gertutik eta sakon jorratzen dira Txomin Madinak aurkeztu duen saioan

O.A. ARRASATE

Goiena telebistako erreferente bilakatu da *Hemen Debagoiena* saioa, eguneroko saioa da eta. Hiru urte bete ditu, baina, betiere, berritzen joan da, formatu berriak landuz. Jadanik finkatuta datoz egindako azken berrikuntzak. Batetik, Aitor Agirianok astero umorez dakarren *Zirikatzan* tartea. Mikrofonoa eskuetan, kalera doa debagoiendarrei galdera xelebrek egitera. Eneko Azurmendik Debagoienetik kanpo bizi diren debagoiendarrak elkarriketatzeko dituzte astero: Txinan, Mexikon,

Suedian... non ez dago debagoiendarrik! Bertan bizi dutena bertatik bertara kontatzen dute protagonistek.

Eguraldiari tartea eguneroko

Euskalmet-eko adituen eskutik asteburura begira jartzen da *Hemen Debagoiena* saioa, eguraldiaren nondik norakoen berri emateko. Tarte honetan, debagoiendarrek bidalitako argazkiak, eguraldiarekin zerikusia dutenak, erakusten dituzte. Zuk jasotako irudiak, bideo nahiz argazkiak, 688 69 00 07 Whatsapp zenbakira bidali beharko dituzu.

Kanal aldaketa eginda, telebista berriz sintonizatzeko unea da

Antena-jartzaileek antena kolektiboetan egokitzapenak egin ondoren, kanalak berriz sintonizatu behar dira

O.A. ARRASATE

Goiena telebista, Euskal Telebistaren lau kateak, T5, A3... horiek denak kanalez aldatu dira, eta, berriro ikusteko, egokitzapenak egin behar dira antena kolektiboan. Kontuan hartu behar dugu Lurreko Telebista Digitalaren seinalea (LTD) jasotzen duten etxeetan izango duela soilik eragina aldaketak.

Beharbada, orain, Debagoieneko etxebizitza batzuetan ez da Goiena telebista ikusiko. Berriro ikusteko, gure etxebizitzak duen antenari erreparatu

beharko diogu. Antena kolektiboa bada, hainbat egokitzapen egin beharko ditu antena-jartzaileak. Behin lanak amaituta, norberak etxeko telebista berriz sintonizatu beharko du, frekuentzia berrian dauden telebistak topatzeko. Familia bakarreko etxeetan, nahikoa izango da berriro sintonizatuta. Behin telebistan bilaketa eginda, gogoko kanalak norbere gustura ordenatzeko aukera eskaintzen du telebistak. Aukera dago, beraz, euskarazkoak diren kanalak lehen aukeren artean jartzeko.

Zelan ikusi berriro Goiena telebista



Egokitzapenak antenan

Antena kolektibotik jasotzen badu zure telebistak seinalea, antena-jartzaileak egokitzapenak egin beharko ditu. Behin lanak amaituta, goian ikus dezakezun oharra jarriko du antena-jartzaileak zure atarian.



Berriro sintonizatu

Telebista berriro sintonizatu beharko dugu kanalak berriak topatzeko. Kanalen bilaketa hau modu automatikoa edo eskuz egin dezakegu urrutiko agintearekin. Gogoratu 25. kanalean dagoela Goiena.



Kanalak ordenatu

Berriro ere sintonizatu ostean, gogoko kanalak norbere gustura ordenatzeko aukera eskaintzen digu telebistak. Hain zuzen, urrutiko agintearekin editatu kanalak eta jarri gogokoen artean Goiena telebista ere.

"Egun entzuten dudan musika aitari zor diot"

LIBE VALVERDE MUSIKARIA

Liv Wallace bakarlariaren ifrentzuan Libe Valverde musikari antzuolarra dago. Gitarra eskuan, talde ezagunen kantuen bertsioak egitea gustuko duela aitortu du

Maidar Arregi ANTZUOLA

29 urte ditu Libe Valverde antzuolarrak. Ikus-entzunezko Zientzietan eta Turismoan da lizentziaduna. Aspalditxo, ordea, musikari estuki lotuta, Liv Wallace gisa zuzenekoak eskaintzen ari da. Gitarra eskuan, sekulako oihartzuna lortu du sare sozialetan.

Noiztik musikarekiko zaletasuna?

Gitarra eskolak jasotzen hasi nintzen 8 urte inguru nituela; izan ere, gurasoek Musika Eskolan apuntatu ninduten sasoi hartan. Gitarra klasikoarekin hasi nintzen orduan. Baina, egiari zor, benetako zaletasuna 16 urte nituela sortu zitzaidan, kontzertuetara joaten hasi nintzenean. Musikan bazela zerbait gustuko nuena sentitu nuen punk-oi! estiloko zuzenekoetan. **Eta orduan erabaki zenuen gitarra-rekin segitzea?**

Gurasoek betidanik irakatsi didate musika maitatzen. Baina zuzeneko haietan, barruan neramane azaleratu zitzaidan eta gitarra elektrikoa ikasteari ekin nion, Arrasaten. Gitarra jotzeko pasioa, beraz, 16 urterekin piztu zitzaidan berriro.

Ettxeko transmisioa ere hor dago. Barruan zeneramane azaleratu zitzazun.

Bai. Nire aitak betidanik jarri dit musika etxean; bereziki, country estilokoa. Orduan, bestelako musikan nuen arreta jarrita; baina denborarekin ohartu naiz aitaren musika hura gustutako dudala, eta orain, neuk entzuten dut; aitak, aldiz, nik gustuko dudana musika entzuten du orain. Hein handi batean, entzuten dudana musika aitari ere zor diot.

Abesti ezagunen bertsioak egiten dituzu eta sare sozialetan oihartzun handia izan duzu.

Bai; abestien %99 bertsioak, *cover*-ak, dira. Baina baditut abesti propioak idatzita ere. Argitaratuta, soilik bakarra,



Libe Valverde musikaria gitarra alboan duela. LIV WALLACE

"ORAINDIK AUSARDIA PIXKA BAT FALTA ZAIT IDATZITA DITUDAN KANTU PROPIOAK ARGITARATZEKO"

Chapter one izenekoa. Nire abestiak publikatzeko urratsa ez dut egin oraindik. Ausardia falta zait eta beldur pixka bat ere badaukat. Aurrerago, gurako nuke maizago nire kantuak argitaratu. Izan ere, arrakasta duen abesti baten bertsioa egitea niretzako errazagoa da. Jendea gustatzen zaio taldea gustatzen zaiolako.

Youtube aukeratu zenuen hasieran. Hasi nintzenean, momentuko sare soziala zen Youtube. Orain, aldiz, Instagram eta Facebook erabiltzen ditut Youtubekoari oihartzuna emateko. Instagrami esker, minutu bateko *klib*-a munduko edozein tokitara irits daiteke.

Zuzenekoak eskaintzen hasi zara. Halaxe da, zuzenekoak pixka bat egokitzen ditut ikus-entzuleen arabera. Gehiegi arriskatu gabe gustuko dut ikusleek gogoko

duen kantu horiek jotzea. Baina eroso sentiarazten nauten abestiak dira nagusi; zuzenean bermea emango didatenak. Ingurukoek, lagunek zein etxekoek, asko animatu naute eta ikusi dute ez dela denbora-pasa bat eta serio hartzen ditudala zuzeneko emanaldiak.

Zu eta zure gitarra taula gainean. Bertigo pixka bat emango du, ala?

Hala da; ni, nire ahotsa eta nire gitarra nire urduritasunarekin. Gogoan dut lehen zuzeneko Antzuolan orain sei bat urte. Oso urduri irten nintzen herriko ezagunen aurrera. Orain, nire buruarengan konfiantza badaukat eta beldur barik irte ten naiz. Disfrutatu egiten dut eta, egiten dudana gustura nagoenez, nik uste dut transmititu egiten dudala sentsazio hori.

Sarean jendeak zutaz duen iritzia nola daramazu?

Kritika konstruktiboa bada, onargarria da; ahotsari dago-kionez, beti dago zer hobetu. Baina ulertezina da nire tatua-jeekin eta itxurarekin sartzen badira. Youtuben jasotzen ditudan mezu asko ere besteen kanalak iragartzeko dira.



Erretiratuak martitzenean Landatxopen mozorrotuta. MAIDER ARREGI



Zapato eguerdian Oinarineko gaztetxoek dantza-saioa. JONE OLABARRIA

Kolore-festa eta umorea izan dituzte lagun Aratusteetan

Aratuste-martitzena herriko erretiratuendako ezinbesteko mozorro-festa eguna izan da aurten ere

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gazte, heldu zein nagusi, antzuolar orok bat egin du Aratuste-festarekin. Eskolako haurrek egubakoitzean hasita berotu zituzten motorrak. Zapatuan, berriz, herritarrak kalera irten ziren kolorez eta umorez Aratusteak ospatzera. Giro aparta lagun, 180 herritar inguruk par-


te hartu zuten eguerdiko Aratuste-dantzen saioan.

Aratuste-martitzena

Erretiratuak Aratuste-martitzenez gozatu zuten eta 70 lagun batu ziren mozorro-festara. Landatxoeko batzordeko kideek umorea badute, eta erlezain eta erle mozorroak jantzi zituzten.

Hezkuntzaren historia, jasota

Iñigo Ramirez de Okariz historialariak Antzuolako hezkuntzaren historia jasotzen duen liburua aurkeztu du. Mendez mende euskal hezkuntzak eta Antzuolakoak izandako testuinguruak landu ditu. Datozen bi asteburuetan, XX. eta XXI. mendeetako hezkuntza eta eskola ulertaraztea helburu duen erakusketa izango da Olanen.



"ANTZUOLA 1900-1970"



'Goibekokale' aldizkariko Jentrebistak, Horroskopoa eta Bapatian atalak. L.Z.L.

25 urte, 'Goibekokale' herriko euskarazko hilabetekaria sortu zela

Gazte asanbladatik bultzatua, sei urte eta erdiko ibilbidea izan zuen, eta Elgetako etxe askotan euskaraz irakurri zen lehen argitalpena izan zen. 16 eta 25 urte bitarteko gazte talde batek hartu zuen lema. Herriar askoren babesa izan zuen proiektuak

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Hotelaren zein eskola berriaren irekierak, Aitor Elkororen urterik onenak, gaztetxearen urteurrenak, gas biltegiaren inaugurazioa, AEKren udako barne-egitokiak... Askotariko kronikak irakur daitezke *Goibekokale*-ko orrietan, baina batez ere elgetar askori egindako elkarrizketak eta, eskatuta, herritarrek idatzitako iritzi artikulak. Arratsalde pasa ederrak egin daitezke, oraindik ere, hilabetekariaren 71 zenbakiei begira. Zenbait etxetan txukun gordeta dituzte zenbaki guztiak, eta udal liburutegian ere kontsulta daitezke.

Laster beteko dira 25 urte hilabetekaria jaio zela. Ana Gillegi izan zen *Goibekokale*-ko lehen koordinatzailea. "Ardurak banatu behar ziren, eta horrela tokatu zen", dio irribarrez. "Lagun taldea elkartu ginen eta

ikusita euskarazko hedabideak sortzeko inguruan zegoen mugimendua antzerako zerbait egitea pentsatu genuen. Oroitzapen oso politak ditut. Gogoan dut aparteko erantzuna jaso genuela herritarrengandik".

Gogoan du maketazio lanak egiteko ordenagailua Joakin Gastezik ordaindu zuela. "Garai haietan 600.000 pezetako dirulaguntza potolo bat eman zigun. Eta Ozkarbi elkarteak lagatako gela batean hasi ginen. Publizitatea ere sartzen zen. Iragarleek bazekiten aparteko irabazirik ez ziela ekarriko, baina lagundu egin nahi zuten, eta hor egon ziren. Batzuk, hilerok".

Euskararen aldeko proiektu bat izan zela azpimarratu du maketazio lanetan ibili zen Bittor Gallastegi elgetarrak. "Hor ibili ginenak nahi izan genue-lako ibili ginen, eta gauza asko

zeuden egiteko. Dena genuen ikasteko. Nire ustez elgetar askoren lan anonimoari esker atera zen proiektua aurrera".

Goibekokale hamasei orriko hilabetekaria zen, eta hilabete hasieran banatzen zen etxek

etxe. Batzuetan gehigarri bereziak ere argitaratzen ziren, batez ere jaietan.

Dena ikasteko

"Ez genuen esperientziarik eta nahiz eta batzuk kazetaritza ikasten egon kazetari ere ez ginen. Formazioa behar genuen eta inguruan antolatzen ziren ikastaroetara joaten ginen. *Arrasate Press*-ek asko antolatzen zituen", gogoratzen du Gillegik. Gogoan du kale-inkestek, argazki zaharren atalak eta *Bapatian* elkarrizketa sailak harrera oso ona izaten zutela.

Erredaktore lanetan jardundako Ainara Iribar ibili zen, besteak beste, elkarrizketa horiek egiten. "Ez zuen inork agertu nahi izaten, eta zaila izaten zen elkarrizketatuak lortzea, baina galdera pikantetxoendako tartea izaten zen, eta jendeak gustura irakurtzen zuen".

Erredakzioko kide izandako Oxel Erostarbek bereziki gogoan ditu jaien, Asentzio Egunaren eta Inauterien ostean kaleratzen ziren zenbakiak argazki pilarekin joaten zirelako. "Zenbaki horiek harrera oso ona izaten zuten. Gogoan dudan beste gauza bat da zeinen gazteak ginen; 15-25 urte bitartekoak izango ginen". Iritzi-emaileak eta kolaboratzaileak ere asko ziren. Tarteka herritarrek idatzitako gutunak ere iristen ziren.

Argazki garrantzitsuenak Txuri-Beltz Argazkizale Elkarteko Josetxo Arantzailek ateratzen zituen. Kultura etxeko laborategian errebelatzen zituen. Paperera pasa eta eskaneatu egin behar izaten ziren. "Ez zegoen digitalik, eta azken aste bukarran ibiltzen ginen presaka". Bittor Gallastegik ere gogoan ditu azken orduko presak. "Bu-

kaera beti izaten zen esprintean. Bakoitzak gure zereginak izaten genituen, eta *Goibekokale* izaten zen asteburuetako kontua. Suposatu zuen lana, eta hasierako zenbakietan ikusten da ez gine-la oso onak. *Eta Kitto* aldizkari-ra buelta batzuk egin genituen ikasteko. Gertu inprentatik ere asko laguntzen ziguten".


Aldizkariak inprentatik jaso, etiketak eskuz idatzi eta banatu ere egin behar ziren. "Banaketa gaztetxoek egiten zuten hasieran, eta postaz ere asko bidaltzen genituen kanpoan bizi ziren elgetarrek horrela eskatzen zutelako", dio Iribarrek.

Dirua ateratzeko txosna jartzen zuen *Goibekokale*-k jaietan, eta salmentara ateratako kamiseta batek baino gehiagok eman zuen zeresana.

Euskara hutsean


"Garai haietan Elgetako etxeetan euskaraz sartu zen ia gauza bakarra *Goibekokale* izango zen", dio Erostarbek. "Gaztetxetik gauza asko egin ziren, baina nire ustez hau izan zen garrantzitsua; Elgetako albisteak elgetarrek idatzita". Elgetako euskararen ere bazeuden atal batzuk. Ana Gillegiren ustez: "Batzuendako gogorra ere izan zela esango nuke. Euskal hiztuna izanik ere egon zen jendea elebitan egiteko eskatzera etorri zena euskaraz irakurtzeko zailtasunak zituztelako. Uste dut *Goibekokale*-ri esker errazago izan dutela sarrera GOIENA moduko euskarazko hedabideek".

2001eko urrian argitaratu zen *Goibekokale*-ren azken zenbakia, hain zuzen ere 71.a. *Goienkaria* aldizkariak hartu zion erreleboa. Elgetako edukiei bi orriko espazioa eskaini zitzaien, astero, Bergarako edizioan.




AINARA IRIBAR
ERREDAKTOREA

"Salto bat egin behar izan zuen euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zuen jende askok. Nire ustez aldaketa handia izan zen askorendako".



ANA GILLEGI
KOORDINATZAILEA

"Ez zen talde txiki baten proiektua izan. Pixkanaka zabaltzen joan zen, eta denona bihurtu zela uste dut. Hori izan zen ederrena".



EIDER ETXANIZ
PUBLIZITATE SALTZAILEA

"Aurretik publizitatea saltzen ibili gabeak ginen, baina prezio eta tamaina askotariko ereduak genituen eta jendea animatzen zen iragarkiak ipintzera".



Lantaldeak lehen urteurreneko zenbakirako ateratako argazkia. GOIBEKOKALE

Lantalde gaztea eta motibatua

Komikia, horroroskopoa, errejeta, lehiaketa... askotariko atalak zituen *Goibekokalek*, eta ardurak banatu egiten ziren. Administrazio lanak ere bazeuden egiteko. Oso gaztea zen lantalde batek eskaintzen zion denbora proiektuari aste bukaeratan.



Etkez etxeko banaketan ibiltzen ziren gaztetxoetako batzuk. GOIBEKOKALE

Banaketa lanetan, gaztetxoak

400 aleko tirada zuen *Goibekokalek* hasierako urteetan, eta denborarekin kopuru hori 700 alera iritsi zen. Maria Elena Eztenagak antolatzen zuen etkez etxeko banaketa, eta ikastolako neska-mutikoei egiten zuten, txandaka.



GORKA ARIZMENDIARRIETA
ERREDAKTOREA

"Oso aktibo bizi ginen eta giro bikaina genuen lantaldean. Ikusita orduko argazkiak eta elkarriketak lan handia egin zela uste dut".



ONDITZ VILLA
PUBLIZITATE SALTZAILEA

"Gazteak ginen eta lotsa gutxi genuen! Egin behar zen eta aurrera bolie! Publizitatean hamarretik lauk baietz esaten bazuten, gu pozik".

'Eros, eroso, ero' ipuin erotikoen saioa, Itziar Rekalderen eskutik

Liburutegiaren Bibliobero egitarauaren barruan, ipuin erotikoen kontaketa, gaur, barikua, 22:30ean

Amaia Aranegi ELGETA

Liburutegiak, laugarren urtez, ipuin erotikoen kontaketa saioa antolatu du, eta aurten, Itziar Rekalde ipuin kontalariak eskainiko du. Hogeita bederatzi urteko esperientzia dauka Re-

kaldek ahozko narrazioan eta denetariko ipuinak kontatzen dituen arren, barikuan erotismoa ardatz duen istorioak kontatzen arituko da: "Erotismoa alde desberdinetatik begiratuta, hainbat istorio kontatuko ditut. Izan ere,

nik neuk ere ez nuen batere argi zer den gaur egun erotismoa. Hau izan da saioa prestatzen hasi nintzenetik izan dudana galdera. Horri erantzuteko, adibide desberdinez baliatuz hainbat istorio sortu nituen".

Sedukzioa, fantasia, lizunkeria, debekua... jorratuko ditut istorioetan, eta bertan egongo diren guztiak unibertso zabal batean sartzea izango da helburua. Erotismoa zer den eta horren arlo desberdinak entzuteko aukera eskainiko du Rekaldek.



L.Z.L.

Feminismoaren genealogiak

Eguaztenean hamar lagunek hartu zuten parte feminismoaren genealogien inguruan Iraitz Agirrek gidatuta tailerrean. Elgetako Emakume Taldeak Udalarekin elkarlanean antolatuta bigarren saio bat ere egingo du, martxoaren 4an, 18:30ean. Aurreratu du

saio hori abiarazteko ondorengo galdera luzatuko diela parte hartzaileei: Noiz konturatu zinen emakume zarela? Gogoratu, bestalde, martxoaren 8ko bazkarirako txartelak salgai daudela herriko taberna guztietan zein Elkoro botikan. Prezioa da 7 euro.



L.Z.L.

Erretiratuen Inauteri-martitzena

Txokolate-jana eta bingo saioa egiten zituzten Elgetako erretiratuak Xalbadorpe elkarteak antolatuta. Urteroko hitzordua da, eta 30 bat lagun elkartu ziren Ozkarbi elkartearen. Arratsalde pasa ederra egin zuten. Honakoan Pello Ojanguren hartu zuen zenbakiak 'kantatzeko' ardura. Zortea aldeko izan zutenek sariarekin itzuli ziren etxera.

OHARRAK

Ipuinen ordua

Ipuin kontalari boluntario taldearen eskutik hiru saio egongo dira, gaur, liburutegian, 17:00etan hasita.

Itzuliko lehen etapa

Martxoaren 6an abiatuko den Itzulia Elgetatik pasatuko da. Aurreikuspenen arabera, 16:30 eta 17:30 artean igaroko dira tropela Elgetatik. Elorriotik Karabietara egingo du.

Brigade Loco

Ez dira pasako bideoklip berria aurkeztuko du musika talde bergararrak, Espaloian. Martxoaren 6an izango da, 18:30ean. Elgetan grabatutakoa da, eta hainbat herritarrek hartu dute parte.



Udalak herriko hainbat eragilerekin elkarlanean antolatu du aurtengo egitaraua; irudian, eguazteneko aurkezpena. BERDINTASUN SAILA

Heziketa eta elkarlana, arrakala orekatzea xede

Martxoaren 8aren bueltako ekintzak "hainbat eragilerekin" batera antolatu ditu Udalak; tartean, herriko ikasleekin egindako ikerketa baten aurkezpena. Greba feministarik ez da egingo, baina Martxantereak antzerkiez tartekatutako manifestazioa antolatu dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Indarkeria matxista, prekarie-tatea, zaintza, soldata arrakala, kapazitismoa, lan domestikoa eta arrazakeria. Horiek dira aurtengo Martxoaren 8ko kartelak jasotzen dituen berbak, eta Udaleko Berdintasun sailaren arabera, "ugariak" dira berdintasunaren alde egiteko arrazoiak eta bide horretan aurki-

daitezkeen arrakalak. Horiek azaleratzeko, egitarau "oso aberatsa" antolatu dute, "hainbat eragilerekin" elkarlanean -ikus taula-: Bedelkar, Gaurgeroa, Duintasuna, Berdintasun Kontseilua, Garagune, Shotokan, Aspace eta herriko ikastetxe guztiak. Martxantereak ez dute greba feministarik deitu, baina manifestazioa deitu dute mar-

txoaren 8 eguerdian, eta antzerkiak tartekatuko dituzte: "Ozen eta argi esango wdugu: jendar-te eredu hau ez da bizigarria gehienontzat, batez ere emakume eta genero disidenteontzat, eta jasanezina planetarentzat".

Adostasuna politikarien artean
Ekitaldien artean, aipatzekoa da Bergarako ikasleekin egin-

dako ikerketa, belaunaldi berriengan ogibideak aukeratze-koan generoak jokatzeko duen rola nolakoa den jakiteko.

Bestalde, herriko politikarien artean adostasuna dago berdintasunaren bidean: asteleheneko osoko bilkuran adierazpen instituzionala onartu zuen udalbatzak. Gorka Artola alkateak azpimarratu zuen, besteak beste, aurtun berdintasun teknikari bat jardun osoz aritzeko kontratazioa arinduko dutela: "Askotan, halako adierazpenak onartzen direnean erakundeoi leporatzen zaigu paper hutsean geratzen direla. Horren aurrean, esan dezakegu Udalak konpromisoa hartu duela gaur [astelehenean] onartutako helburuak betetzeko baliabideak jartzeko; ea aukera dugun aurtun teknikaria jardun osoz lanean izateko, bestelako ekintza batzuk bultzatzeko eta

eragile feministekin harremanak indartzeko". EAJko Elena Letek, berriz, indarkeria matxistan jarri du arreta: "Hezkuntza arlokoa da lehen pausoa, baina Udalaren lehentasuna izan beharko litza-teke indarkeria matxista desgertzeko ekimenak bultzatzea eta horretarako erakundeon arteko elkarlana sustatzea".

PSE-EEko eledun Alberto Alonsoaren arabera, Alderdi Sozialistarentzat "lehenitasunezkoa" da berdintasuna: "Gizarte parekideago baterako lanean jarraitu behar dugu, eta erakundeetatik ere bultzatzea dagokigu".

TEKNIKARIA JARDUN OSOZ LANEAN ARITU AHAL IZATEKO AHALEGINA EGINGO DU UDALAK AURTEN

Urtebetean 22.677 pertsona artatu ditu arreta zerbitzuak


Eguenetan artatzen da jende gehien, 120 pertsona batz beste; itxaronaldia bost minutukoa izaten da, batz beste

J.B. BERGARA

Urtebete pasatu da Udalak Bergarren Arreta Zerbitzua zabaldu zuenetik, eta ordutik 22.677 pertsona artatu dituzte. Eguena da egunik jendetsuena, batz beste 120 pertsona artatzen dira-

eta eguenetan; pertsona gutxien, oster, egubakoitzetan, batz beste 93 pertsona. Zerbitzua zabalik dago astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 15:00etara; eta eguenetan, aldiz, 07:30etik 15:00etara eta 16:00etatik 19:00eta-

ra. Ordutegia hori izanda ere, arreta kopuru handiena goizaren erdian ematen da. Esaterako, 2019ko maiatzetan -iazko hilabete jendetsuenean- egindako neurketan 09:00etatik 13:00etara egin ziren arreten %73,77. "Gogoratu nahi dugu lehen eta azken orduetan jende gutxiago ibiltzen dela, eta askoz erosoagoa dela tarte horietan gestioak egitea", gomendatu dute; batz beste itxaroteko denbora bost minutukoa da, eta pertsona bakoitzari ematen zaion batz beste



Herritar bat arreta zerbitzuan, atzo. M.B.

arreta 12-13 minutukoa. Asebetetze inkestak ere egingo dituzte, zerbitzua hobetze aldera.

Ordainketa eta tramitazio makina
Bereziki errolda agiria eskatzeko, ordainagiriaren kontsulta egiteko eta ordainketetarako erabili ohi den sarrerako makina erabilgarri dago astelehenetik domekara, 06:00etatik 22:00etara. Urtebetean 3.465 agiri ordaindu dira makina horretan, eta epe berean 4.182 eragiketa egin dira tramitazio makinan.

"Mendian ere aukerak izugarri zabaldu dira"

AITOR ERAÑA POL-POL MENDIZALE TALDEKO PRESIDENTEA

Mendi Astearen barruan, etziko 'slackline'-az gain, Oihana Azkorbebeitia izango da gaur lokalean (19:00); bihar, boulder txapelketa herrikoia egingo dute Labegaraletan (15:00)

Jokin Bereziartua BERGARA

Lanzaroten zegoela jaso zuen Goienaren telebistako platoan elkarriketa egiteko gonbidapena, eta egunotan Kanariar uharreetan protagonista izan den *kalima* izeneko fenomeno meteorologikoa ezagutu du gertutik Aitor Eraña. Sustoa pasata, luze eta zabal dihardu domekara arte iraungo duen Mendi Asteaz eta baita mendizaletasunak azken hamarkadetan bizi izan dituen aldaketek ere, besteak beste.

Kalima zer den ezagutu berri duzu. Ze eragozpen sortu dizkizue?

Emaztearekin joan nintzen Lanzarotera astebeterako, lasai egon eta erlaxatuta bueltatzeko asmoarekin, baina azken egunak ez ziren oso lasaiak izan. Ezin gara kexatu, *kalima*-k Lanzaroten ez zuelako kaos handirik eragin; gure hegaldia ordubate eskas atzeratu zen. Kanaria Handian eta Tenerifen hainbat hegaldi suspenditu zituzten, Aratusteek jende asko mugiarazten dute eta. **Nolakoa da kalima-ren sentsazioa?** Hemengo behe-lainoa modukoa da, baina harea finez osatutakoa. Ez zen ezer ikusten bost metro-ra, eta asko arnastuz gero arriskutsua izan daitekeela diote; azken egunean azoka bat bisitatzeraz joan ginen, baina ezin zen egon eta hotelera itzuli ginen.




Aitor Eraña, Arrasateko Goienaren egoitzan, martitzen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

Goazen Mendi Astera. Nola antolatu duzue aurtengo egitaraua?

Urtero moduan, sei hilabete lehenago martxan jarri ginen, ahalik eta egitarau zabalena osatzeko asmoz; mendizaletasunak dituen askotariko aurpegien isla da. Saiatzen gara hemengo jendea ekartzen, euren proiektu eta abenturak parteka ditzaten, baina, batzuetan, ez da erraza izaten ikus-entzunezkoak dituzten bertakoak topatzea. Argi dagoena da aurten ere abentura benetan interesgarriak ezagutzeko aukera dugula Mendi Asteari esker.

Gaur, Oihana Azkorbebeitia izango duzue; bihar, boulder txapelketa; etzi, ezohikoa den erakustaldi bat...

Bai. Azkorbebeitiak goi mailako kirolari eta ama izatearen gainean hitz egingo du [Pol-Polen egoitzan, 19:00etan]. Bihar, boulder txapelketa herrikoia izango dugu Labegaraletan. Eta domekan, ondo diozunez, ezohikoa den ekitaldi bat izango dugu: *slackline* erakustaldia Bideberrin. Erakustaldian parte hartuko dutenen artean bergararrak daude; mendian aritu ohi dira, eta oraingoan, herri barrura ekarri nahi genuen.



Erakustaldiaren aurreko probetako bat, Santa Marinako zubian. M. FERNANDEZ

'Slackline' erakustaldia Bideberrin etzi

Mendi Astea borobiltzeko, *slackline* erakustaldia egingo dute domekan Bideberrin (13:00). Usondo parketik Bideberrira soka bat jarrita, alde batetik bestera igaroko dira; betiere, arnes batekin lotuta. Duela aste batzuk, probak egiten aritu ziren, herritarren harridurarako.

Ikusgarria izango da. Eta Mendi Asteak kanpo bada ere, martxoaren 4an, *Free Solo* pelikula ikusteko aukera egongo da eguazteko zineklubean [Seminarioan, 20:00etan; sarrera hiru euro da]. **Pol-Pol Mendizale Taldeak non jartzen du indarra urte osoan zehar?**

Irteeretan. Irteerak dira garrantzitsuena guretzat. Gero, ikastetxeekin batera eta Bergara Oinez eta halako ekimenekin elkarlanean aritzen gara. Federatu nahi dutenei elkarteko bazkide egiteko eskatzen diegu –urtean 16 euro ordainduta– eta 450 bat federatzen dira urtero. Gero, beste 400 bat bazkide bagara; beraz, 850 bat bazkide izango ditu Pol-Polek. Gero eta jende gehiago etortzen da ekin-tzetara eta lokalak ondo funtzionatzatzen du, guretzat oinarritzko kanpalekua dena; elkarrekin osatzen dagoela esan dezakegu.

Ze iritzi duzu lasterketen ezteaz?

Ni asfaltoan korrika egitetik nator eta gaur egun mendiko lasterketek arrakasta handiagoa dute. Mendiak, norberaren eritmorako erraztasun gehiago eskaintzeaz gain, beste hainbat abantaila ditu, eta ulertzekoa da arrakasta. Mendizaletasuna, gizartea bera moduan, izugarri aldatu da azken urteetan. Lehen, Everest mendi sakratu moduan ikusten genuen, eta gaur egun, ia edonork igo dezake. Aukerak izugarri zabaldu dira eta informazioa barra-barra dago. Uste dut hori guztia positiboa dela.

"LOKAL BERRIA, GURE OINARRIZKO KANPALEKUA DENA, ONDO ARI DA FUNTZIONATZEN"

Miguel Altunarako pasabidea hilabete barru erabili ahalko da

Obrak "txukun eta arazo handirik gabe doaz" eta Hirigintza Sailak espero du bidea erabilgarri egotea martxoaren 23an

J.B. BERGARA

Miguel Altuna Lanbide Heziketaren egoitza berria "herrigunearekin lotzeko" asmoz, 850 metroko pasabidea eraikitzeko lanak "txukun eta arazo handirik gabe" doaz, Udaleko Hirigin-

tza Sailaren arabera. LKS da obren zuzendaria eta urrian eta azaroan izandako "eguraldi txarrak" eraginda Morga SA enpresari "luzapen txiki bat" onartu zion. Udaleko Hirigintza Sailak aurreikusten du obrak martxoaren

18rako bukatuta egotea: "Inongo okerrik ez badago barandaren hornitzaileekin eta aglomeratua zabaltzeko eguraldiak laguntzen badigu, lanak martxoaren 18an bukatuta egon beharko lirake. Hori hala izanda, martxoaren 23rako, astelehen, oinezkoentzat erabilgarri egongo litzateke". 850 metro luze eta 2,5 metroko zabalera duen pasabideaz gain, beste "gehikuntza batzuk" ere izan ditu proiektuak; hasierako aurrekontua 235.890 euro izan da.



Herrigunea eta Miguel Altuna lotzeko pasabiderako obrak, eguaztenean. GOIENA



Udalbatza osatzen duten zinegotziak, EH Bilduko Juanjo Asula izan ezik, asteleheneko bilkuraren amaieran. JOKIN BEREZIARTUA

Arigune izan eta euskara sustatzeko konpromisoa

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra ospatuko den Euskaraldian "modu aktiboan" eragiteko arigune izendatu dute udalbatza aho batez; 2018ko ariketak arrastoa utzi zuen, 3.400 bergarar eta dozenaka entitate atxikitu ziren-eta orduan berria zen ekimenera

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako udalbatza 2020ko Euskaraldirako arigune izatea onartu zuten asteleheneko oso-ko bilkuran, aho batez. Izan ere, EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEk uste dute "beharrezkoa" dela azaroaren 20tik abenduaren 4ra burutuko den ekimenaren "bultzatzaile aktibo" izatea. 2018ko lehen ariketan 3.400 bergararrek hartu zuten parte, eta Udaleko Euskara Batzordeak balorazio positiboa egin zuen, bai parte-hartzearen aldetik eta baita ekimenak euskararen erabileran izan zuen eraginaren aldetik ere. Aurtengo bigarren ariketara begira udalbatza bera arigune moduan identifikatzea onartu zuten, besteak beste.

Arigune izatea eta Bikain agiria Gorka Artola alkatearen ustez "keinu garrantzitsua" da arigune izateko erabakia: "Bigarren ariketan eragileengan ere jarriko da arreta eta udalbatza arigune moduan izendatzea keinu

inportantea. Modu aktiboan hartuko dugu parte, udal gisa".

EAJko Elena Letek 2018ko ariketa "oso polita eta emankorra" izan zela deritzo: "Bergarak atxikimendu handia erakutsi zion Euskaraldiari eta oraindik igartzen ditugu ondorio positiboak. Joan dadila bigarren ariketa ahalik eta ondoen, eta 2018ko mailetara hel gaitezen gutxienez". PSE-EEko Alberto Alonsoren ustez Bergaran euskarak "egoera ona" bizi duen arren, "Euskadi osoan" eragin beharko luke Euskaraldiak eta horretarako "ezinbesteko" ikusten du erakundearen bultzada.

Era berean, Euskara Batzordearen ekimenez lehen aldiz eskatuko da udal barruko eus-

kararen erabileraren arabera Bikain ziurtagiria jasotzea.

Eztabaida politikoa amaieran

Euskaraldiaren bueltan adostasuna erabatekoa izan arren, galderen eta eskaeren tartean eztabaida izan zen. Azken inausketa batzuk -Matxiategi kalekoak, bereziki-, Amillaga kalea berriro urbanizatzeko plana eta Zubietako kaleko proiektua adibide jarrita, "gardentasun eza" leporatu zion EAJk Udal Gobernuari: "Gure abiapuntua da alkateak lehen egunean esan zuena, udal talde guztiekin lan egitera zeto-rrera. Ez dugu hori ikusten eta hainbat gaitan oso nabarmena da hori".

Alkatea, baina, ez dago ados jeltzaleek leporatutako gardentasun faltarekin: "Lanketak egiten ari gara batzordeetan, eta eramaten ari gara Udal Gobernuaren jarduna batzordeetarako kontrastea egin dezaten eta ekarpenak jaso ditzagun. Horrela jarraituko dugu lanean".

BIKAIN ZIURTAGIRIA ERE ESKATUKO DUTE, UDAL BARRUAN EUSKARAK BIZI DUEN EGOERA AZTERTZEKO



MARKEL BAZANBIDE

Misterioa taulan, ez arrakastan

Bildurra nik? emanaldiari esker, Bergarako Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Eskoziako gaztelu sorgindu eta misterioitsu batera eroan zituzten ikusleak. Aktoreez gain, Aritzeta, Aitor Garitanok, Maria Izagak eta Leire Ibarzabalek ez zuten hutsik egin. Ikuskizun arrakastatsua Goiena telebistan ikusi ahal-ko da; otsailaren 29an (18:30 eta 23:00) eta martxoaren 1ean (12:00).

Nerabeen guraso direnei zuzendutako hitzaldia Irizarren

Ettxadi elkartearen eskutik *Ezetz esan eta ezezoak onartu* izen-burua duen hitzaldia izango da martxoaren 3an Irizar jauregian (18:00); ordu eta laurden inguru iraungo du saioak, eta euskaraz izango da. Psikologian doktorea den Ainhoa Manzano eta psikologian eta psikopedagogian lizentziatua den Maialen Sanchez izango dira hizlariak eta 9 eta

16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei dago bideratuta.

Aukera izango dute gurasoek gaiaren inguruan hausnartzeko eta izan ditzaketan zalantzak argitzeko: "Ezin dugu ahaztu gurasoak ume eta nerabeen eredu garena. Gurasoek ezetz esateko gai ez bagara, modu oldarkorrean edota hamaika justifikazioz hornituta esaten badiogu ezetz, nola egingo dute eurek?", galdegin dute antolatzailleek. Beste hainbat galdera ere luzatuko dituzte.

OHARRAK

Umetxoendako ur jarduerak Agorrosinen

Martxoaren 8a baino lehen eman beharko da izena: 943 77 70 95 edo agorrosin@bergara.eus. Martxoaren 28tik ekainaren 20ra arte izango da ikastaroa. Zozketarako eta behin betiko zerrenda jakinarazteko eguna izango da martxoaren 12a.

Boluko igogailua itxita gaur, goiz osoan zehar

Beart-en ondoko igogailua itxiko dute, konponketengatik.

Uberako leku izenen esanahia asmatzeko saioa

Juan Martin Elexpurren ahotik, Uberan, martxoaren 4an (19:00).

Bizikleta tailer herrikoia egingo dute Osintxun

Martxoaren 15ean, plazan (10:00); antolatzaileek adierazi dute komeni dela ahal duenak erremintak etxetik eramatea.

Erramu zapatuko ferian parte hartzeko aukera

Apirilaren 4an ospatuko den Erramu zapatuko ferian elikagai eta artisautza postuak jartzeko edota ganadu-erakusketan parte hartzeko eskaera egin daiteke bihar arte. Eskaera Bergararren Arreta Zerbitzuan egin daiteke (943 77 91 63) eta baita ferixabergara@bergara.eus helbidean ere, besteak beste.

Doinu irlandarrak bihar San Juan auzoko ermitan

Shane Curleyren eta Azkaiter Pelox taldearen eskutik, San Juan auzoko ermitan kontzertua izango da bihar, hilak 29, 19:00etan. Irlandako folk doinu onenekin, 'Irish Gigs 2020' bira ekingo dute San Juanen eta beste hainbat kontzertu egingo dituzte

Jone Olabarria BERGARA

Unai Azkaratek, Aitor Aranburuk, John Prietok, Aitzol Prietok eta Bittor Giralek osatzen duten Axkaiter Pelox taldeak kontzertua eskainiko du zapatuan San Juan auzoko ermitan, 19:00etan. Bertan hasiko dute *Irish Gigs 2020* bira, eta, hain zuzen ere, "leku berezia" da Azkaiter Pelox boskotearentzat: "Iaz, lehen aldiz izan ginen ermitan jotzen eta esperientzia polita izan zen. Auzotarrek oso ondo hartu gintuzten eta jende ugari bertaratu zen. Ermitan jotzeak ere badu bere xarma eta ordura arte egin gabeko zerbait zen, oso ondo egon zen".



2019ko uztailean eskainitako kontzertuaren irudia. AZKAITER PELOX

Haiekin batera arituko da taula gainean Shane Curley, bere ahots eta gitarra akustikoarekin.

St. Patrick ospatuz

Martxoaren 17an ospatzen den St. Patrick eguna aitzakia hartuta abiatu dute *Irish Gigs 2020* bira, eta, hain zuzen, irlandar doinuak egongo dira entzungai zapatuan ere: "Gure kontzertuetan beti jotzen ditugu irlandar doinuak, baina oraingoan, bereziki landuko ditugu, Shane Curleyren laguntzarekin". Hala, biolarekin eta biolinarekin arituko da John Prieto, perkusioan Aitor Aranburu, baxuan Aitzol Mujika eta saxofoian, berriz, Bittor Giral.

Kontzertu ugari

Era berean, martxoaren 15ean Tolosan arituko dira kontzertua eskaintzen, eta, oraindik guztiz zehazteke dituzten arren, emaldi gehiago egongo direla iragarri dute. Dagoeneko ohitura den modura, St. Patrick egunean Bergarako Irish tabernan egongo direla azaldu dute, herrikide dituzten Arragoa taldeko kideekin batera.

'Ikimilikiliklik' haur antzezlan bihar Seminarixoa

Marie de Jongh taldearen haur-errentzako azken lana bihar iritsiko da Seminarixora, 18:00etan. Lanak Ekhi umearen beldurrak ditu ardatz; hamaika arrazoigatik beldurtzen zen txikia zenean, baina poliki-poliki beldurrak gaintzen joan zen, bere armiamaren laguntzarekin. Sarrerak eskuragarri daude *Ticket.kutxabank.es* webgunean.

'Atopia RPG' rol jokoa Kartzela Zaharrera iritsiko da zapatuan

Atopia RPG rol jokoa Durango-ko Azokan aurkeztu ostean, hura ezagutzeko saioa izango da Kartzela Zaharrean bihar. Fikziozko Euskal Herrian kokatzen da rol jokoa eta Bergarako jardunaldietan, 10:00etan, partida laburra egingo dute, ikusleentzat irekia. 12:00etan, berriz, *Atopia* liburu aurkezpene eta solasaldia izango dira.

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!



'Gorabeherak'
websailarekin!

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan

DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Euskal Herrian euskaraz lehenengo aldiz Beran egin zuten *Bortxatzailea zu zara* ikuskizuna, joan zen abenduan. AMAIA ARZAMENDI

Koreografia indartsua Martxoak 8 egunerako

'Bortxatzailea zu zara' performancea egingo dute herriko plazan elkarretaratzearekin batera. Emakumeen Egunaren harira herriko hainbat eragileren artean antolatu duten egitarauaren ekintzetako bat izango da; martitzenean da bigarren entsegua, Eltzian

Oihana Elortza OÑATI

Eragile askoren artean osatutako egitaraua prestatu dute aurten ere Martxoak 8 eguna ospatzeko. Eta denetariko ekintzak antolatu dituzte, hitzaldiak, antzezlanak, elkarretaratzea, film emanaldiak edo *Bortxatzailea zu zara* performancea, adibidez.

Koreografia prestatzen

Martxoak 8 egunean egingo dute, hain justu, koreografia hori herriko plazan, 13:00etan. Elkarretaratzearekin batera egingo dute; "Indarra ikusiko da ekintza horretan", dio sare feministako kide batek.

Aste honetan egin dute lehen entsegua, Eltzian. Hainbat emakume elkartu dira, gazte asko tarteetan, eta musikaren eta bideoen laguntzarekin, joan den urtean Txileko Valparaíso hirian sortu eta harrezkero munduko toki askotara heldu den *Bortxatzailea zu zara* koreografia prestatzen aritu dira. Eurretako bat aurrean gidari lanak egiten

jarri eta ari jarraituz egin dute entsegua. Datorren martitzenean, martxoak 3, da hurrengo entsegua eta herriko emakume guztiak daude gonbidatuta; Eltzian izango da, 20:00etan.

Emakumeen azoka zapatuan

Herriko sare feministak antolatutako ekintzetako bat da hori. Horrekin batera, bezperan, martxoaren 7an, plazan egingo duten emakume artisauen azoka ere antolatu dute. Guztira hamazazpi emakume oñatiar (Oñatin jaio edo erroldatutakoak) egongo dira, eta kanpoko beste bost; 22 emakume denetara bakoitza bere produktuak erakusten eta saltzen. Goizen egingo da azoka hori, 10:00etatik 14:00etara. Emakumeen bazkaria ere zapatuan egingo dute, 14:30ean gaztetxean. Hara joateko txartelak dagoneko salgai daude Eltzia, Arrano eta Ongi tabernetan. Prezioak dira: hamar euro langileek eta sei euro langabetuek.

ANTZERKIA, ZINEMA, HITZALDIA, TAILERRA ETA HERRI BAZKARIA ERE EGONGO DIRA DATOZEN EGUNETAN

Zineklubarekin batera, emakumeei buruzko bi film botako dituzte datozen bi astetan.

Eta antzerkia ikusteko aukera ere egongo da aurten. Elkar Hezi ikastetxeko Batxiler mailako ikasleek *Gloria fuertes* ikuskizuna egingo dute martxoaren 6an Setem elkartearekin batera.

Ipuin erotikoak

Oñatiko Udala da egitaraua osatzen duten beste ekitaldi batzuen antolatzailea, "denon artean egitarau zabala prestatzeko, aurten ere badagoelako zer aldarrikatu", berdintasun teknikariaren esanetan. Ipuin erotikoen saioa, hitzaldi bat eta migratuendako psikologia tailerra prestatu ditu Udalak, besteak beste.

Emakume ekintzaileei buruzko mahai-ingurua antolatu du EAJk

Martitzenean izango da, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan eta Pili Kaltzada kazetariak moderatuko du

O.E. OÑATI

Emakume ekintzaileak bistaratzeko eta euren arteko esperientziak edo arazoak partekatzea eta hori guztia plazaratzeko gura du Oñatiko EAJk datorren asteko antolatu duen mahai-inguruan.

Saio irekia

Oñatiko emakume ekintzaileak du izena Pili Kaltzada kazetariak gidatuko duen solasaldiak eta hantxe izango dira, adibidez, Miren Elgarresta, Gipuzkoako Foru Aldundiko berdintasun zuzendaria; Nerea Ibañez, AS-PEGI elkarteak, Gipuzkoako emakume ekintzaileen elkarteak, presidentea eta hiru belarrialditako Oñatiko emakume ekintzaile batzuk.

Mahai-ingurua bereziki emakume profesionaleri eta merkatariari begirakoa da baina Oñatiko emakumeei guztiei dago irekita, baita gizonei ere. Gai bat baino gehiago izango dute hizpide solasaldi horretan. Adibidez, emakume autonomoak eta kontziliazioa izango da gaia-tako bat.

Antolatutako mahai-inguruari buruz, EAJk dio bidalitako prentsa oharrean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna esparru ezberdinetan ari direla lantzen eta horren barruan batzokian egindako hausnarketa prozesu batetik irtendako proposamena dela solasaldi hau. Mahai-ingurua ez dela ekintza isolatu bezala planteatzen ere gehitu dute jeltzaleek, azalduz euren helburua dela herri mailan emakumeen arteko sinergiak eta harremanak sortzea, "benetako berdintasunerako pausoak elkarrekin emateko eta esperientziaz aberasteko".

Argirik gabe ez egoteko lanak

Argindarrari lotutako larrialdi linea berria ari dira jartzen Santa Ana aretoaren aurrealdean. Argi gabe ez gelditzeko lanak egiten ari dira, zehazki. Hau da, argiak salto eginez gero, larrialdi linea horri esker segundo gutxitan berreskuratu litzake argia. Joan den urtean argindarrari lotutako hainbat lan egin zituzten, eta haren jarraipena da hau.



O.E.

Gaur eta bihar egingo da Txandako dendarien outleta

Txandako 26 komertzio udazken-neguko produktuak prezio berezietan eskainiko dituzte gaur, egubakoitza, eta bihar, dendaren ordutegiaren barruan. Gehienek denda aurrean jarriko dituzte deskontua izango duten arropa, osagarri, oinetako edo bestelako produktuak. Kanpoaldeko komertzioek herrigunean jarriko dituzte postuak. Udazken

eta neguko produktuen eskaintza bereziekin batera, udaberrikoak ere ikusgai izango dituzte herriko dendariak euren komertzioetan.

Bestalde, Txanda elkartearen zuzendaritza batzordea berriro egin dute. Egun, Txandako batzordea osatzen dute honakook: Amets-Berezaio, Irizar estankoa, Korosti kafeak, Kale Zaharra-Ogiberri, Aranburu bitxitegia, Madalena gasolindegia, Olalde zapata-denda, Sustrai frutategia eta Klau oinetako-denda.

"Letren alde linguistikoa bakarrik ikasten dugu"

LEIRE FERNANDEZ EHU-KO ARTE EDERRETAKO IRAKASLEA

Komunikazio bisualaren eta marketinaren sari nazionalen Urrezko Letra irabazi du 'Ilusioa eta zientzia EHU' lanagatik. Martxoaren 12an jasoko du saria, Bartzelonan

Oihana Elortza OÑATI

Leire Fernandez eta Eduardo Herrera dira EHUko Letraz ikerketa taldeko kideak, diseinuan eta letra tipoetan adituak. Zientzia herritarrei gerturatzeke EHUk antolatutako ekitaldia landu duten moduagatik irabazi dute Urrezko Letra saria.

Zer da sari hau, Leire?

Komunikazio grafikoari eta komunikazio bisualaren esparruan emandako Espainia mailako saria da Urrezko Letra. Zilarrezkoa ere irabazi izan dugu beste urteren baten, eta aurten, urrezkoa eman digute.

Zuen zein lan izan da saritua?

EHUk, urtero, zientzia, berrikuntza eta teknologia herritarrei gerturatzeke helburuarekin, zientzia aste bat antolatzen du, eta hori iragartzeko egin dugu herritarrei gerturatzeke antolatzen duen zientzia astea. Dinosauroen ingurukoa izan zen urte baten, espazioari buruzkoa beste baten eta itsasoari buruzkoa ere egin dute. Guztietan hartu genuen parte; baita aurten ere. Komunikazio bisualari eta ilusioari buruzkoa izan da aurtengoa.

Eta zer egin duzue?

Adibidez, Bizkaia aretoko kristalera batean erakusketa moduko bat jarri genuen eta Bilboko metroko gune batzuk, Moyua edo Abanto geltokiak kasu, kolorez apaindu genituen. Ilusioaren inguruko tranpa moduko batzuk egin genituen hor. Erautsi genuen nola begiek engainatzen gaituzten, adibidez, koloreekin eta formekin mugimendua emanez berez mugimendurik ez duten irudiei. Metroko eskaileretan, esaterako, koloretako zerrenda moduko batzuk jarri genituen, eta bertatik pasatzen zen hainbat herritarrek eskailerak oker ikusten zituzten zuzen ikusi ordez. Koloreak ere ezberdin ikusten dira inguruan dituzten beste koloreen arabera.



Leire Fernandez Iñurritegi oñatiarra. O.E.

"ILUSIOAREN TRANPA MODUKOAK ERABILIZ APAINDU DITUGU BILBOKO METROKO GELTOKI BATZUK"

Horrela, bihotz zuri batzuk jarri genituen, baina inguruko koloreen arabera, batzuek urdinak eta beste batzuek gorriak ikusten zituzten bihotzak. Biniloak ere jarri genituen anaformismo izeneko tranpak irudikatuz; hau da, lurra mugitu egiten den sentazioa emanez

Noiz jasoko duzue saria?

Datorren hilabeteen, martxoaren 12an, Bartzelonako Fira aretoan. Irudiek eta hizkiek duten esanahia ikertzen ere adituak zarete.

Azken finean, ikerketa da Letraz elkartean egiten duguna. Irudi, forma, kolore edo letra bakoitzaren zergatia ikertzea gustatzen zaigu, eta denak batera egotearen arrazoia topatzea. Hori ez digute irakatsi eskolan. Txikitik, irakurtzen irakasten digutenean, letrak elkartu eta horiek ahozkatzen erakusten digute eta elkartuta zer esan gura duten.

Ez digute erakusten hitz bera letra larriz edo letra txikiz idatzita egon esanahi ezberdina izan dezakeenik, edo letra tipo moderno batekin edo tradizional batekin idatzita egonda beste indar edo zentzu bat izan dezakeela hitz horrek. Arlo linguistikoa ikasten dugu bakarrik.

Eta ikertutako hori publikatu ere egiten duzue. Liburu bat baino gehiago dituzue dagoeneko.

Bai, hori da. EHUko mezua ere bada *Eman eta zabal ezazu*, eta horrela, zabaldu egiten dugu guk ikertzen duguna. Letra tipo bat ere egin dugu, esaterako, eta erabilgarri dago; ikusi dut, gainera, topaketa batzuetan letra tipo hori, eta poztu naiz.

Ikertzailea izateaz gainera, irakaslea ere bazara EHUko Arte Ederren Fakultatean. Zer moduzko sormena dute egungo gazteek?

Uste dut, orokorrean gertatzen den moduan, zaila egiten zaiela zerbait berria irudikatzea. Dagoenetik abiatzen dira, berria sortu barik. Pantailen aurrean lehengoek baino askoz ordu gehiago pasatzen dituzte, eta ez dakit arrazoia hori den edo ez, baina lehen sormen gehiago zegoen irudipena daukat.



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

Pribatua vs publikoa

Ez nator Zaldibarko zaborteia pribatizatzeari buruz hitz egitera. Herritar bakoitzari poltsikoan eragiten digun beste kasu bat atera nahi nuke. Beste zerbitzu bat, argindarrarena, publikotik esku pribatuetara pasatzearen ondorioak elkarbanatu nahi nituzke.

Argindar sektorea hiru arlotan banatuta dago. Sorkuntza, garraioa (kableatu eta transformazio zentroak) eta komertzializazioa. Gutxien garraioari buruz jakingo da, seguru asko. Iraganean herriarenak ziren azpiegiturak oligopolio diren multinazionalen eskuetan daude gaur egun. Oñatikoa salbuespena da, zorionez herriaren jabetzakoa izaten jarraitzen baitu. Bidesariaren zenbatekoa zeintzuek finkatzen dute, ordea? Ba, kostuen aitzakiapean ate birakarietatik pasata administrazio kontseiluetan amaitzen dutenek, neurri handi batean. Herritarren interesak non? Oñatik kostuak estaltzeko behar dituen baina 800.000 euro gehiago jasotzen ditu. Zorionez, Udalaren poltsara itzultzen dira. Atera kalkuluak argindar azpiegiturak pribatizatu izan duten gainontzeko herrietan urtero sortzen duen galera. Pentsa zeinen bizkar egiten duten dirua batzuek.

Hileko bigarren zapatuan egingo ditu zozketak Hotz Oñatik

Hileko bigarren zapatuan zozketak egiten hasita dago Hotz Oñati elkarteak; plazan jartzen duten postuan egiten dituzte zozketak, hilerok. Zozketa horretarako txartelak, berriz, herriko hainbat denda, komertzio, taberna eta zerbitzutan daude salgai. Denei esker-rak eman gura dizkie Hotz Oñatik.

Semaforoa jarri dute Udana hasierako errepide tartean

Udana azpiko eta herri sarreraren arteko lau zubietako lanak egiteko igo egin dute errepidearen maila eta, ondorioz, bide izkinako petrak edo paretak baxu gelditu dira. Horien altura maila igotzeko lanak egiten hasi dira aste honetan, eta horregatik jarri dituzte semaforoak; lanak bukatu arte egongo dira, langileek lasaia lan egiteko. Orain, Ugarte baserriaren eta Aiastui baserriaren arteko bidegurutzearen artean dagoen zubi ondoko paretari altuera emateko lanak ari dira egiten, eta tarte horretan daude jarrita semaforoak, baina horko lanak bukatu eta beste zubi batera doazenean, tokiz aldatuko dituzte.

Uraren fluoraziori buruzko hitzaldia egingo dute gaur

Uraren fluorazio publikoa EAEen izeneko hitzaldia egongo da gaur, egubakoitza, Euskaldun Berria gelan, 18:00etan. Okitaño elkartearen laguntzarekin antolatutako hitzaldia da eta hainbat punturen inguruan egingo dute berba uraren fluorazioa oinarrian dutela; besteak beste, EAEen dagoen informazioari buruz.

50 bat zuhaitz landatuko dituzte domeka goizean

Zuhaitz landaketa egingo dute domeka goizean, Natur Eskolak antolatutako ingurumen jardunaldien barruan. Belatzara gasolindegia atzean, udazkenean, egin zuten anfibioendako putzuaren bueltan egingo dute landaketa; 50 bat zuhaitz, haritzak eta zuhaixkak. "Aurreko urteetan gehiago landatu ditugu, baina gune hori ez da oso handia eta uste dugu nahikoa izango direla horiek", dio Idoia Bollarrek. Foruen plazan elkartuko dira, 10:00etan, eta asmoa da oinez joatea hara. Etxean aitzurra izanez gero eramatea komeni da, ahalik eta aitzur eta tresna gehien izateko denon eskura landaketa egiteko.



Mekalki Aloña Mendik etxean jokaturako azken neurketako talde argazkia. JAVIER ZURBANO

Alkideba-Ointxe aurkari bihar, saskibaloia derbian

Zubikoa kiroldegia hartuko du Mekalki Aloña Mendiren eta Alkideba-Ointxe talde arrasatearraren arteko norgehiagoka, 18:00etan. Bi taldeak "gogotsu" azaldu dira puntuak batzen jarraitzeko eta aitortu dute derbia partidu "berezia" izango dela

Maialen Santos OÑATI

Denboraldiko bigarren itzuliko laugarren partidua jokatu du asteburu honetan Mekalki Aloña Mendik, eta Alkideba-Ointxe taldea hartuko du etxean. Bihar, zapatua, arituko dira nor baino nor gehiago Zubikoan, 18:00etan hasita. Aitor Ugarte taldeko entrenatzaileak azaldu du derbia jokatzeari berezia dela, "beste puntu bat" ematen baitio ezagutari horrek neurketari. Are, azaldu du bere taldea "gogotsu" arituko dela kantxan, "puntuak irabazten" jarraitzeko gogoz. Aurreko jardunaldian "partidu txarra" jokatzetik dator Aloña, gainera; Tabirako Baque taldearen aurkako porrota "kolpe moral" izan zela aitortu du Ugartek, eta jokalariek batek min hartu amaitu zuen partidua, gainera. Hala eta guztiz ere, kolpe hori "ahaztu" gura du, orain arte denboraldian egindako lanarekin jarraitu ahal izateko: "Neurketa oso onak jokatu ditugu; are gehiago, horietako asko sailka-

peneko taulan goian dauden taldeen aurkakoak izan dira".

Alkideba-Ointxe taldeko entrenatzaile Txisko Erañak, berriz, azaldu du talde oñatiarrak "asko hobetu" duela, eta sasoi betean daudela gaur-gaurkoz. Gauzak horrela, neurketa "interesgarria" izango delakoan dago entrenatzailea. Bere taldeari buruz galdetuta, gustura azaldu da egiten ari diren lanarekin: "Ekipo gaztea daukagu, neurketak ondo joan zaizkigu eta asko ikasten ari gara", adierazi du. Helburuak "betetzen" ari da taldea, bere aburuz: "Maila mantendu nahi dugu, eta oraingoz, behintzat, ondo ari gara". Horretaz gain, lehen mailako taldera igotzeko jendea "prestatzea" ere bada

DERBIARI BEGIRA, PUNTUAK BATZEN SEGITU NAHI DUTE BI TALDEETAKO ENTRENATZAILEEK

taldearen helburuetako bat, eta egunero eta gutxinaka hobetuz doazela dio Erañak.

Ildo beretik jarraitu guran

Bi taldeetako arduradunek diote "orain arte moduan" jarraitu gurako luketela aurrerantzean ere. Hala, puntuak batzen jarraitu gura dute geratzen diren jardunaldietan, sailkapenean gora egin ahal izateko. Hain justu, taula horretako hamargarren postuan dago egun Aloña; eta laugarrenean, aldiz, Ointxe.

Edozelan ere, Aloñako entrenatzaileak gogora ekarri nahi izan du "kontuan" hartu beharrekoa dela Aloña maila honetan "berriki" estreinatu dela: "Gure taldea aurten igo da mailaz, eta, beraz, egokitzen prozesu batetik ere pasa behar izan dugu". Hori hala izanik, "gorantz begiratzeko joera" hartu nahi dute bi taldeek, eta bihar garaipena eskuratu. Horretarako "etxekoan babesa" izan gurako luke Ugartek.

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak gaztetxean izango dira domekan

12:30ean eskainiko dute 'matinee' emanaldia. Sarrerak bost eurotan eskuratu ahal izango dira egunean bertan

M.S. OÑATI

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak *matinee* kontzertua eskainiko du domeka honetan, Antixeneko gaztetxean. 12:30ean izango da hitzordua, eta sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira, bost euroren truke.

Irail amaieran aurkeztu zuen Martinezek *Lurralde berriak* izeneko diskoa, eta ordutik, herri-rik herri ari da Zaldi Herrenak-ekin batera. Azken boladan "formatu txikiko" kontzertuak eskaintzen jardun dutela azaldu du abeslariak berak, eta domeka honetako kontzertua "nahiko akustikoa" izango dela aurreratu du. Horretaz gain, kantu ezberdinez gozatzeko aukera izango da gaztetxean: "Disko berriko abestiak ez ezik, zaharragoak ere joko ditugu; baita bertsoak ere", azaldu du. Herrian jotzeaz buruz galdetuta, "berezia"



Iker Martinez. I.M.

dela dio, senideak eta lagunak ikus-entzuleen artean direlako.

Egunotan, guztira, hiru kontzertu eskainiko dituzte: lehena atzo, Gasteizen; hurrena gaur bertan, Bilboko Bira Kulturgunean, 20:00etan; eta azkena domekako *matinee*-a izango da.

Ikusi Makusi antzerki taldearen antzezlan solidarioa, domekan

Pake Lekuko antzerki taldeak *Remendando males de amores* obra estreinatu zuen joan den abenduan herriararte artean. Bi emanaldi eskaini zituzten orduan: bata erretiratuei zuzendurikoa eta bestea -irekia-, herri osoari zuzendurikoa.

Domeka honetan, baina, beste emanaldi bat eskainiko dute, 19:00etan, eta berriz igoko dira

Santa Ana aretoko oholtzara, helburu solidarioarekin. Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, emanaldian batutako dirua Ginea Konakryn eraikitzen ari diren eskolara bideratuko dute. Sarrerak domekan bertan eskuratu ahal izango dira, 5 euroren truke, Santa Anan -18:00etatik aurrera-. Horretaz gain, ikus-kizunera joaterik ez duenak edota lagundu nahi duenak ekarpen ekonomikoa egiteko aukera izango duela azaldu dute Parrokiako Misio Taldeak.

Aloña Mendik etxean hartuko du Tolosa, domeka arratsaldean

Ohi moduan, domekan 16:30ean jokatu dute neurketa Azkoagainen; Tolosa izango dute aurkari. Sailkapeneko lehen postuan dago egun Aloña Mendi, 47 punturekin, eta Lagun Onak taldeak jarraitzen dio -40 punturekin-. Haatik, elkarren aurka jokatu zuten azken jardunaldian eta Aloñak eskuratu zuen garaipena aurkariaren zelaian.

Bihar izango da 'Dizdaitte' bertso txapelketako finala

Antixeneko gaztetxean ekingo diote azken saioari, 19:30ean. Bi kanporaketa egin dituzte orain arte; horietan, finalerako sailkatu dira Maider Arregi eta Ane Zuazubiskar, hurrenez hurren. Puntuazio altuena eskuratu zuten lau bertsolari gazteak ere arituko dira finalean: Eli Pagola, Urko Arregi, Oihana Arana eta Txaber Altube.



goiena

ADI!!

GOIENA TELEBISTAK, KANAL ALDAKETA

Goiena telebista kanalez aldatu da. Telebista antena bidez ikusten baduzu, zure komunitateko antenan egokitzapenak egin beharko dituzu. Jarri harremanetan zure antena-jartzailearekin.

Informazio gehiago: **943 25 05 05**.



Jabeen erkidegoetan antena-jartzaile batek egin behar du lan hori. **Famili bakarreko etxeetan**, berriz, berriro sintonizatu behar dira telebistak, kanalak ikusteko.

Dirulaguntzak eskatu ditzakezu: **Televisiondigital.gob.es**.

Informazio gehiago **943 25 05 05**.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Ione Elorza, Haizea eta Maddi Azkorbeitia alabekin, aste barruan Oñatin. XABIER URZELAI

"Bizkarreko minez ibilita ere, ezin dut sokatira alde batera utzi"

IONE ELORZA SOKA-TIRATZAILEA

Munduko sokatira txapelketan oñatiarrak urrezko bi domina irabazi ditu Badaiotz taldearekin; Euskal Herriko selekzioa ordezkatzuz, berriz, zilarra irabazi du

Xabier Urzelai ARRASATE

Eskua bete domina ekarri du Ione Elorzak (Oñati, 1974) egunotan Letterkeny-n (Irlanda) egin duten munduko sokatira txapelketatik. Mokorreko ebakuntza bat tarteko 2016tik baztertuta izan du kirol jarduera hori, baina irailean ezin izan zion ezetzik esan urtero egiten dioten proposamenari, barruan darama sokatira.

Eskuak urratuta ekarri dituzu Irlandatik, hala honez gero erabat errekuperatu zara?

Beno, nahiko txukun ditut, baina izan dut zauriren bat. Txapelketa lau egunekoa izan da, eta lehenengo bi egunetan, guztira bederatzi talde ginenez zortzi tiraketa egin behar izan genituen. Eta, ondoren etorri

"SOKATIRAN INDARRA BAINO TEKNIKA BEHAR DA, TALDEKIDEAK ELKAR ONDO EZAGUTZEA"

zen selekzioen arteko txapelketa. Hor talde gutxiago ginen, bost guztira.

Espero zenuten urrea janztea? [Alabak, Haizea eta Maddi, ondoan ditu, eta horiek ezetz diote buruarekin]. Hara joan aurretik bagenekien talde oso ona geneukala, Euskal Herri mailako txapelketan hori ikusten genbiltzalako. Baina, zerbaitetan kale egiten genuen, akatsen bat egiten genuen sentazioak ez zirelako onak. Entrenatzailearekin batera hainbat aldaketa egin genituen, txarto

egiten genuen hori zuzendu egin genuen, eta hor hasi ginen gure benetako maila erakusten. Baina bai, Irlandara zalantza handiekin joan ginen.

Lehenago ere izan zara Munduko Txapeldun Badaiotz taldearekin.

Bai, 2002an klub mailan urrezko bi domina irabazi genituen Corken (Irlanda) eta 2012an Holandan ere urrea jantzi nuen.

Diozu indarra baino sokatiran teknika behar dela.

Sokatiran dena da teknika. Badirudi ez dagoela aparteko misteriorik, indarra baino ez dela behar, baina hori baino askoz gehiago da. Teknika ezinbestekoa da, talde lanean jardutea, taldekideak ondo ezagutzea, zela gura den indarra egin, ze erritmotan, ze alturatan...

Urrezko domina horiek irabazi izanek ekarriko du aldaketaren bat?

Munduko txapeldun izanda ere ez dut uste egoera askorik aldatuko denik. Laguntzak behar ditugu, den-dena gure poltsikotik ordaintzen dugulako: bidaiak, jantziak, entrenatzeko eta lehiatzeko materiala... Ez dugu inongo laguntzarik.

Aramaion duela urte batzuk DKS saria jaso zenuen, eta orduan erretiroa hartzekotan zeunden, baina bueltatu egin zara.

Sokatira izugarri gustatzen zaidalako. Adinak ez du barkatzen, eta hau kirol gogorra da, taldekide guztiak bizkarreko minarekin ibiltzen gara, aldakako minarekin... 2016an mokorrean ebakuntza egin eta sokatira uztea erabaki nuen. Baina Badaiotz familia moduko bat gara, jende gaztea etorri da baina hainbat taldekidearekin hamar urte baino gehiago daramatzat taldean. Behin eta berriro esaten zidaten taldera bueltatu behar nuela, eta irailean denboraldia hasi nuen ostera ere.

Bizkarreko minak desagertu egin diren seinale?

Ez, mina hor dago [Barre] baina, ezin dut sokatira utzi. Gainera, taldean denok ibiltzen gara minenez, ez da inor libratzen.

Zaletasunetik harago, seriotasunez hartzen duzue sokatira.

Astean hirutan joaten naiz Gasteizera entrenatzera, eta horrekin batera entrenatzaileak bidaltzen dizkigun etxeko lanak egiten ditugu denek: korrika egitera joan, gimnasioa ibili... Bai, seriotasunez hartzen dugu. **Kuriosoa da, selekzio moduan jarduteko klubeko kide guztiek osatzen duzuela taldea, alegia, hautatzaileak ez duela tiratzaile ezberdinen artean aukeraketa egiten.**

Talde bakoitzak modu oso ezberdinean egiten duelako sokatiran, eta tiratzaileak horretara gaude ohituta. Denbora beharko genuke denek bat egiteko. Errazagoa da klub bateko tiratzaileen artean osatzea selekzioa.

Oñatin ez dago sokatira talderik, zelan hasi zinen kirol honetan?

Gurasoek taberna zuten Gasteizen, orduan han bizi ginen, eta Badaiotzeko entrenatzailea tabernako ezaguna zen. Neskak behar zituztela esaten zigun, eta ahizpa eta biok animatu ginen. **Alabek ere sokatiran egin gura dutela diote...**

Esaten diet ea ezin duten gaintzekoez moduan kirol jarduera normal bat aukeratu: saskibaloia, eskubaloia... Zer dakit ba! [Barreak]. Badaiotzen ez dugu kategoria txikietako talderik, eta oraindik gazteak dira seniorrekin ibiltzeko -14 eta 12 urte dituzte-. Gorputza gehiago egin behar zaie oraindik, eta astean hirutan Gasteizera etortzea eta etxerako lanak egitea ez dakit oso bateragarriak diren. Ilusioa egingo lidake, baina euren ama ere banaiz eta...



Badaiotzeko taldekideak, domina jantzita, Irlandan. I.E.

Pista estaliko hitzordu nagusia Ourensen da

ATLETISMOA Espainiako Txapelketa absolutua jokatu dute asteburuan; pertika saltoan Malen Ruiz de Azuak eta Maialen Axpek, eta salto hirukoitzean Eneko Carrascalek eta Iñigo Uribarrenek neguko denboraldia borobildu gura dute Galizian

Xabier Urzelai ARRASATE

Asteak daramatzate txapelketetan murgilduta, baina Espainiakoan estatu osoko atletak izango dituzte kontrario. Malen Ruiz de Azua, esaterako, Euskadiko txapeldun izan zen joan den astean (4,32) eta beste horrenbeste lortu zuen Eneko Carrascalek salto hirukoitzean (15,43). Orain dator, baina, azterketa handia.

Ruiz de Azuak marka onena

Emakumezkoen rankingean, 2020 honetan, Malen Ruiz de Azuak lortu du estatuko markarik onena (4,40). Eta joan den astean Valencia Club Atletismo taldeko kideak gutxiatik ez zuen marka pertsonala egin, 4,42ko saltoa egiteko ahaleginean gutxiatik ez zuen-eta arrasatearrak helburua bete: "Egia esan pista estaliko denboraldia hasi genuenetik oso sentazio onekin nabil, gustura nabil. Azken aste hauetan ondo nago, baina gogoan dut lehenengo txapelketatik nabilela gozatzen".

Eta, momentu on hori Galiziako hitzorduan gura du borobildu: "Gauza ederra izango litzateke Espainiako Txapelketa moduko hitzordu batean marka pertsonala egitea, eta gainera, pista estaliko denboraldia amaitzeko modu ezin hobea izango litzateke. Ikusten dut helburua gertu daukadala, eta onena ematera joango gara".

Axpe, ondo errekupepatzen

Maialen Axperi, berriz, gehiago kosta zaio neguaz gozatzea, Iruñean entrenatzen den atletari iaz orkatilan izandako lesio batetik errekupepatzen harra-patu diolako pista estaliko denboraldiak: "Kostatu zait osterera ere konfiantza hartzeko prozesua betetzea, txapelketetara bueltatzea ez da izan erraza. Baina, egia da gauzak hobera doazela eta pozik nagoela ematen nabi-



Malen Ruiz de Azua –erdian– Euskadiko txapeldun izan zen joan den astean. J.PEREZ

RUIZ DE AZUAK SENTSazio ONAK IZAN DITU NEGUAN; AXPE LESIOA ATZEAN UZTEN DABIL

len aurrerapausoekin", dio Beñoñakoak.

Hala, Atletico San Sebastian taldeko ordezkariak 4,20ko saltoa egin zuen otsailaren 19an Pragan, eta oraingoz urteko laugarren marka onena da. Bada,

Ourensen pauso bat eman gura du aurrera: "Txapelketa guztietara nire onena ematera joaten naiz, eta Galiziara ere ideia berberarekin noa. Horrekin batera, udako denboraldirako oso gogotsu nago".

Bada, bi atleta arrasatearrak rankingaren lehen postuetan daudela iritsiko dira Ourensen, lehen aipatu moduan Ruiz de Azuak duelako oraingoz markarik onena, eta laugarren dago Axpe. Tartean daude Andrea San Jose (4,30) eta Ana Carrasco (4,21) madrildarrak.

Carrascal eta Uribarren ere aurrean

Partika saltoarekin batera salto hirukoitzean ere Arrasateko harrobiak izango du Ourensen ordezkartzarik, bertan izango dira-eta Eneko Carrascal eta Iñigo Uribarren.

Biak dira Real Sociedad taldeko atletak, eta biak igo ziren joan den astean Euskadiko Txapelketako podiumera. Carrascalek 15,71ko marka egin du aurten, eta Uribarrenek 15,38koa. Hala, estatuko atleten rankingean zazpi atleta onenen artean daude, nahiz eta hiruk bakarrik lortu duten hamasei metrotako langa gaintitzea: Pablo Torrijos (16,83), Ramon Adalia (16,35) eta Sergio Solanas (16,23). Bestalde, Sabadellen martxo erdian egingo dituzten 20 urtez azpikoen txapelketarako sailkatuta dago Alain Egia, Euskadikoan 14,07ko saltoa egin eta gero.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Mondra-Oiartzun

Zapatua. 16:30. Mutriku.

Bergara-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. Agorros.

ERREGIONAL PREFERE.

Antzuola-Idiazabal

Zapatua. 16:00. Estala.

Orioko-Aretxabaleta

Zapatua. 17:00. Orío.

Mondra-Danena

Zapatua. 18:30. Mojategi.

Aloña Mendi-Tolosa

Domeka. 16:30. Azkoaga.

OHOREZKO GAZTEAK

Urki-Mondra

Zapatua. 16:00. Eibar.

Bergara-Aretxabaleta

Zapatua. 18:00. Ipintza.

Urola-Aloña Mendi

Domeka. 17:00. Argixao.

EMAKUMEZKOEN OHO.

Touring-Bergara

Zapatua. 17:00. Errenteri.

Lagun Onak-Leintz Ari.

Zapatua. 19:00. Azpeitia.

EMAKU. PREFERENTE

Santo T-Leintz Aloña

Zapatua. 17:20. Donostia.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Elorrioko

Zapatua. 18:00. M-Muñ.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Aretxabaleta UDA

Atsedena.

Goierrri-Mondrate

Domeka. 18:00. Urretxu.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Mondrate-Lauburu

Zapatua. 17:30. Musakol.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Ordizia

Domeka. 09:20. Lasarte.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Ford Mugarri-Deusto L.

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

Fagor Indus.-Ugeraga

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

Eraiken-Cons-Aloña M.

Zapatua. 16:30. Lakua.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Tolosa-Soraluce BKE

Domeka. 11:30. Tolosa.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Tabirako

Domeka. 18:30. Iturripe.

EUS. BIGARREN MAILA

Mekalki Alo.-Alkideba

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EUSKADIKO JUNIOR M.

Alter Cons.-MU

Zapatua. 11:00. Azkoitia.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Larramendi-Soraluce

Zapatua. 16:00. Donosti.

GIP. SENIOR EMAKUME.

Eskoriatza-Zast nesk.

Gaur. 20:15. Eskoriatza.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELK.

ONATI

Egubakoitza. 18:30ean

hasita bost partidu.

Zapatua, 16:00etan

hasita hiru partidu

ARETXABALETA

Egubakoitza. 19:30ean

hasita bi partidu.

ANTZUOLA

Egubakoitza, 19:30ean

partidu bat.

BERGARA

Egubakoitza, 21:30ean

partidu bat. Zapatua,

17:45ean hasita

partidu bat.

FUTBOLA Bergararen eta UDaren arteko derbia, Agorrosinen

Joan den astean Ordiziaren kontra galdu eta gero Bergarak partidu garrantzitsua jokatu du bihar jaitsiera postuetatik urruntzeko helburuarekin. Eta, urtea oso ondo hasi duen –porrot bakarra– Aretxabaleta izango dute aurrean (16:30). Mondrak ere atzealdean dagoen Oiartzunen bisita izango du bihar Mojategin (16:30).



Bigarren astez, etxean dute lehia. GOIENA

SASKIBALOIA Bigarren dagoen MUK Tabirako hartuko du domekan

EBA kategorian dagoeneko bigarren posturaino egin du salto MUK; Pas Pielagosan atzetik daude arrasatearrak, eta domekan (18:30, Iturripe) Durangoko Tabirako Baque taldearen bisita izango dute. Bestalde, bigarren nazional mailan Mekalki Aloña Mendik eta Alkideba Ointxek zapatuan, Zubikoan, derbia jokatu dute (18:00).

ESKUBALOIA Euskadiko Txapelketako lehiak, etxean, bihar

Ford Mugarri Arrasatek igoera faserako txartela ematen duen bosgarren postura egin gura du salto Deusto Loiola taldeari irabazita (zapatua, 16:30, Iturripe). Fagor Industrialek, berriz, jaitsiera postuetatik urrundu guran dabilen Ugeragaren bisita izango du Zubikoan (zapatua, 16:30). Hala, txantxikuek ere igoera fasea dute begiz jota.



Hakima Flissi musikari bilbotarrak Lazarraga lorategian eskainiko du kontzertua. IKER BASTERRETXEIA

Izaera propioa duen jaialdia

Musikaren alde hurbila erakusteko asmoarekin 2018an abiatu zuten Beratu musika jaialdiaren hirugarren aldia egingo dute martxoaren 25etik 29ra; jatorri eta estilo ezberdinetako musikarien kontzertuak eta tailerrak izango dira guztiontzako aukeran

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Euskal Herriko musika jaialdi txikien zirkuituan leku bat egitea lortu du Beratu Musika Elkarteak, Udalaren eta herriko hainbat eragileen laguntzarekin, antolatzen duen jaialdiak. "Eus-

kal Herrian sortzen diren musika ezberdinen topaleku bilakatu da", diote elkarteko kideek, zera gaineratuta: "Abiatu genuenetik hainbat euskal proiektu-ekin kolaboratzeko aukera izan dugu, besteak beste, Musik/Fem,

Ahotsenea, UsoPop jaialdia, Jazpana jaialdia... Horiek guztiengatik jasotako esperientziari esker, aurten hirugarrena izango da; Beratu Musika Jaialdiak nortasun propioa osatu duela esan dezakegu".

Askotarikoak, toki askotan

Egiturari dagokionez hirugarrenak, oinarrian, aurrekoen bide-tik jarraituko duela azaldu dute: "Programazioari dagokionez berrikuntzak izango diren arren asmoa bera da, hau da, herriko toki ezberdinetan, Oñatin normalean entzuten ez diren musika formatu eta musika estiloak eskaintzea; hori horrela, aurreko urteetako esperientzietatik ikasita, zapatu gauean ez dugu gaztelekuan orain arte moduan egitarauko kontzertu handiena egingo; gure asmoa, aurten, programazioko *plater nagusia* gaue-tik egunera ekartzea da".

"Ohikotasunetik ateratzen saiatu direla" diote antolatzaileek eta horregatik kontzertuez harago, bestelakoak eskainiko dituztela: "Joseba Irazokik, esaterako, ez du ohiko emanaldirik egingo; harekin afari tematiko bat egitea proposatu diogu, eta oraindik zehazteko dugu izango dituen ezaugarriak. Tokiei dagokionez, protagonismo berezia izango du San Martingo ermitak, -aurten ez dugu San Lorentzoko ermitan egingo-, horrez gain, udaletxearen ondoan dagoen Lazarraga lorategian, Antixena gaztetxean, Santa Anan eta gaztelekuan, azken hori, lorategi-koaren B plan moduan".

Filma zuzeneko musikarekin

Santa Ana antzokian zabalduko dute aurtengo egitaraua; pantaila handian *Markak* dokumentala eskainiko dute. Gernikaren bonbardaketari buruzkoa da, Hannot Mintegiak zuzendu eta Aitor Etxebarriak musikatu duena. Ez da, baina, ohiko zine proiektio bat izango; izan ere, agertokian izango diren musikariek zuzenean eskainiko dute filmaren soinu banda.

Etxebarria musikaria birritan izango da aurten Oñatiko jaialdian; domekan Gaizka Isunzarekin (Audience) partekatuko du San Martingo ermitako emanaldia; hamabost urtez elektronikaren munduan jardun ostean bide berria hartu du gernikarrak, eta argitaratu berri duen *Nihilism Part 1* lana da horren erakusle. Gaizka Isunzak ere eskarmentua du musikagintzan; askotariko musikariek kola-boratu ostean, iaz kaleratu zuen bakarkako lehen lana. 2017ko Audience taldearekin izan zen Oñatiko musika jaialdian, eta oraingoan, bakarlari formatuan jardungo du.

Egubakoitzean, urtero moduan, gaztetxean izango da kontzertua; iazko Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi zuen Bizkaiko Sua taldea eta Bartzelonako Los Sara Fontán bikotea -Sara Fontana biolin-jolea eta Edi Pou bateria-jolea- izango dira Antixenako agertokian. "Inprobisazioan oinarritutako emanaldiak egiten ditugu; guztiak dira aldakorrak eta intentsuak", azaldu du Fontanek.

Donibanetik eta Bilbotik

Donibane Lohitzuneko Mõi Mõi kolektiboaren Mõi Mõi Orkestra magikoa izango da zapatuan, San Martingo ermitan. "Baleapop jaialdia antolatzeaz gain, orkestra eta korua ere badute, eta elkarrekin, hainbat talderen bertsioekin osatutako saio ikusgarriak egiten dituzte".

Jatorri eta estilo askotako musika nahasten dituen Bilbo-ko Hakima Flissi gaztea domekan Lazarraga lorategian izango da, Dj Bravarekin batera. "Erritmo urbanoetaraino hurbilduko gaitu. Talentu handia du, eta horren erakusle da, jaialdi ezagunetan izan dela".

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA, ELKARRIZKETA
OTSAILAREN 28AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
ANA GOITIA KAZETARIAK, IZARO ANDRES MUSIKARIA
ELKARRIZKETATUKO DU

tt

▶

goiena

Zu hemen zaude.



SARA FONTÁN

"Eskertzekoak dira halako jaialdiak"

SARA FONTÁN
BIOLIN-JOLEA

Hamaika urterekin biolina jotzen ikasten hasi, eta, harrezkero, ibilbide luzea egin du Sara Fontán (Vigo, 1980).

Biolina da zure tresna, baina estilo klasikotik harago zoaz.

Nerabezaroan estilo asko ezagutu nituen eta oraindik ere klasikoa jotzen dudaren, urteekin ikasi dut zuzenean biolinarekin lotuta ez dauden baina oso maite ditudan estiloetarako erabiltzen. Nire helburua ondo pasatzea eta gauza berriak probatzea da.

Edi Pou bateria-jolea duzu lagun; nor da?

Za! taldekoa da; talentu izugarria du, beti geldigor eta energia izugarriarekin.

Kontzertuaz gainera tailerra egingo duzue; ze asmorekin?

Jolasteko gogoz dauden musikariei eskainita dago, hizkuntza berriak ikasi eta tarte gozo bat partekatzeko asmoz; ez du jakinduria mailak inporta, elkarrekin sortzeko gogoak baizik. Sormen konfort-gunetik atera nahi dugu; jolasen bidez entzumena, intuizioa eta sormen kolektiboa sustatzeko helburuarekin. **Gogotsu zaudete Beratu jaialdira etortzeko?**

Musika-ekunitate bat ezagutzeko aukera ematen digu, eta oso pozik gaude! Eskertzekoa da egitarauan arriskatzan duten Beratu moduko jaialdiak egotea.

Musika inprobisazioa eta yoga

Beratu jaialdia arloko profesionalen eta musikazaleen topaleku izanik, askotariko tailerrak egin izan dituzte, eta oraingoan ere, hala egingo dute zapatu goizean, Los Sara Fontán bikotearen eskutik: "Musikariei eskainitako musika inprobisazio tailerra izango da, asmatu duten karta joko baten bitartez egingo dutena. Parte hartzaileei musika tresna bat ekartzeko eskatuko diogu", azaldu dute antolatzailleek, eta zera gaineratu du Fontán: "Bi zatitan banatuta izango da: lehenengoan, sinbolo-kartetan oinarritutako hizkuntza irakatsiko dugu, eta ondoren, ikasitako hori praktikan jarriko dugu, hau da, konposatzeko nola erabili ahal den ikusteko". Tailerra doan da, baina plaza mugatuak ditu, eta aurrez izena eman behar da, Beratujaialdia@gmail.com helbidera idatzita.

Musikaren alde lasaigarria edo terapeutikoa baliatuta, Yoga musikatua saioa ere proposatu dute zaturako: "Herriko Iñigo Ugarte eta Tommaso Galati musikarien laguntzarekin egingo dugu; gitarrarekin eta baxuarekin gidatutako bidaia sonikoa, mugimendu eta meditaziorako arnasketa kontzientea landuz. Eltzian egingo dugu, 10:30etik 11:45era, yoga klase dinamikoa izango da. Esperientzia dutenei zein hasiberriei zuzenduta dago, guztiok moldatzeko modukoa. Beharrezkoa ez bada ere bakoitzak bere esterila ekar dezake", diote antolatzailleek eta zera gaineratu du Ugarte musikariak: "Esperimentu polita da guretako. Ordenagailuko oinarri-perkusioak, eta gitarra eta baxua erabiliko ditugu, inprobisazio saio bat izango da guretako".

Doako saioa da, baina, aurrez izena eman behar da Beratujaialdia@gmail.com helbidean.

KONTZERTUAK, ZINE EMANALDIA ETA TAILERRAK, BESTEAK, AURTENGO BERATU JAIALDIAN

EKITALDI GUZTIAK ZABALIK DAUDE BAINA AURREZ IZENA EMAN BEHAR DA TAILERRETARAKO

Egitaraua

Kontzertuak, zine emanaldia eta tailerrak izango dira hirugarren Beratu jaialdian.

MARTXOAK 25, EGUAZTENA

• **Zinema emanaldia**
Markak dokumentala zuzeneko musikarekin, Santa Ana antzokian, 19:00etan; sarrera 5 euro.

MARTXOAK 27, EGUBAKOITZA

• **Sua eta Los Sara Fontán taldeen kontzertua** Antixena gaztetxean, 22:30ean; sarrera 5 euro.

MARTXOAK 28, ZAPATUA

• **Yoga musikatua saioa**
Tommaso Galati eta Iñigo Ugarte musikariekin, Eltzian, 10:30ean; doan.

• **Componer Jugando a cartas tailerra** Los Sara Fontán bikotearekin, Eltzian, 11:00etatik 14:00etara; sarrera doan.

• **Möi Möi Orkestra magikoaren emanaldia** San Martingo ermitan, 18:00etan; doan.

• **Joseba Irazokirekin afari tematikoa** Eltzia tabernan, 21:30ean.

MARTXOAK 29, DOMEKA

• **Hakima Flissiren kontzertua** Lazarraga lorategian, 12:30ean. Eguraldi txarra egiten badu gaztelekuan; doan.

• **Aitor Etxebarria eta Gaizka Isunzaren kontzertuak** San Martingo ermitan, 18:00etan; sarrera 5 euro.

Ordaindu behar diren kontzertuetarako sarrerak aurrez Onati.eus atarian eros daitezke. Ekitaldi guztiak zabalik daude baina tailerretan eta afari tematikoan parte hartzeko aurrez izena eman behar da Beratujaialdia@gmail.com helbidera idatzita.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko otsaileko sariak!

Ebook reader
Parte hartzeko sariaren izena: Ebook

EROSKI
ARRASATE

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeke, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ONATIKO DAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrendagailu (DPO) 157000 laguna da bere jabearen datuak erabiltzeko Goiena Klubaren Zuzendaritza. Partehartzailearen datuak automatikoki bideratzen dira. Datuak berriz erabiltzeko, baina da indarrendagailuaren datuak erabiltzeko. Erabiltzailearen datuak berriz erabiltzeko, baina da indarrendagailuaren datuak erabiltzeko. Erabiltzailearen datuak berriz erabiltzeko, baina da indarrendagailuaren datuak erabiltzeko.

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. 634 94 30 78

Bergara edo Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. Ama eta alaba txikia gara. Lanean nago. Telefonoa: 671 16 54 60

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 685 77 40 26

105. ETXEAQ OSATU

Bergara. Gela bat ematen da errentan San Lorenzo kalean. Berehala sartzeko moduan. 688 63 52 83

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ARRASATE

Gozotoki denda errentan ematen da, Kontzezino 4 helbidean. 646 65 12 20

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Asteazken zehar 16:00etatik aurrera edota asteburuetan nagusiak zaintzen eta garbiketan aritzeko gertu nago. 647 51 48 07

Arrasate eta inguruak. Emakumea garbiketa lanetarako edota pertsona nagusien zaintzarako prest. 603 25 79 96

Arrasate. Pertsona nagusi edota umeen zaintzarako prest nago, baita garbiketa lanetarako ere. 643 47 42 33

Bergara. 26 urteko Bergarra naiz. Goizetan eta zenbait eguerditan haurrak zaintzeko prest nago. 695 75 11 97

Bergara. Emakume eskalduna eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko. Soziosanitario titulazioarekin. 656 74 78 43

Debagoiena. 26 urteko gaztea naiz, arduratsu eta zintzoa, eta nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Bota etxean bertan bizi izaten ere. Esperientzia daukat. Telefonoa: 604 23 38 20

Debagoiena. Asteburuan edo aste barruan garbiketa lanetarako edota pertsona nagusi eta umeen zaintzarako prest. Ikastaro soziosanitarioa aterata. 632 92 67 36

Debagoiena. Asteburuetan etxer etxeko laguntzan aritzeko gertu nago. Autoa daukat. Telefonoa: 631 98 15 50

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago: erakuntza lanak, garbiketa, ume eta nagusien zaintza eta abar. 631 36 11 18

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketa lanak, umeen eta nagusien zaintza eta abar. 688 85 46 59

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu: erakuntza eta altuera lanak, garbiketak edota umeen eta nagusien zaintza. Telefonoa: 695 83 48 64

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu orduka, egun eta gau soiteetan edota asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta beharrezko agiri guztiekin. 685 22 54 01

Debagoiena. Emakume eskalduna etxerako lanetarako edota ume eta pertsona nagusien zaintzarako prest. Telefonoa: 680 49 11 45

Debagoiena. Erabateko prestutasuna duen emakumea zaintza lanetarako prest. 631 93 11 90

Debagoiena. Erizain laguntzailea pertsona nagusien edota umeen zaintzan eta garbiketa lanetan jarduteko prest. Orduka. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea, marbotik aurrera lanean hasterako prest. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 666 07 42 98

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu orduka, etxean bertan bizi izaten, zein asteburuetan, zaintza lanak egiteko. Telefonoa: 688 71 92 47

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea pertsona nagusien zaintzan aritzeko gertu, egunez zein gauaz. 631 64 59 04

Debagoiena. Etxer etxeko laguntzaile moduan esperientzia eta erreferentzia onak dauzkan mutila nagusiak zaintzeko gertu. Orduka eta asteburuetan ere bai. Baita barriertan ere. Foru Aldun-

diko ziurtagiria eta autoa dauzkat. 662 43 08 54

Debagoiena. Goizetan tabernari moduan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 643 43 64 11 (Andrea)

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen edota astegunetan 16:00etatik aurrera nagusiak edo umeak zaintzen lan egiteko prest nago. 688 74 00 14

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. 655 23 81 50

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. 711 72 21 45

Debagoiena. Nagusiak edota umeak zaintzen eta garbiketan lan egiteko gertu nago. Orduka eta baita gauetan ere. Telefonoa: 612 41 17 49

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota etxeko lanak egiten jarduteko gertu nago. Telefonoa: 686 55 29 33

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Prestutasun osoa. Baita asteburuetan ere. 603 30 43 52

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulua eta legeko paperak dauzkat. 643 73 62 83

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita ospitalean gauak egiteko ere. 659 29 79 55

Debagoiena. Nekazaritza, abeltzaintza, eraikuntza eta margotze lanetan esperientzia duen mutila lan bila. 602 59 31 05

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Erreferentziak aurkez ditzaket. 603 62 82 99

Debagoiena. Neska arduratsua zaintza lanetarako gertu. Erreferentziak aurkez ditzaket. Telefonoa: 602 53 68 24

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketak egiteko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Telefonoa: 603 33 18 29

Debagoiena. Neska nagusiak zaintzeko gertu. Egun osorako prest. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Autoarekin eta beharrezko titulazioarekin. Eskarmentu handiarekin. 600 00 51 60

Debagoiena. Neska prest garbiketa lanak egiteko edota haurrak eta nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 643 59 76 06

Debagoiena. Nikaragua-kot mutila gertu nagusiak zaintzeko, eraikuntzan laguntzeko edota nekazaritzan jarduteko. Telefonoa: 677 00 90 26

Debagoiena. Orduka edo egun osoz lan egingo nuke nagusiak zaintzen, garbiketan edota tabernari moduan. Baita asteburuetan ere. Esperientzia daukat. Ingelesezt eta gaztelerez badakit, eta euskara ikasten ari naiz. 634 71 01 30

Debagoiena. Orduka edota gauetan nagusiak zaintzeko prest. Soziosanitario ziurtagiria daukat. 647 31 48 17 (Consuelo)

Debagoiena. Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Baita gauetan ere. 634 94 30 78

Debagoiena. Ostalaritza ikasketak dituen mutila

gertu tabernako zein jangelako zerbitzari moduan lan egiteko. Baita nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izanda edo bestela. 603 29 69 20

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintza lanetan aritzeko prest nago. 669 38 92 91

Debagoiena. Soziosanitario ikastaroa eta legeko agiriak dauzkan neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiten. Asteazken zehar, orduka edo egunez. 697 86 48 91

Debagoiena. Soziosanitario titulua duen gizona nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko prest. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Orduka edo egun osoz. 632 83 32 44

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, ahal bada etxean bertan bizi izaten. Ikastaro eta beharrezko agiri guztiak dauz-

kat eta erreferentzia onak ere aurkez ditzaket. Telefonoa: 631 12 51 27

Debagoiena. Zaintza lanetan aritzeko prest nago. Erabateko prestutasuna. 631 19 75 84

Lan bila. Mutil arduratsua gertu nagusiak zaintzen, eraikuntzan laguntzen, sukalde garbitzen edota laguntzen zein baserriko lanetan aritzeko. Telefonoa: 674 85 61 71

5. IRAKASKUNTZA


501. JASO

Bergara. Batxilergo mailako euskarazko eskola partikularrak emateko pertsona baten bila gabil-tza. 625 70 84 55

502. EMAN

Bergara. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eskola partikularrak Bergaran. Edozein materia edo hizkuntza lantzeko, Ingelesa barne. Harremanetarako zenbakia: 610 12 49 66

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ATZERA BEGIRAKO ARATUSTEAK

'Hala bazan' Zapata eta domeka, 21:30



GOIENA

IZARO ABESLARIARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap' Zapata 21:00 eta domeka 21:30

EGUBAKOITZA, 28	ZAPATUA, 29	DOMIKA, 1
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 Kantari Oñati 5	09:00 Asteko errepasoa
11:00 Elkarrizkettap: Beñat Gaztelumendi	09:30 Kantari Oñati 4	09:30 Kantari Oñati 4
11:30 Hemen Debagoiena	10:00 Kantari Oñati 6	10:00 Kantari Oñati 5
12:30 Huhezinema 3	10:30 Hala bazan: Aratustek	10:30 Kantari Oñati 6
13:00 Hala bazan: Aratustek	11:00 Hemen Debagoiena	11:00 Hala bazan: Aratustek
13:30 Hemen Debagoiena	12:00 Harira eztabaida	11:30 Elkarrizkettap: Izaro
14:30 Albistek	12:30 Elkarrizkettap: Izaro	12:00 Aratuste kontzertua
14:45 Harmailatik	13:00 Jaiak: Aratustek	14:00 Hala bazan: Aratustek
15:15 Hemen Debagoiena	14:00 Hemen Debagoiena	14:30 Hemen Debagoiena
16:15 Albistek	15:00 Asteko errepasoa	15:30 Asteko errepasoa
16:30 Kantari Oñati 3	15:30 Hala bazan: Aratustek	16:00 Jaiak: Aratustek
17:00 Albistek	16:00 Hemen Debagoiena	17:00 Kantari Oñati 6
17:15 Elkarrizkettap: Xabier Aierdi	17:00 Kantari Oñati 6	17:30 Kantari Oñati 5
17:45 Albistek	17:30 Kantari Oñati 4	18:00 Kantari Oñati 4
18:00 Hemen Debagoiena	18:00 Kantari Oñati 5	18:30 Hala bazan: Aratustek
19:00 Kantari Oñati 1	18:30 Elkarrizkettap: Beñat Gaztelumendi	19:00 Jaiak: Aratustek
19:30 Hala bazan: Aratustek	19:00 Kooltur: Xabi Bandini	20:00 Hemen Debagoiena
20:00 Hemen Debagoiena	20:00 Hemen Debagoiena	21:00 Asteko errepasoa
21:00 Hala bazan: Aratustek	21:00 Elkarrizkettap: Izaro	21:30 Hala bazan: Aratustek
21:30 Elkarrizkettap: Izaro	21:30 Hala bazan: Aratustek	22:00 Elkarrizkettap: Izaro
22:00 Hemen Debagoiena	22:00 Jaiak: Aratustek	22:30 Hemen Debagoiena
23:00 Kooltur: Xabi Bandini	23:00 Aratuste kontzertua	23:30 Kooltur: Xabi Bandini

EGUBAKOITZA, 28

XABI BANDINIREN KONTZERTUA

'Kooltur Ostegunak'

23:00

ASTELEHENA, 2

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK


'Harmailatik'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 3



GOIENA

ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUENA, 4

GALDERA-ERANTZUNEN LEHIAKETA

'Zirikatzen'

18:00/20:00/22:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA

Pedro Jose Echeverria Unzalu

Luis Ezeiza HLHIko irakasle baten aita

2020ko otsailaren 24an hil zen.



Luis Ezeiza Herri Eskolako komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.



Eskoriatzan, 2020ko otsailaren 28an.

OROIGARRIA

Maria Isabel Garcia Amilibia

Ramon Arrese 'Kapaña'-ren alarguna

2020ko otsailaren 25ean hil zen, 88 urte zituela.





Ez guri agurrik esan, gero arte baizik.

Zure familia. Bergaran, 2020ko otsailaren 28an.

ESKER ONA

Paul Mujika Gallastegi

2020ko otsailaren 25ean hil zen, 56 urte zituela.





Familiaren izenean, eskerrik asko bihotz-bihotzetik egun hauetan gure ondoan izan zareten guztioi.

—

Agurrik ez, Paul; zu beti gurekin.

Bergaran, 2020ko otsailaren 28an.

OROIGARRIA

Roque Iñarra Lizarralde

Antzuolako alkate ohia

2020ko otsailaren 20an hil zen.



Antzuolako herriaren alde egindako lanagatik, esker onez.



Antzuolan, 2020ko otsailaren 28an.

OROIGARRIA

Jesus Maria Elejalde Plazaola

Aramaioioko seme kuttuna

2020ko otsailaren 20an hil zen, 84 urte zituela.





Aramaioioko herriaren alde egin duzun lana bihotzez eskertuz.



Aramaion, 2020ko otsailaren 28an.

ESKER ONA

Josefina Martin Botello

2020ko otsailaren 16an hil zen, 76 urte zituela.





Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza zapatuan izango da, otsailaren 29an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi aldeaz aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2020ko otsailaren 28an.

HILDAKOAK

Gregorio Erostarbe Aranburu. Oñatin, otsailaren 7an. 87 urte.

Benita Azkarate Uribesalgo. Bergaran, 14an. 84 urte.

Eder Pagalday Perea. Eskoriatzan, hilaren 14an. 29 urte.

Felix Ugarte Ojanguren. Arrasaten, hilaren 15ean. 92 urte.

Jesus Maria Reparaz Uncilla. Bergaran, 15ean, 90 urte.

Emilia Zabaleta Barrutia. Bergaran, hilaren 16an. 83 urte.

Juli Idigoras Irala. Bergaran, otsailaren 16an. 92 urte.

Kontxita Agirrezabal Albedi. Bergaran, 16an, 96 urte.

Margari Gisasola Olabide. Bergaran, hilaren 17an. 80 urte.

Jesus Maria Elejalde Plazaola. Aramaion, 20an. 84 urte.

Roque Iñarra Lizarralde. Antzuolan, 20an. 90 urte.

Yahya El Qarch. Aretxabaletan, otsailaren 22an. 4 hilabete.

Eva Ramudo Permuy. Bergaran, otsailaren 22an. 77 urte.

Tomas Larrañaga Azpeitia. Oñatin, hilaren 22an. 89 urte.

Pedro Jose Echeverria Unzalu. Aretxabaletan, 24an. 94 urte.

Rosa Maria Blanco Diz. Arrasaten, hilaren 24an. 49 urte.

Maria Isabel Garcia Amilibia. Bergaran, 25ean. 88 urte.

Paul Mujika Gallastegi. Bergaran, hilaren 25ean. 56 urte.

Francisco Palomares Guillen. Bergaran, 25ean. 89 urte.

Maria Yolanda Villegas Arias. Oñatin, otsailaren 25ean. 59 urte.

Anastasio Okina Bengoa. Arrasaten, hilaren 26an. 84 urte.

Juan Kortabarria Zulueta. Oñatin, otsailaren 26an. 86 urte.

M. Carmen Agirrebengoa Korkostegi. Oñatin, 26an. 91 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dit beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 28 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

Zapatua, 29 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

Domeka, 1 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

Astelehena, 2 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 2

Martitzena, 3 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

Eguaztena, 4 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15/ 943 79 09 74

Eguena, 5 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 28 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63

Zapatua, 29 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Domeka, 1 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Astelehena, 2 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 7

Martitzena, 3 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Eguaztena, 4 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

Eguena, 5 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 28 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Zapatua, 29 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Domeka, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Astelehena, 2 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Martitzena, 3 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Eguaztena, 4 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguena, 5 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2020ko abuztuaren 31ra arte:

RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2019 osoan:

OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

TXUTXU-MUTXUAK



1. Aratusteei, agur
Martitzenean bukatu ziren Aratusteak, eta Arrasaten sardinaren hileta ospatu zuten, herritarrez inguratuta. Sei metroko sardina erre zuten, Herriko Plazan.

2. Merkataria, moxorrotuta
Aratuste-martitzena ospatu zuten Aretxabaletako merkatariek. Eguerdian, dendak itxi, moxorroa jantzi eta bazkaltzeko elkartu ziren.

3. Txokola-jan solidarioa
Oñatiko Parrokiako Misio Taldeak elkartasun ekintza egin zuen Aratuste-martitzenean. Batutako dirua Gineako Conakryko proiektura bideratuko dute.

4. Otarrea Alaia Morenoren
Goienak egindako argazki lehiaketako irabazlea Alaia Moreno arrasatearra da. Guztira, 77 argazki batu dira, eta zozketa bidez aukeratu da argazki irabazlea.

5. Itsasoa Leintz Gatzagan?
Horixe dirudi Aratusteetako argazkia ikusita. Itsasoko hainbat espeziekin eta beste pertsonaia batzuekin bete ziren kaleak. Bainua hartzeko aukera ere izan zuten.

6. Askotariko pertsonaia
Irudimenak mugarik ez duela erakutsi zuten bergarrek Aratusteetan. Askotariko pertsonaia ibili ziren herriko kaleetan, dantzan eta festa-giroan.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa
Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak
Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak


Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI
Aine Martinez Lopez
Martxoaren 3an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Sei urtetzar ja, maitia. Patxo erraldoi bat familia danaren partetik. Oso zoriontsu izan!



ARETXABALETA
Oier Urkia
Martxoaren 2an, 10 urte. Zorionak familiako danen partetik. Primeran ospatu zure eguna, txapeldun! Muxu asko zuretzat! Beltzen partetik be bai!



OÑATI
Julen Odriozola Larrañaga
Martxoaren 1ean, 6 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo pila bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Izadi Ramos
Martxoaren 1ean, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxekoan partetik.



ONDARROA
Aran Balerdi Zeberio
Martxoaren 1ean, 5 urte. Etxeko txikiñak bost urte betetzen ditxu. Patxo pololo bat!



BERGARA
Julen Mendiarez Osinalde
Otsailaren 28an, 2 urte. Zorionak, Julen! Dagoeneko bi urte! Ondo pasatu zure urtebetetzea.



BERGARA
Eki Markina Urizarbarrena
Otsailaren 28an, urtebete. Zorionak, Eki! Oso ondo pasatu zure eguna. Zorionak familia osoaren, eta bereziki, Naroaren eta Haizearen partetik!



OÑATI
Ane Garcia Calzada
Otsailaren 28an, 10 urte. Zorionak, Ane! Handitzen zabitzen arren, gure txikitxo izango zara beti! Askota maite zaitugu! Enara, Hegoi, aitatxo, amaxo eta familia osoa.



OÑATI
Unai Luis Gomez
Otsailaren 27an, urtebete. Zorionak, txiki! Urtetxo bat! Primeran pasatu eguna eta patxo erraldoi pila bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Sara Sotil Barrio
Otsailaren 26an, 8 urte. Zorionak, bidsotza! Egun ederra pasatu zeure egunien. Moso asko, etxeko danan partetik!



ARAMAIO
Jule Lizarralde Errasti
Otsailaren 26an, 6 urte. Zorionak, Jule! Sei urte gure bizixek beteten! Jarraitxu holan, politx hori!



BERGARA
Intza eta June Guerrero Beistegi
Otsailaren 26an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bana, danon partetik.



BERGARA
Ander Garai Zenitagoia
Otsailaren 25ean, 4 urte. Zorionak, maitxia! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat, familia osuaren partetik.




BERGARA
Malen Azkarate-Askasua Baleztena
Otsailaren 25ean, 5 urte. Zorionak eta muxu potolo bat gure etxeko printzesa txikiari. Ondo-ondo pasatu zure eguna!



ARRASATE
Aitor Garcia Salaberri
Otsailaren 25ean, 8 urte. Zorionak, Aitor! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu asko, familiako guztion partetik.



BERGARA
Aitor Perez Elkorobarrutia
Otsailaren 24an, 3 urte. Zorionak, maitxia, familia osoaren partetik! Eta patxo handi bat, bereziki, Hodeiren eta Maddiren partetik!



OÑATI
Ioritz Sagasta Abarzuza
Otsailaren 24an, 3 urte. Zorionak aitatxoren eta amaxoren partetik. Duela hiru urte etorri zifan gure bizitzara. Zorionak, maitia.



OÑATI
June eta Sara Segurola
Sarak 4 urte, otsailaren 17an eta June 6 urte, 24an. Zorionak, bikote! Etxekoan partetik, patxo potolo bat bixoiri.



ARRASATE
Mara Garcia Martin
Otsailaren 23an, 7 urte. Zorionak gure etxeko sorginari! Primeran ospatuko degu... Muxu erraldoi bat amaren eta aitaren partetik! Beti ekipo!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 28

OÑATI 'Azken txanpa' azoka
Txandaren outlet azoka.
Kaleetan, 09:00etan.

ARETXABALETA Ixadebalde azoka
Merkealdien azoka. 50 euroko sei bonu zozketatuko dituzte.
Mojen komentua, 10:00etan.

ELGETA 'Ipuinen ordua'
Boluntario taldearen eskutik, hiru saio: 17:00etan, LH-3tik aurrerakoak; 17:30ean, 5 urteko gelatik gorakoak; eta, 18:00etan, 2-3 urtetik gorakoak.
Liburutegian.

BERGARA Gipuzkoako Topaketa Sozialistak
17:30ean, harrera; 18:30ean, *Proletarizazioa eta antolakuntza forma berriak*, Seminarixoa; 21:00etan, afaria; eta, 22:00etan, kontzertua, Kartzela zaharrean.
Bergaran.

OÑATI 'Ur publikoaren fluorazioa. Berraztertu beharreko gaia' hitzaldia
Steve Carrek egingo du berba.
Euskaldun berria gelan, 18:00etan.

BERGARA Ipuin kontaketa
Lur Kortaren saioa, 4 eta 6 urteko umeendako.
Haur liburutegian, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Haurrak eta pantailak: harremanari buruz hausnartzeko tertulia' saioa
Teknologia digitalen erabilera pedagogikoan aditu Amaia Arroyok gidatuko du saioa. Debalde.
Kuku Miku elkartean, 18:00etan.

ANTZUOLA EH Bilduren batzar irekia
Zabortegia, bidesaria eta hauteskundeak izango dituzte hizpide.
Olaran etxean, 18:30ean.

LEINTZ GATZAGA 'Vasco-Navarro trenaren Arrasaten' dokumentala
Olatz Bartolome eta Alberto Loiti izango dira gonbidatuak.
Liburutegian, 19:00etan.

ARETXABALETA Bandaren kontzertua
Debalde.
Mojen komentuan, 19:00etan.

BERGARA 'Emakumea, ama eta kirolaria' hitzaldia
Oihana Azkorbebeitiak egingo du berba, Mendi Astearen baitan.
Pol-Pol aretoan, 19:00etan.

OÑATI Elkartasun afaria
Parrokiako misio taldearen eskutik. Batutako dirua, Ginea Conakryko proiekturako izango da.
Bidaurretan, 20:00etan.

ARETXABALETA GAZ Limbo taldea
Lekeitioko taldeak trap doinuak eskainiko ditu.
Udaletxe zaharrean, 22:00etan.

ESKORIATZA Bilbao Mendi Tour Film Festival
Treeline eta *Climbing Blind* pelikulak emango dituzte. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 22:00etan.

ELGETA Ipuin erotikoen kontaketa
Itziar Rekalderen saioa, *Bibliobero* jardueren baitan.
Liburutegian, 22:30ean.

ZAPATUA 29

OÑATI 'Azken txanpa' azoka
Txandaren outlet azoka.
Kaleetan, 09:00etan.

BERGARA Gipuzkoako Topaketa Sozialistak
09:00etan, gosaria; 10:00etan, *Etorkizunari heltzeko modua*, Zabalotegi frontoian; 14:00etan, bazkaria; 16:00etan, hainbat gairen gaineko mintegiak UNEDen, kartzela zaharrean eta Zabalotegin; 19:30ean, manifestazioa; 21:00etan, afaria; eta 22:00etan, Habemus Papam eta Criminal Remains taldeen kontzertua.
Bergaran.

OÑATI Budaren irakaspenen inguruko mintegi eta eztabaida
Joxe Arregik egingo du berba.
Elkar Hezin, 09:30ean.

BERGARA 'Atopia' liburuaren aurkezpena
10:00etan, rol jokoaren partida labur irekiak; eta 12:00etan, aurkezpena.
Kartzela Zaharrean.

LEINTZ GATZAGA Zuhaitz Eguna
10:00etan, ginkana Gatz Bidean; 11:30ean, landatzea; eta 12:30ean, luntxa.
Gatz Bidean, 10:00etan.

OÑATI Helduentzako antzerki taldea
Inprobisazio jokoak eta dantzak ilunetan egingo dituzte.
Eltzian, 10:00etan.

ARRASATE Amatasunari buruzko eztabaida feministak
Jabetze Eskolaren baitan.
Emakume Txokoan, 10:00etan.

OÑATI 'Herrixa kantuan'
Jose de Azpiazu musika eskolako eskutik, kantu jira.
Foruen plazan, 12:30ean.

BERGARA Boulder txapelketa herrikoa
Mendi Astearen baitan.
Labegaraietan, 15:00etan.

ARRASATE 'Kaskarot' haur antzerkia
ATX Teatro taldearen lana. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

ESKORAITZA Gaztetxer saioa
Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ELGETA Mahai-futbol txapelketa
Aurrez eman behar zen izena.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARETXABALETA Fun dantz! lehiaketa
18:00etan, ate irekiera; 18:30ean, epaileen ikuskizuna; 18:40ean, gazteen koreografiak; eta, 19:15ean, gorengo mailako koreografiak.
Ibarra kiroldegian.

OÑATI 'Dizdaitte' bertsolari sariketako finala
Maidar Arregi, Ane Zuazubiskar, Urko Arregi, Oihana Arana, Eli



PIO ORTIZ DE PINEDO

BERGARA 'Ikimilikiliklik' haurrentzako antzezlanak
Marie De Jongh taldearen azken antzezlanak, luzaroan beste ipuin askoren erruz sorginekiko izandako aurreiritziak uxatuko dituenak. Ekhi bere beldurrak nola gainditzeko dituen kontakutako dute. Sarrerak, lau euro.
Bihar, zapatua, Seminarixoa, 18:00etan.

Pagola, Txaber Altube eta Joanes Illarregi bertsotan.
Gaztetxean, 19:00etan.

BERGARA Shane Curley & Azkaiter Pelox
St. Patrick's Irish Gigs 2020 leloarekin.
San Juan auzoko ermitan, 19:00etan.

DOMEKA 1

OÑATI Zuhaitz eguna
Ingurumen Jardunaldien baitan.
Foruen plazan, 10:00etan.

ESKORIATZA 'Bakardadeari begira' erakusketa
MatiaZaleak elkartearen eskutik.
Ibarraundin, 10:00etan.

ARRASATE 'Nire baitan' tailerra
Jabetze Eskola egitasmoaren baitan Argenis Mesa Ruizek gidatutako saioa, gazteleraz.
Emakume Txokoan, 10:00etan.

ARETXABALETA Aingeru Guardakoa eguna
11:30ean, salda Basotxon; 13:15ean, autobusaren irteera; 13:45ean, bazkaria Etxe Aundin; eta 18:00etan, itzulera.
Basotxon.

OÑATI Iker Martinez Eta Zaldi Herrenak
Matinee kontzertua egingo dute. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 12:30ean.

ARRASATE Aratusteetako kontzertua
Arrasate Musikaleko Banda.
Amaia antzokian, 12:30ean.

BERGARA Argazki erakusketaren azken eguna
Gaur da Iskander Barrenaren bilduma ikusteko azken eguna.
Aroztegin, 12:30ean.

BERGARA 'Slack line' erakustaldia
Mendi Astearen baitan.
Bideberria, 13:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'
0-8 urte arteko umeendako eta euren familiendako ekintzak.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ANTZUOLA Ipuin kontaketa
Ixabel Agirresaroberen saioa, 3-10 urte arteko neska-mutikoendako.
Olaran etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA Bilbao Mendi Tour Film Festival
Harria herria, *Nebula* eta *Cholitas* pelikulak. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI 'Remendando males de amores' antzezlanak
Ikusi Makusi taldearekin. Batutako dirua Ginea Conakryko proiektura bideratuko da. Sarrerak, bost euro.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

OÑATI Dukkha taldea
Debalde.
Itturri tabernan, 19:30ean.

ASTELEHENA 2

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

OÑATI Ingurumen Jardunaldietako erakusketa
Gure herrikideak: hiri-biodibertsitatea eta Lemoizko borroka anti-nuklearra bildumak ikusgai martxoaren 8ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

MARTITZENA 3

BERGARA 'De ser mujer con discapacidad a ejercer de mujer' hitzaldia
Ana Maria Martinezek egingo du berba, gazteleraz.
UNED-en, 12:00etan.

OÑATI Bingo jokoa
Erretiratuendako.
Pake Lekun, 17:00etan.

BERGARA 'Ezetx esan eta ezezkoak onartu' hitzaldia
Ainhua Manzanorekin eta Maialen Sanchezekin, 9-16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako.
Irizarren, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Gure genealogia feministak' hitzaldia
Feminismoaren historiaren errepasoa egingo dute.
Olaranen, 18:00etan.

ARRASATE 'Erroa eta Geroa' dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia
Jabetze Eskola egitasmoaren baitan, Ane Gorosabelekin.
Kulturaten, 19:00etan.

ESKORIATZA San Pedro jaiak antolatzeko bilera
Lehen ideiak emateko batzar irekia.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Colapso: capitalismo terminal, transición ecosocial, ecofascismo' hitzaldia
Carlos Taibok egingo du berba Ingurumen Jardunaldietan.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Oñatiko emakume ekintzaileak' mahai ingurua
Miren Elgarresta, Nerea Ibañez eta Oñatiko hainbat emakume ekintzaile hizlariak eta Pilar Kaltzada moderatzailea.
Udaletxean, 19:00etan.

OÑATI 'Bortxatzailea zu zara' Bigarren entsegua
M8ari begira.
Eltzian, 20:00etan.

ARRASATE 'La odisea de los giles' filma
Martitzenetako emanaldia.
Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 4

BERGARA 'Uberako leku-izenen esanahixa asmatzen' solasaldia
Angiolillo Liburutegiaren 10. urteurrenaren harira.
Uberan, 18:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:30ean.

ELGETA 'Feminismoa herri mugimenduetan', tailerra
Iraitz Agirreren eskutik, irekia.
Udaletxean, 18:30ean.

ARRASATE 'Sagrario Lopez Losada, in memoriam' liburua
Poesia bildumaren aurkezpena.
Kulturaten, 19:00etan.

OÑATI 'Bai, mesedez! Egungo ingurumen erronkak' hitzaldia
Arkamurka Natur Taldeko kide Aitziber Sarobe, biologoak egingo du berba, Ingurumen Jardunaldien baitan.
Kultura etxean, 19:00etan.

EGUENA 5

ARRASATE Sasoibide irteera
Eskoriatzara joango dira.
Garibaiko geltokian, 09:10ean.

ESKORIATZA Odola emateko deialdia
Odol emaille berriak behar dituzte.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

ESKORIATZA Euskal jantziak egiteko ikastaroa
Gaurtik apirilaren 2ra arte egingo dute. Guztira, bost saio egingo dituzte, eta bereziki gonak eta txalekoak josten ikasiko da.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI Hirukideren aurkezpen hitzaldia
Euskadiko Kide Ugariko Familien Federazioko kideek egingo dute berba, elkarteak dituen zerbitzuen eta jardueren berri emateko.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE 'Euskarari oxigenoa 6000 metroan ere' dokumentala
Euskal Herritik Nepalera joandako joandako gazte talde batek hango xerpekin bizi izandakoak kontatzen ditu. Ostean, Felipe Uriarte zuzendariarekin solasaldia.
Kulturaten, 19:00etan.

ARRASATE Deadyard taldea
Kataluniako taldeak Kooltur Ostegunetako kontzertua egingo du. Sarrerak, bost euro.
Kulturaten, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 6

BERGARA 'Nire gorputza da' kantuaren koreografia
Herriko ikastetxe guztietako umeek eta gaztetxoek parte hartuko dute. San Martin plazan, Muniben eta ikastetxeetan egingo dute..
San Martin plazan, Muniben eta ikastetxeetan, 11:00etan.

BERGARA 'Amalurra' erakusketaren irekiera
Herriko emakume artistek egindako lanak ikusgai.
Aroztegin, 18:00etan.

ELGETA 'Kopa menstrual' hitzaldia
Elkoro botikako ordezkari batek egingo du berba.
Liburutegian, 18:30ean.

ESKORIATZA Nhil musika taldearen aurkezpena
Sortu berri den Debagoieneko Nhil musika taldeak kontzertua eskainiko du.
Zaldibar antzokian, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE	22:00. Zapatua eta domeka: 19:30.	zapatua: 17:15, 19:50, 22:25. Domeka: 17:15, 19:50. Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:10. Jumanji Egunero, domeka izan ezik: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30. 1917 Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30. Domekatik eguenera: 20:00. Adú Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:45, 22:10. Domeka: 17:20, 19:45. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00. Volando juntos Egubakoitza eta zapatua: 18:05, Domeka: 12:00, 18:05. Astelehenetik eguenera: 17:30. Sonic Egubakoitza: 18:30. Zapatua eta domeka: 16:30,	18:30. Astelehenetik eguenera: 17:30. Hasta que la boda nos separe Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30. Domeka: 12:00, 20:20. Astelehenetik eguenera: 20:00. Jojo rabbit Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:30. Domeka: 12:00, 20:20. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00. Manhattan sin salida Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:30. Domeka: 20:30. Astelehenerik eguenera: 20:00. La llamada de lo salvaje Egubakoitza: 18:25, 20:30, 22:30. Zapatua: 16:20, 18:25, 20:30, 22:30. Domeka: 12:00, 16:20, 18:25, 20:30.
AMAI ANTZOKIA			
Jojo rabbit Domekas: 19:30. Astelehena: 20:30.			
La aventuras del doctor Dolittle Domeka: 17:00.			
BERGARA			
SEMINARIXOA			
Hasta que la boda nos separe Domeka: 19:30. Astelehena: 20:30.			
Lur eta Amets Domek: 17:00.			
OÑATI			
KULTURA ETXEA			
Adú Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 19:30, 22:30. Astelehena: 19:30.			
Operacion Panda Zapatua eta domeka: 17:00.			
ARETXABALETA			
ARKUPE			
Aguas oscuras Egubakoitza:			
GASTEIZ			
GORBEIA			
Frozen II Zapatua: 16:25. Domeka: 12:00, 16:25.			
Parasitos Egubakoitza eta			

KRITIKA

Solo nos queda bailar ★★★★★
Zuz.: Levan Akin **Herr.:** Suedia (2019). **Aktoreak:** Levan Gelbakhiani, Bachi Valishvili, Ana Javakhiskvili

Dantza, gizartearen isla

ANTONIO ZABALA

Solo nos queda bailar pelikularen istorioa Georgiako hiriburua Tibilisni kokatzen da. Dantza talde nagusi bat dago, eta, baita, talde nagusira igotzea helburu duen gazteen taldea. Jakinekoea da ballet mundua oso zorrotza dela, eta aurrera egiteko, talentuarekin batera lan eta sakrifizio handiak egin behar direla. Honekin batera, Georgiako dantzak estereotipo markatuagoak ditu: gizonezkoen mugimenduek oso kementsuak eta indartsuak izan behar dute, eta emakumezkoen mugimenduek, xumeak. Eta dantzaren egoera gizartearen isla da. Gizakien portaera eta joera sexualak finkatuta daude, eta oztopo ugari gaingintu behar ditu horietatik ateratzen denak.

Merab filmaren protagonista da. Bizitzan eta dantzan bikote berdina du. Egun batean, dantza taldera, mutil bat heltzen da, eta poliki-poliki bi mutilen arteko erakarpena nabarmentzen hasten da. Pelikulan bi istorio paralelo daude: Merabek Maryrekin duena, eta Merabek Irakilrekin duena. Azken hori da taldera heldu berri dena. Lehenengo istorioa landuagoa egon arren, Levan Gelbakhian aktoreak modu bikainean aditzera ematen du pertsonaiaren barnean ematen diren aldaketak, maitasun sentimentuak heltzen zaizkionean. Pertsona itxi eta serioa izatetik, irribarretsu, ireki eta ausarta izatera pasako da. Eta nor den jakitera helduko da.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Orain... Epele?

Eusko Jaurlaritzak arazo larria dauka, orain, hondakinekin. Ados. Baina gehiago kezkatzen nau herriarrok daukagun arazoak; larriagoa eta garrantzitsua dela uste dut. Ingurumena eta osasuna ditugu jokoan.

Zaldibarko gertaerak gauza asko utzi ditu agerian: bata, Eusko Jaurlaritzaren utzikeria berea den eskumen baten kudeaketan; bestea, Eusko Jaurlaritzak ez daukala hondakinen gaia kudeatzeko planteamendu jasangarririk; hirugarrenik, gertaera solte bat baino gehiago, mantentzen dugun bizi-sistemaren ondorioa ere badela Zaldibarkoa.

Azkenaldian, Jaurlaritza eta Foru Aldundia Epeleko aukera ari dira aipatzen hondakin industrialak jasotzeko. Uste dut Mankomunitatearena izan behar dela azken hitza. Eta Mankomunitatea herriarren mesedetan lan egiteko sortu zen eta horri erantzun behar dio lehentasunez.

Nire iritzian, elkartzun instituzionala behar da, baina ez herriarren ongizatearen gainetik. Hondakinak kudeatzeko planteamendu serioa, jasangarria eta adostua aurkeztu beharko luke laguntza eskean dagoen Jaurlaritzak laguntza hori jasotzeko. Orduan bai, baina beraien eredu jasangaitza iraunarazteko, ez. Epelen ez beste inon.

BUKATZEKO



Kim Jong-Un pasa den zapatuan Garibai etorbidean zehar, bere armadaren laguntzarekin. MARKEL BAZANBIDE

Arrasateko Karnabalak, Ipar Korean ere ezagun

Herrialdeko ohorezko delegatu diplomatiko den Alejandro Caok erreferentzia egin dio Twitterren 'Harristi'-k eta konpainiak zapatuan egin zuten desfileari. 26 lagunek armadak, Kim Jong-Un eta guzti, atentzioa eta zeresana eman du azken astean

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Hainbat mozorro eta oso ezberdinak ikusteko aukera izan da eskualdeko herrietan pasa berri diren Aratusteetan. Irudimenak eta umoreak muga gutxi izan ditu Debagoiengan, aurren; Aretxabaletan, esaterako, eski estazio bihurtu zuten Mitarte kalea, baita Donald Trumpen bisita jaso ere; Bergaran, oster, Julian

Iantzik eta *Paquirrin*-ek telebista plato bilakatu zituzten kaleak.

Arrasateko kasuan, Ipar Koreako armada ibili zen kalerik kale, Kim Jong-Un buru zela. Inaki Gurrutxaga, *Harristi*, Ipar Koreako agintariaren azalean sartu zen eta tanke eta sidearrekin desfilean jardun zuten. Hala, 26 lagunek osatutako taldeak mozorro lehiaketako lehen

saria eskuratzeaz gain, Ipar Koreako diplomatikoen belarrietara iristea lortu zuen.

Twitter bidezko oihartzuna

Ez dakite nola heldu zen argazkia Ipar Koreako ohorezko delegatu diplomatiko den Alejandro Caorengana, baina Twitter bidez haren mezu bat jaso dute, taldea zorionduz. Hala dio: "Duela 20 urte ez zegoen Ipar Korea-ri buruzko informaziorik. Egun, Euskadin, Pyongyang-eko desfileak imitatzen dituzte; banderekin eta baita tankeekin ere. Soldaduei formazioa falta zaie, baina hori bi astetan konpon daiteke. Zorionak!".

Hilabeteetako lana

"Urtero Karnabalen ostean bazkari bat egin ohi dugu eta bertan sortu zen ideia. Sidekarra duten hainbat lagun ezagutzen genituen eta gure taldera batzeko proposamena egin genien". Hala, Maritxu Kajoi pasata, domekero elkartu dira dena prest izateko. Kim Jong-Un-en kasuan karakterizazioan lana hartu zuen Gurrutxagak: "Zapatuan, goizeko zortzietan joan nintzen ilea moztera, Ipar Koreako agintariaren argazki batekin; bizarra aurreko egunean moztu nuen".



Ipar Koreako militarrek desfilean. M.B.

GOIENA TELEBISTA

UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA

GALDEGAZTE

GOIENA TELEBISTA

MARTXOAREN 3AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

IBAI ZANGITU SALTSEROARI ELKARRIZKETA

JOKIN BEREZIARTUAK ZUZENDUTAKO SAIOA



goiena
Zu hemen zaude.